



J. ETCHEPARE



BERIBILEZ



BAIONAN

LASSERREN ETCHEAN SALGEI

1931



Emix
J. 1900

BERIBILEZ

M-65370
F-69289

18V
28532

J. ETCHEPARE

BERIBILEZ



BAIONAN

LASSERREN ETCHEAN SALGEI

1931



AITZIN-SOLAS

Broussain mediku eskualzale khartsuak maite baitzituen bihotzez eskualdun probintziak, lahet zitzaion hango eremuetan barna zonbait egunen artetan iragaitea. Oinez zabilan ardura, aizina osoarekin. Abiatzean ez baitzuen gogoari emana norat hel, ez noizko, nun-nahi bazagon herritarrekin solasean, edo bazter-rari so. Eta nolako begi erneak etzituen, beharriak zoin zabal etzatchikizkan eskuarazko hizkuntza edozoini! Bere biziko gozori hoberenak Eskualerriari berari kendurik hil izana da. Orhoit-garrienak Donostiatik Bilbaorainoko itsas-hegiak, Lekeitio bid' erdi, utzi zaizkola zion.

Haren ahaleko eskualzale guti orai, gutartean. Astia nun ginuke bertzalde ? Urthe idorrak erori zaizkigu bizkarrerat : egiteko hanitz edo gutiegi, irabaziak chuhur, gogoa bethi arte-gatua...

Noizean-behin baizik ez gitazke herritik athera, mendiez bertzaldeko joan-jin batentzat ; orduan ere beribilez, tarrapataka, burrumban, begi beharriak gelditzen zaizkularik zoro eta burubarnea eltzagortua. Ikusi ala adituez zer derasakegu geroztik aho-edo lumaz, mami hazkurritsu zerbait dakarzenik ? Gauzen itchuraz, acholaz baizik ez gitazke mintza, izaitez nolako diren ezin dukegulakotz gure lasterkan zilatu.

Irakurlea gogorkiegi jazarriko etzaitalakoan, ausartatuko niz halere, berriki auzoan eginikako itzuliño batez zombait lerroren hemen ezartzera.

Bioazi ene lumatik erori bezala. Irakurtu-arau adituko ez nuenak, hel egin beza, othoi, liburuchkaren ondarrean jarria dutan hiztegirat. Huni esker, agian elgar-adituko dugu biek, orai eta gero.

J. E.

Aldudetik, 1929-ko otsailaren 5-ean.



BERIBILEZ

I

MUGARAINO

Agorrilaren lehen astezken-goiz batez abiatu ginen beraz Cambotik zazpi lagun, — hiru gizon eta lau andre, bi beribil atherbedunetan, — aratsean berean gibelerat sartzeko chedearekin, Loyolako ikusgarri omen-handikoez begiak betherik.

Gerla-aitzinean lauzpabortz aldiz mendiez-haraindiko eskualdetan ibilia nintzelakotz, — zoin urthez ez nakike orai chuchen, — lehen beribilean jarranazi ninduten biderearen erakusle, jabe gidariaren eskuinetarik. Aro ederra ginuen. Gu abiatu orduko, iguzkiak suntsitua zuen lurraren sapak gauaz airatu langarra ; zerua gora zagon, urdin zuhail ; bazterrak ederki argitzen zuen, beroa sartzan zitzaiozlarik eztiki gain-behera ; lanhoetarik garbi, mendiak berak lirainago zitzaizkigun agertzen ; landarerik chumeena uda minaren indarrak harrotzen zuen, eta bere erroen gainean lerdentzen.

Aire onak bizkortzen ez othe dauzkigunetz ere gure beribilak ? Erasia gogorrean lotu zaizkigu, behinik behin, bideari. Motorren joite azkarrak indartzen gitu guziak. Bagoazi gaztetuak hamar urthez, dena begi, dena beharri, gogoa arin. Etcheaz, ez gure egitekoez, ez herritarrez, ez ahaideez, ez gira gehiago orhoit. Bertze kezkarik deus ez dugu buruan, Loyolaren ikustea baizik.

Ororen jatekoa, bi otoetarik baten gibelego malan kokaturik, guhaurekin bagineraman.

Cambo-Gainean leihoak idckitzen ari zituzten. Dena chorkantu ziren erregebidearen bi bazterretako arbola handiak.

Ezin erranezko lelo batean bagoazi *Itxasu*-ko zubi berri ederraren gain-arku azpietarik harat. Zer aro choragarria ! Nolako urustasuna geure baitan ! Hau bizitzearen zoriona !

Sartu giren errekekako mazelatarik batean bizpahiru zilokek, lur-churi metaska bederarekin aitzinean, orhoitarazten gituzte *Luhosotik* hurbil girela. Patar luzesko baten zolara jautsi-ta laster, aurkitzen dugu herri pollita, bere etche apainduen eta eliza zaharraren artean artharekin zaintzen duena orok dakigun plaza zahar famatua. Ez Azantzaren, ez Larralden ukaldi gogorrek eta joko garbiak, ez Beheran ezkeraren beso bihurriak ez dute zorigaitzez ospetzen gehiago.

Bidea ez dugu beharrik galtzen, hanitzek egiten ohi duten bezala Heletako alderat chuchen aitzinatuz, Luhosoko haran gichenak apur bat lilluraturik : jakinaren oldez eskuin gira motz-zeiharkatu, Doniane-Garazirat buruz.

Ehun eta berrogoi ta hamar bat metretan, eihera tarro bat, leihoak eta teilatua zurituak, bainan ez irinez. Hemen dute porroskatzen, erhausten, garbitzen bere zikinatarik lur churia, igortzeko gero Limoges-hirirat, porzelenakien gei. Adituak gira porzelenaren egiteko behar dela alde batetik, eta guziz, *kaolin* deitzen den buztina, bertzetik *feldspath* deritzaion harri churi gogorra, eta *pegmatite* erraiten dioten bertze lurki batetarik lipar bat. Lehenbiziko bietarik ba omen du ausarkian eskualde huntako lurrak, Makea eta Lekorne auzo-herrietako eremuak barne, bainan ez orotan berdin lodi, ez mamitsu, ez hel-menean. Diote, hurbileko aurkintze hoberenak hustu ondoan, Baigura-mendiko erraietan barna zilatzen ari direla orai. Atsegin dugu jakinik ez derabilatela alferretan lana.

Bihurgune andana bat iragaiten dute gero errechki gure otoek, berriki zabaldu izanak baitira, bide-zola bera orozbat leuntzen ziotelarik. Baionatik Donianera joatea, eta hemendik behar-orduan Iruñara, besta bat da bizi giren mendean ; ephe

laburrik barne, handiagoa baizik ez dela izanen badugu uste, Baigorri harat Alduden barna, Ahadiko mendiaren sahetsetik, Iruñan sartzeko bidea otoentzat antolatua izanen denean.

Solas horiek derabiltzagularik, Harnabarrea uzten dugu eskuin. Burdin-bideak erditsutarik urratu balin bazuen ere, ondikotz, erreka izigarri batez, etchalde gizenagorik ez dugu hanbat ezagutzen nihun. Hango laborantza jaten bezala dute gure begiek, bere hedadura nasai ordokian.

Errobia agertzen zaiku berehala, burdin-bidearekin haren eta gure artean ; ibaia badoa nara itsas-alde, iguzkiak perekatuz han-hemenka, eta argituz dirdir.

Hartzamendiren konkor gora bezain zabal eta gaitzak ez ditu zorionez orainokoa lehertu ibaiaren bertzaldeko bospasei laborari-etche pollitak ! Goizeko iguzkiari bat bertzea baino gochokiago badaude guziak. Multchoan, *Bidarrai*-ko auzo bat egiten dute. Ikus-aldi bakotch, berazten dautet bihotza, haurreko orhoitzapen batzuen mina bat-batean jabetzen baitzait. Heien ondotik goiti, Hartza inguratuz, ama zenarekin igaiten nintzen bada, noizean behin, aitacho eta amachoren ganat...



Gure otoaen zalua ! Ikusmencan dugu ja Bidarraiko herria ; ikusi orduko, haurren eskoletchea muturrean goititzen zaion munhoari landatu zaizko gure behakoak. Han dira plaza, han ostatua, han apeztegiak ; han, mail bat bcherago, hiarateko hegiaren ozka batean apur bat sartua, eliza bera. Erromanoek egin zubi zahar beregizkoaren muthurretik etche churiño batzu, eslaian, harrapatzera bezala badoazkio petik gora. Munhoaren inguruan, ez urrunegi, mendi murriz gora batzu. Toki begikoagorik guti Eskualerrian. Grezian izan balitz holako bat duela bi mila urthe, segur erdi-erdian eraiki lioketela, marbrez, Olerkiaren templo bat, Adéma-Zalduby zenak egin zituen bakarrik hor ertor-etchea, eliza-pareta bat, eta, menuzergoko jeinua baitzuen, muble batzu ez nola-nahikoak. Bainan nork daki etzaizkonez hor berean Olerkiak bihotzean piztu, gerochago bere neurthitzetan aurdiki behar zituen urrezko pindarrak ?

Badu bertzela Bidarraiko herriak choko laketgarri bat baino

gehiago, bere ibarretan ere. Hala nola aldeanbertze iragaitera goazina : emazu, lats baten bi aldetarik, bospasei etcheñorekilako zabalgunek bat, mendi-lerro handiari buruz idekia. Arrotzer hemen trikatzea gocho zaie ; atzerritarrer, zombait ilhabethez egoitea, osagarriaren ontzen. Edozoin bozten da ikusteaz beraz.

Berehala zorigaitzez, harana hertsitzen da, errekatzeraino ; mendiek elgarri hurbiltzearekin egiten duten artekak lur-cherranga mehar batzu baizik ez ditu uzten alhortzat ; erregebideak, burdinbideak, Errobiak, hiruek badaukate garaitikoa.

Sartzearekin, gogoa den gutien bat ilhuntzen zaizu ; laster iartzen zira bizkitartean ; denik ere, luzesko badoalakotz erreka, lotsa batek uzurtzen zitu ; gero, etcheño bat edo bertze ikustearekin bidearen bazterrean edo mendi-mazelan chut, edo ibarño batean banakatuak, horra nun alegeratzen ziren ; ondotik, bigarren ilhundura bat, etsimenduz guti edo aski belztua, arteka tinkatzen delakotz berriz ; azkenean ilhundura, bozkario laburregia, lotsa eta batzutan izia bera gairiditzen dauzkizu, estaltzen, esperantza bizi batek : noizbait bada noizbait, zerbait choragari behintgotz agerturen zaizulako esperantzak.

Ezterenzubitik ala Urepeletik Baionaraino, noiz zabal, noiz hertsi, noiz herri, noiz bortu, nihoiz ez muthiri, Errobiaren harana holache da bidez-bide deramanaren begiekin, bihotzarekin ere ba, kukulaukari. Hortako bereko dugu hoinbertze maite, mendiez hunaindiko Eskualdunek.

Erran dugun artekatik athera girenko, horra nun zaikun begien aitzinean agertzen igurikian ginaudena : zelai gizen eder bat, *Ortzaizeko* zelaia. Bideak, inguru handi bat eginez, ordokiaren erditsutarik aldeanbertze geramatza gure beribilekin. Zendako ordean holako ingurua ? Etche-multcho bat aurkitu baitugu bi aldetarik, heien gatik othe ? ala, handik adar bat baitoa herrirat buruz, hunek hurbilago ukan zezan Baionatik Donianerako erregebidea ? Sinets dezala nahi duenak : guk, ez dezakegu, ez bat ez bertzea.

Halako ingurua, eta hain eztiki, egin izan behar balin badute gure otoek Errobiatik baztertuz, gure ustea da bidetako aitzindariak nahi ukan zutela, noizbait, han gairid ibiliko zirenak aski luzaz eta astiki egon zitezin beha *Arrosa*-ko choko pinpirinari...

Gutaz bezenbatean, ez dugu faltatzen. Toki berean lehengo guzien gainera, fotografia berri bat hartzen dute gure begiek ; fotografia berri bat sortzen da eta atseginez bethetzen gituelarik hazten guru buru-muñen barnean. Bizi gireno, agian, nahiko dugun aldi bakotch edo berdin uste gabetarik erakutsiko dauzkigu, harek, Arrosako ibarra bere bizitegi apainekin, Arrosako mendia, aztaparkatzen zaizkon laborari-etze churiekin, Arrosako eliza bichkar baten gainetik zelaiari gibelaz dagona, ahalgetu nahi balu bezala inguruneko edertasunaren zoragarria. Hilarren ikusteak gitu bakarrik apur bat ilhunduko, oraiko araberara...

Horiek hola, hurbiltzen gitzaizko emeki-emeki Errobiari. Eskuin uzten dugu Baigorriako bidea eta sartzen gira hamabortz bat kilometra luze ditaken erreka batean.

Leunagoa da Bidarraitik Ortzaizerakoa baino ; bi bazterretako mendiak berde ditu ; zolan badauzka, hertsisko izana gatik, landa eta pentze batzu gizenak. Etche guti bizkitartean. Gure sahetsetik ibaia, apur bat lohitsu, churrungan jausten da, iguzkiaren hunkiak dirdira batekin han-hemenka kizkurtzen diolarik gaina. Aire gocho batek hampatzen dauzkigu bulharrak. Begiak pausatzen zaizkigu.

Errekatik landa, *Azkarate*-ko herriaren hegitik aitzinat gozilarik, ohartzen gira choko hunek badituela lur batzu hautak, eskuaire bezenbat amodiorekin erabiliak oro. Gora hemengo laborariak !

Bainan Donianeko zelai ederraren ikustea begiak zurituak igurikitu ondoan, ez ikustetik histen zaizkit ene lagunak. Larremuthur batzu othartzen ohi diren bezala, urthetik urthera bizitegi berriz ari da alabainan estaltzen mendeal-alderat. Egoitza eder eta iraupeneko arras guti, bertzela.

Berehala *Uharte*. Hunen karrika-buruan, chichteaz ohartu gireneko harrisi gorrats lodi batean idekitzen den athe bati, — Doniane-hiriko athea, alde huntarik, — burrumban lotzen gira, eskuin, patar luze bati. Bideari hurbil, mendichkaren mazelan azkarki jarria, ondoan itzalpe batzuekin, aurkitzen dugu jauregi zabal eder bat. Donianeko zelai guzia bichtan duke, hunek ;

bainan adinak bere baitan sartua iduri du, eta aldetik gu bezala doakonari emaiten dio halako errespetu bat.

Gogoa halere ene lagunek Donianeko zelaian derabilate. Ageri zait atsegabe dutela ez ikusirik, aditzen dutalakotz : « zendako bada hoin mozki itzuli gitzaizko bizkarrez ? »

Bihurtzen nitzaie bizi-bizia. Diotet Doniane-Garaziz gozatu nahi duenak ez duela guk orai arte gineraman erregebideaz joan behar harat, bainan ba burdin-bideaz ; eta garalat jautsi orduko, Izpurako eliz'ondorat igaitea duela hoberenik. Handik da, handik bakarrik, ontsa ezagun Donianeko zelaia, etche berriek zorigaitzez geroago-gehiago jana, bai eta Donianeko hiri zaharra. bere inguruko harresi lodi gorratsak mendichkaren gaineko zitadelaren laguntzarekin hain gogorki zaintzen zuena etsaiaren oldarretarik ; nahi bezala handik ditzazkezu ikus hiru herri elgarri josiak, bat bertzea bezain choragarri beren aldapa eta ordokiekin : Izpura, Doniane eta Uharte.

Etsia ez dute hartzen ene lagunek, *Lasa*-ko herri bildu, ñimi-ñoa eskuinetarik, bazter-aire, ikustearekin baizik. Ttipia izana gatik, ez du batere gaichtoa iduri laborantzako.

Hirugarren erreka batek, bertzela, osoki bahitzen dauku gogoa : nolakoa izanen othe zaiku, hunatekoan ikusi ditugun bien ondotik ?

Biekin baduelarik eite, bietarik eiken da. Hertsatzen duten mendi-pareta goraskoak ez ditu leun, arbola zonbait lotzen baitzaizkote ; ez latz, ez baitute arkaitzik. Zolan, pentze eta alhor batzuentzat bada doi-leku. Ur-handia ez da baitezpada zabal, barnasko balin bada ere ohatzen. Laburra da erreka ; bospasei kilometra baino gehiago ez duke bururen-buru. Eta zelaiak ez dugu zeren iguriki harateko puntan, baizik herri churi pollit bat : *Arnegi*, emokatua bezala bi mendi-lerroen arteko chokoari.

Zortziak eta erditako, zubiaz bertze alderat helduak gira, muga zubi-erditan iraganik. Karabineroekin badugu orai behingo lan, errezebidore jauna ez omen dutelakotz jaikia.

II

NABAR-GOITIN HARAT

Anartean bagaude behin errekarri beha. Nun dira ordean, duela bi urthe lanho baten lehertzez goititu zen uhalde izigarriaren herechak ? Etche-sahets baten arraildura baizik ez da orai ezagun.

Ichtudiant gazte bat, sotanaz jauntzia, ikusten dugu etche batetik atheratzen. Atcho chahar bat hurbiltzen zaiku, guk deus galdegin gabe erraiten daukuna, begiak dirdir, badituela aurthen eskoletan Arnegik hamabortz apez-gei. Karanbilo ! Fede suharrekoa ditake Garaziko choko hau !

Errezebidorea ez bizkitartean ageri ! Igitzeko, ezpata-sista baten beharra baluke nunbait, alfer zotz zarek, Primo de Riverak berak emanik...

Oren bat osoa baderamagu tokiaren ganean. Noizbait, haatik, karabinero batek ekartzen dauzkigu gure paperak : erdi lotarik, kirimarra batez sinatu daizko aitzindari nagiak !

Bagoazi karraskan mendi-mazela bati goiti.

Laster, huna *Luzaide*, bere karrika labur eta elizaren inguruko etche-multzoñoarekin. Bainan zer erreka ikaragarria gure ezkerretarik, bere basura zolan ! Arnegikoari darraio, edo, hobeki erran dezadan, Arnegikoaren hastapena da ; bainan hertsia go hanitez bere petik-goran, eta hiruzpalau aldiz bederen luzego.

Bethi goitiago geramatzate beribilek. Gu gorago, eta chutago gerenda, barnago ere ba. Amilka eror baginte, ckaitz batek bota balitza han-hemenka kasik dilindan dauden etcheño batzu, zer itzulipurdia leize-behererat !...

Bihotza pilpil bagoazilarik, agertzen zaiku etche-multzoño bat erreka-hegi az bertzaldetik ; urrunago, Luzaideko elektrik' eihera aipatua. Noizko ordean helduko gira mendi-leporaino ?

Etsigarria da, zinez, hogoi kilometra luzeko patar hau, bihurgunea bihurguncaren ondotik. Bide ona da bizkitartean, eta askitto zabala ; erreka hertsia ren bertzaldeko mendi handiek gozatzen ere dauzkute begiak. Oihanez estaliak ikusten ditugu,

ostotsu, gordin. Aire hochpil batek phagoen abarrak, farrastatuz, elgarri chaflatzen ditu churruntcha ezti batekin.

Erdi-lotsatuak baratzen gira eta jausten, gibelerat behatzeko. Erreka gaitza, diogu berritz orok batean, gain-behera gure begiez ikher baitezakegu bigarren aldikotz, kasik Arnegiraino. Bizkitartean, lurra ez baita larrutua nihun, belharrak estaltzen baitu eremu guzian, gaineraino helducheak ere baikitazke, gerendari beha egoiteak ez gitu orai hanbat lazten.

Begikoago zaiku halere eta laketago Izpegiko erreka ; Izpegi, Baigorri herriko ikusgarrietan orhoitgarriena. Han, erreka-karen mazelak larre idor izana gatik eskuin ala ezker, arkaitz-mokor batzuek tokika gochoki beltzuritzen dituzte. Aithortzeko dugu, bertzalde, sei kilometra baizik ez dela luze Izpegiko patarra...



Iragaiten dugu azkenekotz *Ibañeta*-ko lepoa, — hainbertze mende huntan hainbertze miliun gizon, hanitzak armadetako soldado, bere arteka chabalari esker bidatu dituen lepoa.

Napoleon Handiaren soldado aipatuak, zonbat etzen zue-tarik eskualde hotan galdu, 1811-ko itzuli deithoragarrian¹!

Zeren bilha zinabiltzaten ere hemen gaindi, zortzigarren mendearen ondartsurat, Charlemagnen gizonak, Roland gaizoa buruzagi ?

Egia othe da Charlemagne adostua zinutela lehentchago Moroekin ? adichkidantzaz emana zuela Moroer, Zaragozarekin, Aragoniako bazterra ? Moroak alderat koka zitezin Eskualerrian, Charlemagnek zuela urrarazia Iruñako hiria zaintzen zuen harresi gora ?

Egia balin bada, Eskualdunek bazuten zertaz izan hasarre, zuzenak Frantziako erregek ostikatu zaizkotenaz geroz ; ostikatu, Nabarreko hiri-nausia Moro higuinari idekitzerainokoan.

(1) Badira ezkerago bertze lepo batzu, gerlariak han-gaindi ere sartzen ohi baitziren Nabar-Goitin, *Eiherralarreko* mazelaz gora.

Napoleonek azken bide hau zuen hautatu, eta bere kanoientzat zabalarazi. Espainiarekilako hemen aipatu dugun gerla itsusi dohakabeen.

Ala, haratekoan nola hunatekoan, gure menditar gaizoen arthaldeer zineten gehienik oldartu ?...

Dena den, lepoaren bertze ichurkian, lepotik berehala, huna egun *Orreaga*, bere komentu samatuarekin. Zoin zahar orai, zoin huts eta hits, komentu hau bere etche-andana gaitzarekin ! Nork erranen luke bazirela noizbait, hortik atheraiak, bospasei mila fraidetaraino, erleak beren kofoirat bezala horrat biltzen zirenak noiztenka ?

Badakiguia ere Eskualdunek, komentu hortako fraide gaiztoek zituztela, hamabigarren mendetik hamaseigarreraino, laguntzen Frantziatik Santiago Compostellakorat (Galizian) mendiz-mendi eta oinez bide egiten zuten beilatiar fede-azkarrekoak ? Zaintzale hek ukan ez balituzte, zonbat gehiago frantses eta eskualdun zintzo etziren hilik geldituko, gure mendi-zoko guzietan gorderik zauden ohoinek buluzi ondoan garbiturik !

Baratzen gira. Agur bat zor dugu Roland zenaren lagun hoberenetarik zonbait ehortziak izan ziren tokiaren gainean erai-kerik dagon kapera komentukoari. Ttipia da, ilhunskoa. Ez dugu astirik sakristiak dauzkan elizkizunetako untzi eta jauntzi aberatsen ikusteko ; ikusi gabe utzi behar dugu halaber komentuko liburutegia, adituak girelakotz berdin ez dela gehiago han Nabarreko erregeek gainean zin egiten ohi zuten zilar-estalgia-rekilako liburu handia.

Bertzerik ikusi nahiak dira orobat hemen gure andre lagunak, guziz bat. Nun othe da, gainean jartzen zitzaizkon emaztekiak amageitzen zituen harri aipatua ? Abiatzen gira galdeka. Biz-pahiru orreagatarrek ihardesten daukute ez dakitela ; bertze batzuek, hitzik erantzun gabe, beren sorbalden goiti-beheititzeaz eta begien harritze larriaz, erakusten daukute beren ez-jakinarekin batean halako ahalge izi bat, guretzat berdin bitxia segur nola baita gure galde pikor tupustadakoa heientzat.

Argirik ezin ukanez, neraman otomilaren jabea sartzen da azkenekotz alhor batean, hemen orga bat etche-ongarriren husteradoan laborari zahar batek badakikela, nehork jakitekotz.

Sarde-gider puntaren gainean trebesatzen ditu gizonak bere besoak, besoen gainera burua ukurtzen, eta irriño batekin ezpainchokoetan :

— Ez da gehiago hemen harria. Duela bi urthe eremana du berekin Burgozeco artchapezpikuak. Arras mehatua zen...

Uste etzuten berri hau entzutearekin : joanen gira beraz Burgozerat, diote gure andre lagunek bichi-bichia, apur bat samur Orreagatik harri hura kendu izan delakoan.

Orai behintzat, ez lukete opor osorik nahi : « harria ereman hadute, utzi dukete arabez Orreagako mirakuluen bertze ithurburua : komentuko pentze batean sortzen den ur-hotcha ? »

Hasiz geroz, mirakuluz-mirakulu hegaldaka baitabil emazteen irudimena, eta hamekak joak izana gatik Loyolarat baikinuke egun berean chede, agertzen dut ene barneko khechua... Berriz otomobiletarat iganik, adio erraiten dugu behingotz. Orreagako herri ñimiñoari.



Erregebidearen bi bazterrak hesten dituzten zuhatz-lerroen hutsgunetarik, ordoki bat gaitza agertzen zaiku, eskuin ala ezker — guziz ezker — mendichka batzuek inguratzen dutena urrundarik.

Laster, zuhatzik ez dugu gehiago batere bide-bazterretan : oso-osoan huna orai ageri, bi aldetarik, *Auritze*-ko zelaia, dena kasik pentze eta larre.

Zortzi ehun metra goratasun badituzke munho hunek : ez ditake izan bazka-leku baizik. Eremuño batean ikusten dugu behi andanaño bat ; zaharoa eskuan, zain badagote, itzea bezain chut, unhaia. Aldude eta Urepeleko behi batzu behar bada, jabeek hunenbertzeko batean zombait ilhabetherendako harat asetzera igorriak.

Bitchi zaiku haatik nolaz bada ez den mendichketan oiha-rik : pinoak bederen ez othe lezake har ? Sugeiaz bertzalde, heze gehichago eman lezoke zelaiari, eta hunek belhar nasaiagoa abereentzat.

Alhagia murriz iduritu baitzaiku eta ez Frantziako aldean bezain musker, baditake hobendun ere den Nabar-Goitiko iguzki samina. Bainan jin giren tokietan baino zendako ditake hemen saminago iguzkia ? Berotzen badu gehiago Nabar-Goitin,

ez othe da Nabar-Goitiko lurra idorrigo delakotz, tinkiago, gogorrago Lapurdikoa baino ?

Gogoeta horiek chimichta bezala dabilzkitalarik pindar-ilhaunka buruan, Auritzeko etche-multzoaren erdi-erditik bageramatza emcki bideak. Herri ttipi pollit bat da Auritze, bere etche churi garbietako leiho margoztatuekin ; etcheek, apal izana gatik, teilatuko lau ichurkiak biziki gora dituzte eta chut, neguko elhur-erauntsi lodiek ez ditzaten leher. Ichurkiak erran dugun moldean izanez, elhurra edo lasterrago da urtzen edo lurrerat erortzen amilka, nahiz hegatz hertsia bat badaukan trebeserat teilatu-inguruak, — begiarentzat, nik uste, behereko hegi murrizaren leuntzeko.

Otomobil andanaño bat aurkitzen dugu karrikan : udako toki gochoa omen zaiote hau, Madrilko egoiliar batzuei. Tenore huntan haatik bero egiten izan behar du, hemen, nun-nahi bezain.

Herriatik atheratzean, ezkerrez agur bat igortzen dugu mendichkek gordetzen daukuten Ahezgo idorrari, eta berehala jausten gira bi lerdoin larrutuek hertsatzen duten erreka bati beheara. Han gaindi zabilan « scout-boy » batek erakutsia dauku oraitan.



Jainko maitea ! Ahezgoari bizkarrak itzulirik harroan baikinena, Auritze murrizta zela baikinion, erreka hau da, hau, zinez murrizta ! Ohantze harritsu itchuchi batean koskatuz, bidearen sahetsetik gurekin badoa beheiti lats mehe bat, neguko erauntsiek larritzen dutenean larderia handiko ditakena. Bidearen ezkerretarik, latsaren eskuinetarik lerdoinen mazelak bethi ta buluziago agertzen zaizkigu ; legar-zuri-mokor batzu lerratzen zaizkote kaskotik zolaraino ; arraildura batzuetarik ezagun da gei beretik egina dela lur-barnea ; han-hemenka, bizkitartean, ilharka motz batek jaunzten dio, bere lore ñimiño amuskoez apaintzen ere ba den gutien bat, azal kazkarra.

Bizpahiru ehun metraren buruko, zabaltzen hasten da izpi bat, guneka, erreka hertsia kakola. Huna, bi aldetarik, gari-landa ttipi batzu, berriki ebakiak. Kizkia bera urre-kolore dago ;

kizkien arteko belhar gaichtoak ere iguzkiak eta zola gogorretik airatu sapak horailduak dauzkate.

Lerdoin konkor biribilen orde, mendichka batzu ditugu orai eskuin ala ezker, zuhatz bat gabe, ttutturruan ala mazeletan arkaitz zurpail izigarri batzuek khabarroak. Ez behirik, ez ardirik ez dugu ikusten. -Eremu hits, agorrak!... Ichil-ichila bagoazi gure beribiletan patar eztiari beheiti. Zeru urdinetik, jostatuz, iguzkiaren inarrek kizkietako urrea eta mendietako legar zuria argitzen dituzte eta orozbat berotuaren-berotuz kichkailtzen.

Bizpahiru kilometretarik, bide-bazterrari hurbil aurkitzen ditugu hiruzpalau herrichka. Etche gehienak elgarren ondoan dituzte, direnak eliza ttipi baten inguruan kurubilkatuak. Bazterrari doazkon laborari-etchek : leiho tchar batzuekin, batere emokatzekoak ez thindatzekoak, harri lantu gotorrez eginak bizkitartean, bainan haize, curiek, erhautsarekin batean mendezmende nabar-likistuak.

Erreka zabaltzen da apur bat. Bidearen eta ibaiñoaren sahetsetarik gari-alhorrak erakusten dauzku bethi urre-kolore ; azauak oraino gainean dituzte, etcherat eremaitekoak. Ebakitzeko lana bururatua da orotan. Epailerik nihun ez ikusirikan ere, gogoak emaiten dauku igitaiatz eginan izan dela lana, ez segaz, are gutiago mekanikaz.

Etche zombaitetan ekarriak dituzte bizkitartean azauak larrainerat. Badugu uste « larraina » deitzen duten, hemen ere, etchetik hurran lurra joz eginikako ordoki niniño biribila. Ezpartzutik askatu-ta, haren gainean ari dituzte hedatzen azauak. Abere pare batek edo biek, buztarturik, beren harat-hunat ibiliaz zangopean bihitzen dituzte gero.

Iguzkia samin izana gatik, gizonak poneta dakarte buran ; begitartea zimail dute, eta gantza arin. Ogi-joiteko mekanikak ezagutuarren, moda chaharrari badarraizkio zuhurki, gizagaizoak : zombatez chahubideak ez dituzte horrela gutiago ! Aroa lagun, etchekoz-etcheko egiten den lana da merkeenik, ahantzichea balin badugu ere Lapurdi eta Benabarreko aldean.



Sigisaga erreka latz, bere moldean osoki begiko hura oren-

erdotsu batez iraganik, sartzen gira *Agoitze*-ko herri tarro bezain hutsa ohatzen duen chilokan. Gaude ez othe direnetz *Agoitze* eta *Luzaide*, bat mugaz hunainditik, bertzea harainditik, biak goratasun berean.

Bazterra, hemen ere, berdin buluzi.

Merkaturik ez balu, Iruñatik ez balitzaizko iragaiten egun guzicz beribilak, — Zaraitzu eta *Erronkari*, *Ziberoako* alderdirat goititzen diren bi eskualdun erreketako herrietarat, — *Agoitze* ez litake berez-bere gauza handirik. Bere bizitegi larrien gatik, hutsa iduritu zaiku hango karrika makur, luze, kakola.

Orai artio eguerdi-alderat baikinoazin, bihurtzen gira batbatean mendealerat buruz. Eta zombait ehun metraren buruko, zer ikuskizun zoragarria ! Zelai bat gaitza, begi-ukaldia hel ahal baino luzeago, bi kilometra bederen zabal, erregebidea erdiz-erdi, eremu guzia urre-kolore.

Alhor gutitan datza azauak ; garia sartuthea da eta jadanik ehoa, bihia geroztik selauruetan idortzen ari.

Arimarik ez da ageri nihun. Nihun ez dezakegu berech baratze bat, ez zuhatz bat, bide-bazterreko bakar batzu baizik.

Han-hemenka herrichka bildu batzu, harri gotorrez eginak oro, bainan apaindurarik gabe ; nork daki noizko iguzkiek apur bat horailduak, harri hek ere !

Zelaiaren bi aldetarik, erregebidetik urrunsko, aipatu herriak zolan, mendichkak dira guziz ikusgarri : mailka zaizkote gari-alhorrak igaiten mazelari gora, gailurreraino batzuei.

Bihotza jauzten zait, malda heier so nagolarik, urgoiaren ondotik ilhundura batek hausten dautala bizkitartean laster : zuen bizi chumearen atheratzeko, zer lanak ez dituzue hemen erabili, zer nekeak ez jasan eta zombat mendez ez, ontasunarekin batean odola utzi daukuzuen arbaso maiteak !

Orai niz garbiki ohartzen zer hazta daukan, eskualde hotako hizkuntzak dakarran « garesti » hitz sarkorrak...

III

NABARREKO HIRI-NAUSIAN

Beribilak firrindan badoazkigu, 70 kilometra irets bailitzaz-kete oreneko.

Iruña! Iruña!... Lehengo errege Nabarrekoen hiria huna nun dugun berehala begien aitzinean, munho ttipi bateko ordoki-gainean jarria, iduri alde orotarar so : baituke ere zeri egon beha, munhoa zelaiaren erditik eraikitzen delakotz, eta zelaia bera oichtiko mendi urrunek dutelakotz eguerdi ala ipar aldetik hesten.

Aspaldiko orde, zelai huntan hala-nola hirian ikusten dugu zuhartz-andana pollita, atsinartzen baitute gure begiek.

Sartzen gira Iruñan patar ezti bati goiti, kazerna berriak diren hegitik. Barnachago bagoazi, datchikola, etche-andana handi baten artetik, berriki eginak hok ere.

Adituak ginen jadanik Iruña urthetik urthera aitzinatuz zola, ederrago, garbiago, argiago ere ba, urrundarik ekarri ur eta elektrikari esker. Ez dezakegu uka badela aurrerapen asko, bainan ez baita arabez merkatu ez besta eguna, nehor guti da ezagun karrketan ; erdia lo bizi dela Iruña erraitera ginoazke, ez bagine orhoit San Ferminetako jaiek urthe guziez, aste bat dirauno, burburbur pizten duten alaitasun erhoaz.

Beribileko ene lagunak behatzen du chichte buru-gaineko saretik dilindan ezarria duen sakelorenari : hamabiak eta hogoi ! Ez othe da berantegi, hiriko edergailuen ikusteko ?

Sartzen gira etche gora batzuek lau aldetarik hesten duten Plaza Castillo aipatuan. Inguru guzian etcheek egiten dute arku-azpi ; harrizko itzalpe gochoagorik ez dakigu badenez nihungo hirietan, nahiz ez den ageri hemen saltegi eder bat bakarra. Bi « kafe » handi ba haatik zoko batean, zumezko jar-alkiek hartzen daietenak parreko arku-azpi guzia.

Bihurtzen gira erne kathedraleko alderat, eta hemen baratzen.

Heltzearekin, hamar bat haur itchura-gaichtoko lotzen zaizkigu oihuka eta aztaparka beribiler. Ukondoez leihoetan ber-

matuz, lepoa luzatzen dute barnerat, zer guzier behaka ; sudurraz hunkitzen gituzte kasik.

Iri egiten diotet gozoki, orhoiturik gaztean hek bezalako batzuek zoin jakinki eta gogotik zautaten erakutsi, behin bat edo biez, hiria.

Beribilaren aldean chut, huna haatik hamasei urthetako muthiko egin bat, beldurtzen nauena : zamar urdina soinean, galtzak histucheak, espartin zabal batzuetan oinak biluz, larrua horail lodi du eta behakoa beltz, dirdira leunekoa, beribil-barnerat ikherkan derabilana begiak guti igituz. Soa gu-ganat itzuli ere gabe segurtatzen gitu, mintzo ezti batekin, beribila nahiko dugun bezain luzaz zainduko daukula harek.

Jausten gira, besoetz baztertuz cheheria ausarta. Muthiko tcharrak aiher baitzitzaizkon azkarki, gibelesko beribilaren jabea ohartzen niz ari dela bereari athe guzien hesten gako.



Kathedrale-sahetseko mailer gora bagoazi, Baionan egiten ohi dugun bezala.

Omen handiko eliza da hau. Jakintsuek diote, Carlos hiru-garrena eta haren emazte Leonor Castillakoa zirelarik Nabarreko buruzagi, hamalagarren mendearen ondarrerat zutela Eskualdunek eraiki, ordukotz Parisen asmatua izana zen ara berrian. Huna nola :

Bazter-harresiak guneka beheretik gaineraino gogorki lodi ; — harri lantuz eginikako estalgi arkatu chutaren jasaile, harresi hek ; — harresi hek berak teilatuaren jasaiteko, teilatu bat behar baitzen alabainan harrizko estalgiaren euntik beiratzekotz ; — hegatz-alde, beraz, teilatuko gapinoak bazter-harresietako gain-hegietan pausatuak ; — leihoak gora bezain zabal, tenteño batzuek petik goiti zatituak, eta gain-alderat ahoa chorrotch.

Ordutik haste, ara hortara zituzten egin elizak, aitzineko mendetan baino hanitzez luzeago eta zabalago egin beharrez, doi argirekin orozbat.

Biziki zabal nahi zutelarik leihorra, barnetik zango azkar batzuen gainean eraikitzen zituzten bertzalde, soailuraino, bi

harresi lodi, — erran dugun harrizko estalgi dorpea etzadin eror, eta harekin batean teilatua. Hiru barne-zerranga bazauzkan geroztik elizak, erdikoa gorenik, eta hiru soailu.

Soailu bakochean, begiaren gozagarriztat, azkarrago izan zadin ere estalgia, harri lantu batzu lerroan ezartzen zituzten, zorro biribil konkor bederarekin gain-beheiti. Lerro bakocheak iduri zuen, ordu beretik, gapirio arkatu bat. Harrizko gako azkar batzuetarat heltzen ziren gaineko muthurraz gapirio hek, soailua-
ren erdi-erdirat, batzu zeharka, bertzeak trebesean chuchen.

Horra zer moldetan egina izan zen, bertze asko bezala, Iruñako kathedralea.

Denik ere, bazter-harresiak hain lodi egin zaizkoten non harrizko arku arin batzu ez baitziotzaten ostikoan eratchiki kampotik, Baionakoari bezala. Hunen araberalat haatik, badauzka barnean hiru egoitegi luze, erdikoa gorenik, zabalarik ere ba, Baionakoarena baino zabalago.

Jakintsuek kausitzen diote bizkitartean akatz bat : aitzinaldea, bere ezmila-dorre lau hegickilako apalskoekin bazterretan, eta, erdian, sarguiako bere atherbeñoarekin, — hau harrizko zango batzuen gainean chut, — hanitzez berantago egina izan omen du aitzinalde hura, dena ere ez garaitikoari eman zen molde beretan. Garbiki erraiteko, badu eite kotsua theatre bate-narekin.

*
**

Sartu orduko, sakristaua han dugu edergailuen erakusle.

Ohartzen gira aldare-aitzina hetsia dela burdin-ziri gora batzuez, burdina ingudian jorik eginak. Bainen bichikeria hau duzu : kalonjeen jar-alkiek eta elizako kantoreak jendeen aitzin-aitzineko jar-tokiak hartzen dituzte, haletan non mezatiarrek ez baitezakete ikus aldarea !

Kantore eta apezen jar-alki, zurezko kaiola handi bat bezala dauzute egiten, gainetik eta aitzinetik idekia, elizaren trebeseko hideak aldare-aitzineko grillatik berechten duena.

Ikusgarriak dira haatik zureriari datchizkon esku-lanak. Damurik da eliza ilhunskoa : ezin ditazke cheheki ikus, ez dit-

zazkete ere begiek gai litazken bezala ikher aldarearen gibelesko erretaula handiaren zati margoztatuak.

Erran dugun kalonjeen jar-alkietako ozka-lanak ez gitu halere nehor harritzen. Ezagutzen ditugu guziek St-Bertrand-de-Comminges elizako eskulturak, Luchoneko ondoan, Frantzian ez nihun ez baita bertze hainbertzekorik, — hala nola harriaren gaineko eskulturentzat ez baitugu uste baden Chartres-ko katedraleari nausi izan ditakenik.

*
* *

Sakristauak bageramatza, orai, sartu ginen athearen parreko bertze athe batetik harat. Eta plazaño bat inguratzen dugu kalostropiz-kalostrozpi, zabalak hok eta osoki miresgarriak beren soailu arin chorrotchekin.

Iduri luke harat-hunat irakurtzen ibiltzeko, edo aire hartzeko bederen, eginak izan zirela. Ez bizkitartean. Ohartzen gira berehala harri handi, zabal baino luzeago batzuek zolatuak direla ; harri hotarik bakotchak badauzkala ere chichelaz askaturikako bi marka, noizbait burdinazko bi erhaztun gotor kokatzen baitzitzaizkioketen han, altcha-gidertzat.

Erakasten dauku sakristauak Iruña-alderdi batetako hilak zituztela lehengo mendetan harri heien azpian ehorzten. Ontsa orhoit baniz gaztean ikusiez, elizaren beraren erdiko egoitegia halaber zolatua bide da. Eliza bere kalostrozpiekin hilerrikako izana da beraz noizbait, elizkizunetakoz bertzalde.

Huna orai bertzerik. Kathedralea, sahetseko bere plaza kalostropiz inguratuarekin, San Agustinen ordenako fraide batzuek omen zuten zaintzen, eta arhatzen beren esku-lanaz. Sakristauak erakusten dauku fraideen egoitza : kalostrozpiari lotua, elizaren sahetsari datchiko halaber.

Huna, barnez-barne, fraideen jan-tokia, orai kaperatzat derabilatena katedraleko buruzagiek ; huna fraideen sukaldea bera. Hamar bat metra luze, bertze hainbertze zabal, gogorki gora, soailu arkatu chorrotcharen erdi-erditik khe-bide luze batekin goiti, soailuaren lau kantoinetarik zirritu batzuekin,... khea-
rentzat hok ere arabez !

Zolaren erdi-erdian, lehengo su-tokian, marbrezko mahain

bat, sahetsak nola hegiak antze handirekin lantuak, Carlos errege eta Leonor erregina zirenen hobia estaltzen duena ; mahainaren gainean luze-luzea etzanik senar emazteen marbrezko gizairudiak elgarren ondoan, batek ala bertzeak bere harrizko korona buruan.

Sukalde bat hilerritua errege eta erregina batentzat, ez bide da hanbat ikusten nihun holako sukalderik...

*
**

Sartu ginen athe ederretik bagoazi erdi-lasterka kaporat, ni lehen. Beribilak ikusten ditut nehor gabe inguruan, haurrek aserik utzi jostagailu batzuen pare. Erna! erna! daiet egiten mokorki ene lagunak : bazkariterat joanak ditugu gure oton zaintzale maitagarriñoak ; eskupeko sariaren beha ere ez dute nahi ukan gaichoek egon!

Abiatzen gira berriz burrumban eta berehala karrika bethean gelditzen, bi botoila arno onen erosteko, lauzpabortz ogirekin. Beribiletarat berriz! lehen bai lehen jaustekotan haatik gure ahamenaren jateko, ezen ahulduak gira guziak eta beranta ditake.

Aldeanbertze baderamagu bigarren aldikotz hiria, ohartzen girelarik chichteaz karrika eder, zuhatz eta loredun bati — Paseo de Valencia ez othe? — eta heltzen gira musika-joiteko atherbeño bat erdian daukan itzalpe baterat. Zer toki ona, elgarrekin gochoki bazkariteko! Bainan gazte-andana bat buruz-buru heldu baitzaiku, ez oro itchuraz gardatsak, eta eskelari soberaren beldurra baitaukute emaiten, bagoazi zalu munhoari behera, mendial-alderat. Eguerdi baino gehiago ez ditake orobat, oren zahar.

Bagoazi, bagoazi bidez-bide, bainan nihun itzalpe gochorik ez ezagun, han-hemenka zuhatz argal gazteño batzu baizik ez. Ogi-leku da hemen ere zelaia ; mendichka larrutu batzuek zaintzen dute ipar-aldeetik.

Huna, hogoi bat minutaren buruko, *Irurzuneko* herri bildu tarroa, Iruña-inguruko abere-merkatu handienetarik bat.

Tipust-tapastean, beribileko ene lagunak behatzen du goiti, saretik dilindan ikusiren duelakoan zertsu tenore den. Behakoa

goiti, eskua ondotik atzemanka, ikherka..., bainan gathearen muthurra baizik ez ageri beheiti! Ikher berriz eta berriz, bainan debaldetan. Ni ene chokoan, barneak ordukotz crakitzen daularik.

Etsiturik azkenean, erraiten daut eztiki, itchuraz odol-hotz :

— Muntra ebatsi dautate... Zilarra baitzen, ez urrea... Hiru ehun liberaren galtzea badut halere... Goazen aitzinat... Oichtiko muthiko tzar heien lana ditake...

Ahalgez urtua nago nere alkian. Itsu izan niz beribilaren ez gakarazteko ; haurra baino haurrago, ez ohartzeko lapur chikin batzuen lehia gaichtoari. Beribila bera ebatsirik ereman rezaguketen, okaztagarriek !

Zainhartago zangoa bere khechuarekin, lasterragotzen du oraino ene lagunak motorraren itzulika. Zonbait ehun metraren buruko, huna zorionez bidearen ezkerretarik haritz-oihan pollit bat, bere itzala erregebidearen erditsutaraino hedatzen duena.

Jausten gira, sartzen oihanean burdin-harien artetik ichtaklok ukurtuz, jatekoak guhaurekin baderamatzagula. Hemen bederen gure otoak begien aitzinean idukiko ditugu...

Ez niz sobera fida, haatik : erregebidearen bertze sahetsari luzatzen da laborari-etche handisko bat, batere emokatzekoa, eta leihoak idekiak.

IV

BAZKARIA

Hariztegi hunek garbia zuelarik iduri, ez dugu bizkitartean errechki aurkitzen toki chahu bat nun bazkariteko jar. Barnasko atzemaiten dugu azkenean behar-bezalakoa, bospasei haritzondoren artean, erdi-iguzki, erdi-itzal. Sorhopilan hedatzen daukute andretarik biek dafaila, mahaineko untzi eta tresneria guziarekin, bertze lagunak bizkarraz zutoier ahal bezain erosoan gaudelarik, elgarri buruz-buru.

Bainan zer jateko urintsu, hotz, usain gozo gabeko, muthiriak ! Pizteko orde, lotsa lezagukete zinez barnea, ez bagine oro gose amikatuak. Bego nausi etcheko chokoa, eltzetik bafadan athera salda beroarekin.

Urriki dugu Iruñan ez gelditurik, ostatu on batean. Zer bitchikeria bertzalde, halako hiri zahar orhoitzapenez hampatuari ikuska gehiago ez emanik ! Gai zitaken bada, nihun izaitekotz bat, bere jauregi, museo, udaletche, liburutegi eta eliza ederrez. Kathedraleak berak merezi zuken egon gindizkion astikichago beha ; etzaikularik nehorri iduritu Baionakoa bezain arin eta begikoa barnez, orhoituko gira gure bizian haren gorputz gaitzaz eta sahetsari datchizkon kalostrazpi miragarriez. Nun da ere, erraiteko, Strasbourg-ekoan izan-ezik, Baionako eliza-nausiak daukan erdiko egoitegia bezain lirainik ?

Norbaitek miresten du bertzalde ez dugula ikusi San Franses Javierekoaren sor-etchea. Egin ginuken gogotik, gure bidean izan balitz ; bainan, Iruñako bertzaldean da aurkitzen Javier, urrunsko, iuzpegi-alderat.

Nabar-Goitiko ogi ona lagun, baderamatzagu kilimiliklik cherriki hotz cheheak eta lotuak gira ja biperrekilako arrotzemoletari, noiz ere ohartzen baikira gure bi botoila Rioja hautak hustuak ditugula azken chortaraino. Berrogain bizkarra ! Emazteek berek zoin gogotik hurrupatzen duten arnoa oihanean !... Ordaintzat, batek eskaintzen dauku urez betherikako botoila bat, ezin-bertzean hartarik bederen dezagun edan : orok ezetz, burua inharrosiz urari beltzurika...

Hainbertzenarekin, laborari-etchearen aitzinean agertzen zaiku haur bat, bi begiez guri beha eta beha, bere zangoñoen gainean tente.

Etche hunek badauzkazke egoiliarrak, badukete arno chorta bat, ihintz bat sal lezagukete segur gogotik, dio berehala ene beribileko lagun sakelorenaz gabetuak, eta badoa eskuz-keinuka haurraren ganat.

Ikusten ditugu biak etchean sartzen, aita seme batzuen arteko trebarekin elgarrentzat.

*
*

Zonbait minuta iragaiten zaizkigu, aiduru. Ba, hobendun gira egiazki, — derasa oichtiko gure mintzolariak, bere solasari jarraikiz, — Iruñan luzazago ez egonik. Eskualerriko hiri guzien artean aipagarriena da Iruña.

Hamaseigarren mendearen hastapenean, Espainiako errege Ferdinand Katolikoa deitzen dutenak hartu zuen, bainan, nahi bazuen edo ez, nabartarrer utziz beren zuzenak. Geroztik hunat, Nabar-Goitiko hiri-nausi dago bethi Iruña. Espainiaren meneko izana gatik, berez-bere dabil asko zeretan; hango buruzagier daude gehienik, gaur den egunean ere, Nabar-Goiti probintzia zabalako eskualdunak, hein batean — ez dakigu noiz artio — lege zaharraren jabe, hala nola arbasoetarikako ekanduen bai eta mintzaiaren.

1521-ean, Jean d'Albret kondeak, Biarnoan, Amikuzen eta Garazin-barna Iruñarat jo zuen bere soldadoekin, hiriaren Espainiari kentzeko chedetan; bainan jin-bidetik itzultzea behartu zitzaion, ederki zafratua izanik.

Nabarreko erregeren alde gudukatu zen orduan Inazio Loyolakoa. Saki bat itsusia egin baitzioten belhaun batean biarnesek, zalditik alditchar erori zen aitzindari gaztea, eta ereman zuten ordu berean Gipuzkoako bere jauregirat.

Loyolaren ikusterat gu abiatuak egun, ez denez bada deithoragarri, ez baitugu hartu-ahal oren-erdi bat, San Inazioren orhoitzapenetan Iruñan eraikia izan den eliza handirat joiteko, ikustaldiz !...

Duela mende baten ingurua, Iruñak gogor egin zion halaber

Napoleon Handiari, hunek itsumenduz ezarri zuelarik Espainiako erregetzat bere aneia Joseph ; bainan, cho ! ez ditzagun hemen lehengo zauriak berri...

Irria heldu zaiku berdin orori ezpainetarat, ikusiz gure arnoketaria emeki gutaratzen, botoila beltz bat eskuan. Orozbat ohartzen gira badirela orai, laborari-etchearen aitzinean, ez bat bainan hiru haur, elgarri ukondo-ukondo, lerroan guri so dau-denak begiak ernerik.

Ordu oneko jina dugu arnoa, oilasko-errekia zintzurtean kokatzen zitzaikun. Badut uste haatik, derraiku karkailaz ekar-zaleak, chakolin-pinta bakar hau aski ukanen dugun aldi huntan... Erhiaren lodi hartzen dugu bakotchak geure basorat, usaintzen, jastatzen, ahurraren barnean berotuz untzia. Hauta kausitzen dugu guziek. Badu, ba, Axularrek erran zukena, zahagi-zapore kotsua, halako jan-edan bethe bat ere ba ; berriskoa dirudi ; irestearekin, sudur-barnetarat gibel-aitzin lanhotzen da pindarka ; bainan zer berotasun gozoa ez deramauku laster urdailerat, hainbertze urinki hotzer gain-behera su eman nahi baliote bezala !

Itzal handiko arnoa da zinez chakolin hau ; hurrupañoka dugu edaten, beldurrez... Oilaskoen ondotik mayonesa ruso titar-ratu guri leun bat chirrichtatzen dauku eta akulatzen zalu patar-rari behera ; berdin laguntzen derauku bidean, mahats melatuz jorikako pudding tinki bat. Zorionezko chakolina !

Hiru haurrak hurbilduak ditugu hariztegiaren hegiraino ; burdin-harien artetik beha dagozkigu, sugu batzuen pare.



Gasna. Tuachak. Madariak. Chakolinetik azken hurrupa.

Etchearen leiho batetik ukurtzen da, erregebideari harat-hunat so, emazte adinetako bat. Ez iduria gatik, ohartu zaikegu. Haurren ondotik othe zabilan, bertzerik deus gogoan gabe ?...

Hemen bederen, español olio higuingarriaren usainak ez gITU nardatu, dio niri buruz itzulirik gure zerbitzarietarik batek.

Egiaren aithortzeko, zor naizkon eskerren bihurtzea ahan-tzia zitzaitan. Gai zenez da guzia haatik, hainbertze jateko eta halakoak guri emanik. Han ginen bi medikuek lauda ginezakena

zinez, baginakielarik bidean dabilanak guti duela behar jan — ogi eta gasna baizik ez, ahalaz, zaharren eta jakintsu zonbaiten arabera — eta edan are gutiago : chahakorik ez derabilanean, ithurriko uretik bakarrik noizean behin zintzurra bustiz.

Olio-urrin bortitz hura baino jasangaitzagorik bazen, lehen-go urthetan bederen, Nabarreko eta bertze probintzietako ostatueta, diot ihardesten noizbait zerbitzariari.

Espainiako olio berez-bere ona da, hoberenetarik ; urri-nari gizonki edozoin jarria zaioke zortzi egunik barne. Bertzerik da garbitasun-eskasa : huntaz etzuten den-gutieneko acholarik hemen-gaindi, lehen. Mahain-gainak okaztagarriak zituzten, jatekoak hautak zituztelarik eta goaindigarriki nasaiak. Ez niz, bertzeak bertze, orhoit janik nihun eskualde hotan bezalako saltsa onik. Ikasi duketela garbitasuna geroztik hunat, ez dut bizkitartean dudarik. Lurraren ipar-aldeko atzerritar hanitz baitzabilkion ikuskari, diot ahoan bilorik gabe Lapurdi aitzinatuago izan dela bethi garbitasunean.

Gamberak, aldiz, arras garbiak aurkitzen nintuen probintzietako ostatueta. Bakarrik, oheko zomiera zen, lauetarik hiruetan, erditik gain-behera kraskatu, hautsi, lehertua : erreka hertsi batean luzaturik zineraman gaua. Gaztelarren gain zoan bethi zomieraren askatze itsusi hura. Egia erran, aditurik nago ez dela, European, nihun ikusi gaztelarren sorjese korik oheen chehatzeko, bainan ez dakit egia denez. Ostatu hetan, atheratzen ere zaizkizun ba ardurasko, ohe-zur arteketarik, zimitz batzu guriki haziak. Zer harritzekoa ordean ? Ez duguia Biarritzen berean ikusten, oraiko egunean ere, horrenbertze ? !

Ene otomobil-lagunak keinu eginik irriño batekin, hiru haurrak jinak ditugu aitzinerat urrats n̄imiñoka, erabearekin begiak larrituak, sorbaldez eta buruz zehar-airean. Norat zoazkioken, etchetik atheratzen da oichtiko emazte adinetakoa, eta guri so gelditzen.

Bihotz oneko bezain sudur chorrotcheko baita ene laguna, solas emaiten daie *erdaraz*, ondorat bilduak dituen bi nechker eta muthikoñoari. Jakiten ditugu izenak, adina, aitamak zer ari zaizkoten. Soin chumeko haur batzu dira, chuhurki haziak itchuraz, bainan chailak beren ginartza mehean.

Pastiza-cherra bat eskaintzen daiegu bederari. Eskuan idukitzen dute, hunki gabe. Zendako bada ? *Para la mamá*, daukute ihardesten hiruek, kasik batean.

Ohartuko zirete ardura, jende cheheen umeek sendimendu maiteagoak erakusten handienenek baino, dio bihotz-bethez gutarik batek. Atheraldi gotorra ! Irriño bat jauzarazten dauku bertze bazkaltiarrei.

Eskuaraz deitzen du orai gure lagunak haurren amacho. Jiten zaiku emeki, urrats luzean haatik, soin-gaina den-gutien bat aitzineratua. Hiruetan hogoi ta hamabortz bat urthe eman zaioken atcho gurbil bat, zurpailduchea, zimurtua apur bat, ttipoi batez gerruntzetik goiti jauntzia, taulier-kantail bat petik-gora zeiharrean gerrirat bildua, zangar-behereak zaia chaharraren azpitik larru-has, espartin ihetche batzuetan oinak zabal. Motho adardun histu batek gordetzen dio buru-gibela. Bere begi beltz ttipietako dirdira iduri luke zorroztua diotela urtheek.

*
*
*

Eskuaraz gogotik, lorietan, dauku erantzuten emazte chaharrak ; solas guti haatik : ihardesteko baizik ez. Asko chehetasunen artetik, hau badatchikogu gogoan : ez girela lehen-bizikoak, oihan hartan ikusten gituenak ; udan noiz-nahi baratzen direla han donostiar familiak, gu bezala lurtean bazkariteko.

Bertze zer hau ere ba : garia bihitzen dutela larrainean, bi behi uztartu espalen gainean lasterka erabiliaz ; haratchago badela ba — erhiaz erakusten dauku — herri bat, orok elgarrekin partzuer jarririk, gari-joiteko mekanika eresia badaukana ; mekanikaz joiten dutela ba hian garia, ba, ba, bainan... Sineste ttipia du atchoak, hobeki heltzen direla herri hartako laborariak, beren moda berriarekin.

Biziki garbiki, ederki kasik, mintzo zaiku eskuaraz emazte gaichoa ; ez du arras Gipuzkoako mintzaia, ez Baigorri-aldekoa, ez Lapurdikoa ; halere, ezin chuchenago heltzen daukute adimenerat mihiak, ezpaineak, jabearen gogo-erabakia.

Haurrak, jan zazue bada pastiza hori, huna oraino gainera

tuacha eta madari batzu, diozte ene aldekoak, eskuaraz, bi nechka maitagarriak eta muttiko pollitari, udareak eskainiz.

Bat ez da hiruetarik kantitzen : eskuetan dauzkate tinki madari, tuacha eta pastiza. Gu harrituak, haurño heien begiratuaz. Orduan amachok :

— Erdaraz mintza zaizkiote. Ez dakite eskuara.

— Eskuara ez dakitela ! Nolaz bada hori ? Zuk bada-kizu ontsa bizkitartean !

— Nik, ba.

— Ama da, orduan, ez dakikena ?

— Ama ene alaba dute. Badaki ba eskuara ene alabak.

— Aita beraz, ez dakikena batere ?

— Aitak ere badaki ba, haratchagoko herri batetakoa da-ta, Iruñ'alde.

— Eta hurrek ez dakitela eskuararik batere ! ?

Burua inharrosiz, amachok adiarazten dauku ezetz, ez dakitela hurrek eskuara-hitzik. Achola handirik baduela ez du haatik iduri, ez da khechu, etzaizko den-gutienik gorritzen mathelak. Ichildua orai, behakoa chimichtan derabila gure dafailako ondarretan gaindi.

Comed. diote azkenean erraiten bere haurchoer, eta hok ausikiño bat doidoi pudding-cherrari, garaitikoa oso beiratzen dutelarik *para la mamá.*

Bagaude behin gure aldetik, ez jakin zer asma, zer erran ez jakin.

Nunbaitik solasari berriz lotzeko, galdegiten diogu atchoari etchetiar direnez, ala etchezain, ala etchearen jabe.

Etchetiar, dio, eta etchaldeaz guk elhe.

Aditzen dugu badela lan hanitz, jiteak chuhur direla, bizia garesti, arrandak handi, zonbat abere-buru duten, zer uzta biltzen urthea.

Aditu bezala ditugu hartzen emaztearen erranak, begiz ez baititzazkegu egizta. Iduri luke bizkitartean alderdi huntako

etchetiarrak gogorkichago bizi direla, nausiarekilakoaz bezenbategan, Hazparne-aldeko dazkigun batzu baino. Baditake haatik etchetiarrak hemen-bezain guriki ez diren nihun, erran nahi dugu etchetiarrak Hazparneko eskualdean.

Abiatzen gira dafailako pusken biltzen. Amachok bere taulier beheituaz altzo, nechkek beren jaka laburrez ohantze, muthikoñoak bere besoez ustei. Baderamatzate hiruen artean direnak oro, hiru botoila hustuak ahantzi gabe, esker-mila eta agur bietan erdaraz erranik, ezpainetan irriño bederarekin, begiak idurikatzen zuten afaritekoñoari landatuak.

V

BAZKAL-ONDO

Ezin-egon batek hartuak gITU guziak. Jar-tokiz aldatzen gira, etzaten, jaikitzen, etzaten berriz, burua pisu, zangoak malet, gogoa totolotua. Beroarena othe den — samin baita beroa itzalpean ere — ala Rioja eta chakolina othe zaizkigun beren oldar gaitzean nausitu ? Loeria bat, ororen gainera, betespalak erdi-hestera deramazkuna...

Eian hortik ichtorioño bat, daut eskatzen irriz « Oihanarteko » andereak ; iduri zait beharra baginukela, sekula ukaitekotz...

Ikustateño hori, segur zor diotala ene aminarre on maiteari. Bainan ez bainiz hain fleitean nihau ere ! Ez dakit nola, hurritu baitzait ene buru-muñetako jogia !...

Doala bada helduan-heldu ene ichtorioñoa, diot mihi-zabal ihardesten, eta hauche badarit nolazpait :

Eskualde hotakoak bide ziren Garro'tar hiru aneak, hamalagarren mendearen erditsurat, 1336-an, bizitzera jin zirenak Gereziatarat, Lapurdin. Ontsa jakin-nahia egon izan niz bethi, zoin herritakoak zitazken sortzez, Nabar-Goitin, gizon hek. Nehork ordean ez nu argitu-ahal nihoiz. Bertze aldi batez Iruñako liburutegien ikhertzea behartuko zait nihauri.

Anartean, aditurik dakitana erranen dauzuet : gerlari batzu zirela hiruak Nabarreko erregeren meneko, jende chumeetarik ororen arabera, bainan emeki-emeki aitzindarigorat helduak.

Ase bide ziren azkenekotz menpeko ibiltzeaz, Gereziatiko zelai gichena hautatu zutenaz geroz egoitzatzat..

Biga ezkondu omen ziren, hirugarrenak donado hiltzearekin apur bat aberats uzten zituela bertze biak. Hok aitatik semera, umez ume, aldaskatu ziren Lapurdiko bazter hoberenatarat, Landesetaraino hedatuz.

Gereziatiko etcheñoa gaztelu egina zen mende baten buruko. Zonbat jende handi athera den handik, Baionako eskualdun museoak balakike ; hanitz, diotenaz.

Eihartu zen bizkitartean azkenekotz familiako arbola, eta

hil : gain-gaineko abarraren puntaren puntatik, « oro emaiten eta oro bere ganat eremaiten dituen lurrak » zeramala hura ere, zen erori, lauetan hogoi ta bederatzi urthietan, ondorionik gabe, Garro'tarren endako azken umea, — *baron* Armand d'Urtubie de Garro, nik ezagutu dutan Garro'tar bakarra.

Ez dut behinere ikusi haren soin-izari oneko gizonik. Zer urrats bizia, bertzalde ! Eta zer buru-jasotze ederra !

Odol handikoa zen, pindarra zarion. Ez dakit haatik noren ganik zituen, edo nundik, begi urdin garrez-betherikako zuhail hek ; etzuten Nabarrekoak iduri kolorez. Zintzurretik mintzo zen, idorki. Manua manu zen haren ahotik. Jauntziz ere ez da halako jaunik agertu Gerezieta, ez eta hanbat bertze nihun. Eskuara maite zuen eta mintzatzen garbiki.

Beraz, egun batez, muthiko gazteskoa nintzelarik oraino, jauregirat joan behartu nintzaion. Aurkitu nuen jan-tokiko sutondoan, zangoak surat, bere pipa beltch fina astirekin murtchatuz ahoratzen zuela khe. Jar-arazi ninduen chiminia-chokoan, eta maltzur-maltzurra :

— Bazkari hitsa egin diat egun, puttil !... Ah ! etzuiian, ez, eskualdun bazkaria... Ez hurbilik ere... Badakika gero hik zer den eskualdun bazkaria ?

Ichil-ichila nindagon erabez, begiak larri, bi beharriak zabal. Ezetz erran nion, ahapetik, kasik izitua. Sinesten ahal nuzu : ez nuen oraino jan, adin hartan, egun oihan huntan egin dugun bazkaria bezalakorik. Harek, aitzina :

— Bazterra frango badiat kurriturik, ikusirik ere ba mahain ederra frango. Bainan bego bethi nausi eskualdun bazkaria. Eskualdunek bakarrik zakie jaki ona zer den, zer eta nolako jakiek duten egiten apairu ona.

Geroago harrituago nuen entzuten Garro'jauna, herriko auza-peza ere baitzen.

— Adizak ontsa, puttil, eta ez ahantz. Lehenbizikorik, harzik hirekin hiru lagun onak, ahalaz adin, jite eta gustu beretakoak. Etche-barneaz ez acholarik ukan, garbia den ber ; mahainak dik izan behar, mahainak guziz, garbia : dafaila churiaren gainean, ahorat pochien eremaiteko zerak ez bakarrik chilar-

rak, bainan zilarrezkoak. Emazterik ez mahainean ! Zerbitzaritzat haatik neskato gazte gurbil, eder, mathela gorriño bat etzaitak niri hastio. Bahiza ?

Orai, segidan, oren bat barne : oilo-salda, ogi-achal gogorño batzuekin, — amarrain uretik athera-berriak olioan errerik, — erbia saltsan, — errekitzak bihian hazi oilaskoa, entselada lagun.

Ura heldu baitzitzaitan ahorat, galdegiten diot orduan gora-gora :

— Eta gero ?

Ez dut ahantziko bizi nizano zer behako garratzaz itzatu ninduen ene chokoari.

— Gero ?!!... Penarekin ikusten diat ehizala izanen, hi, sekula deustako ; aseko hiz behar bada noizean behin, jaki onaren jakituz jaten jakinen dukan ez diat uste.

Gero, to, ardi-gasna-cherraño bat, ahoaren garbitzeko, eta pastiza-chaffla mehe bat, ahamen bat edo bien doian. Kafe beroa ondotik, ez beltzegi ez azkarregia, kopa bat koñaka fin, eta zigarro ontto bat, pipa baino laketago zaionarentzat. Bertze oren bat jan-edan eta ondoko horiendako, artetan gozoki eginez irri, alegia zonbaiti esker.

Aitzinchago emana zaundan sista bihotzaren gainean bainuen, oldartu nintzaion aitoren seme hari :

— Arnoak ?

— Arno bat, bat bakarra, ahalaz Medokeko gorritik ; dena, neurriñoan.

Hortan, haatik, etzaundan arras egia erran. Handik zonbait urtheren buruan bazkariten gertatu bainintzan harekin Lekornekodakizun etche batean, eta eskaini baitzioten amarrainen ondotik Sauternes-ko arno churitik, ikusi nuen ahotik ezin utziz ttinttaka zeramala, harritzeko begirunearekin.

Supazter-chokoko azken solasa, hau izan zuen ene alderat jaun baroinak :

— Orhoit hadi, nik erranik : eskualdun bazkaria bezalakorik ez duk. Harek bakarrik dik egiten eta uzten gizona dena odol, dena ginari, dena zain.



Ez dakit amak ontsa hartzen zauzkitanez solas harrosko horiek oihanean, ez othe nuenez ere ohartu-gabea apur bat apaldu egun hartako bazkaria ; dena den, irriño batekin entzun ninduen bururaino.

Bertze lagunak ja aspaldiskoan loa ezin-garaituz zabilzan, burua koskatuz batzutan haritzen enborrari. Ez ninduten hek aditu ; aditu banindute ere, baditake lokartuko ziren berdin, ene kondera luzeak loa emanik, ematurik bere zilinaz chakolinaren beraren zihika gaichtoa.

Bat-batean ikusten dut ene otomobil-gidaria aharrosi handi batekin besoak goititzen, gero eskuez betespalak thorratzen, diolarik oihuz : Nun gira hemen ?... Zer tenore da ?... Beranta ditake engoitik !... goazin berehala norapait, kafe bero batez lanho dorpe hok ditzagun lehen-bai-lehen aizka.

Chutitzen gira, eta oihan hartan bethierekotz utzirik gure bihotzetik zerbait, berriz igaiten otomobiletarat.

Bide-bazterreko laborari-etchearen leihoetarat etzaiku agertzen nehor...

Bospasei minutaren buruko, herri bat ; hobeki erraiteko, erregebidearen bazterretik eskuin eta ezker etche-pollit-lerro bat lauzpabortz ehun metraren luzetasunean : *Lekunberri*.

Geldiarazten ditut otoak : bada hemen hôtek bat hanta, duela zombait urthe aloitu zituen hazpandar batzuek Lapurdirat ekarri zuten omenaren arabera. Lekunberrirat jiten da bertzalde gaztelar hanitz, indarren berritzera udan. Mahain bat bezain ordoki da zelaia ; gure begi-ukaldi laburra ez da ohartzen badutenetz orhoitgarri zerbait, ipar ala eguerdi-aldetik hesten duten mendichka lerroek. Iguzkiak erre nahi du, hanbatenez non ez baita zuhatz handirik ezagun, bide-bazterretakoez bertzalde. Zertako othe duten gaztelarrek hunarateko lerra hoinbertze, zoazi zu.

Hiruak eta erdia ditake.

Herrian sartu orduko, hôtek ikusia dugu eta begiztatua. Etche handi bat da, ezkerretarik, bertze guziak baino larriagoa.

Erregebiderat du athea. Zabal, gibelerat luzesko, bi estaiez gora da, harri pikatuz hegitu leiho nasai batzuek airez eta argiz bethetzen dutela ausarkian. Ipurdi-sahets bati badiote eratchikia, trebes, zati berri bat. Orotarat, berrogoi bat gambera, gure ustez. Begira badu eite zerbait Itxasun bide-bazterrean aurkitzen denarekin ; handiagoa da bizkitartean eta azkarkiago egina, Lekunberrikoa.

Badu jende. Barnez-barne bagoazi etche-sahetseko terrazarat, alderdi zahar eta berriaren juntak egiten baitu han iuzpegirat itzal, eta bertzalde begien aitzinean hedatzen baitzaiku pentze ñimiño bat, dena platanaz landatua, dena alki : aire hartzeko toki gochoenetarik, guziz tenore huntan. Hiritar andanaño bat badago ja itzal-azpitan, batzu irakurtzen, bertzeak esku-lan zerbaitetan erhiak borroka.



« Café de curé, sans chicorée », dugu jarri orduko manatzen.

Ozpine! zuken egin beihalako beskoiztarrak, gure kafea jastatzearekin. Beltza da ba kafea nahuzun bezain, kafea beroa da behar bezala, bainan kafe-liparrik ez du gure kafeak : dena chikorea da kafe hau !

Hobeak dira denik-ere ondokoak ; ez haatik mendiez bertzaldean ohi direnak bezain onak.

Etzaitela khecha, daut erraiten ene aldeko hurrupariak : kafezko kafea ez da arras toki gutitan baizik edaten Espainian ; gei guti sartzen bide zaiote itsasotik, zergak handiegi izanez edo...

Ez niz khechatzen bertzalde, khecha ez naiteke : iguzki-beroarena othe den, ala ene ichtorio luzearen akidurarena, ala ene lagunen oichtiko idurirat chakolinaren pottokak aurdikitzera neramanez, loak hartzera noa.

Badihardukot bizkitartean nolazpait, ez aise.

Oihan-aldeko etchetiar-etchean dabilkit, ilhun, gogoa : nola mirakulu hortzi dukete han gazteek amachoren mintzaia ? Ezin dezaket asma.

Emazte chahar haren beraren hobena izan behar dik, zait

azkenekotz gogoratzen. Erdarari emana zikeian aspalditik etchean bere mihia, eskuaraz ari bazian ere auzoekin... Badiagu holako, zorigaitzez, bazterretan. Lapurdin berean etchetiarsa gazte batzu hasiak ditiagu haurrari ohakoan frantsesez mintzatzen, estakurutzat emanez eskuara ez dela deustako ! « Ama » baino aditu nahiagoz « maman » !

Ibañetako lepotik hunaratekoan, ohartu niz bertzalde herri bakotchak baduela bere etchetarik bateko aitzin-paretan burdinazko-plaka churi bat : huntan beltzez thindaturik herriaren bi izenak, bat erdarazkoa, bertzea mendeen mendez herritarrek ahoan zerabilaten eskuarazkoa.

Nori ere gogoratu baitzaio eskuararen alderako atchikimendu-seinale hori, bigarren lerroan ezarria bada ere eskuarazko izena, eskerrak hari !

Bainan, laztu nu eskuararen eta erdararen arteko guduaren ikusteak, burdin-zatiño hartan.

Nabar-Goitin galtzen ari da eskuara.

Beiratuko dituztenez herrien beren eskuarazko izenak, nago.

Ikusi ditugun plakañoen gainean, baditake, bainan mihian eta bihotzetan ?...

Badute segur nun berma Iruñako eskualzaleek.

Moroak aizkatu zituzten nabartarrek. Ez ahal ditu balinba ithoko gaztelarren erdarak ?...

Hôteletik athera baino lehen, egiten ditugu bi solas etche-kanderearekin. Berekin ditu, sahetsean, alabak. Doniane-Lohitzuneko komentu batean egonak dira askitto luzaz. Hiruek, bai amak, bai alabek, mintzatzen dute eskuara. Hemen bederen bizi da orainokoan nabartar-odola.

Beribiletarat ! Ene ustez, Nabar-Goitiko mugarat helduak izanen gira laster, Gipuzkoako eremuetan sartzeko.

VI

GIPUZKOAKO SARGUIA

Mendealerat buruz goazi. Lekunberriko zelaia utzi orduko, horra nun sartzen giren arteka hertsu batean, halako izialdura batek hartzen baikituz guziak : ezker, erregebidearen sahetsetik, erreka tchar mehar barna bat, nasaiki urez bethea, eta hunen zaintzeko bezala bere luzetasun guzian, bichkar bat askituz chuta, gaineko hegi chorrotcha berrogoi ta hamar bat metraz gora, gure alderat daukan mazela belharrez jauntzia denik ere, zuhatz bakar batzuek ilhantzen dutena han-hemenka beren itzalaz ; eskuinetarik, lur-pareta chutsko bat, ezkerrekoa baino gorachago. Guneka haatik gogorki kazkarra, eskuineko hau ; harri-mokor zuri-zuri kantoinka hautsi bazu lerratzen zaizko gain-beheiti, gu iragaitean.

Goizetik hunat ez ginuen oraino ikusi holako arteka hertsirik. Erne dauzkagu begiak alde orotaratz : hainbertze gaztelar Lekunberriat jiten ohi denaz geroz udan, nunbait hemen izan behar dela zerbait, bertzetan ez denik... Errekako ur-laster hura bera mundik sortua ditaken, gaude, ez baiginintzaizkon den gutienik ohartuak Lekunberriin.

Eite hanitz badu erreka hunek Agoitzekoarekin, bainan eitziar gehiago, eite baino. Meharrago da, behinik behin. Bertzalde, Auritzen-beheiti Agoitzerat jausten ginelarik, eskuinetik ginuen erreka ; puska batez zabalago hangoa, dena harri konkor, agortua ere kasik. Han, bazterretako bi mendichka-lerroak larre murriz idor batzuz ziren luzetasun gehienguan, artetan arkaitz zurpail batzuekin ; hemen, bederen ezkerreko alderdiak gochatzen dauku begia.

Laster eskuinekoak ere iduri du bertze hainbertze nahi laukegula egin. Erakusten dauku, eremu puchka batean, egundaino ikusi ez ginuen bezalako chara bat : osto niniño gordin batzuekilako landareska pollit andana handi batek, elgarri tinki, beren abarrez elgar hunkitzen dutenak, elgarren neurrikoak oro, — metra bat baino gorachago, — dirdira berde leun bat hedatzen dute be-

ren gainez-gain, mendi-hegitik erregebideraino. Ezpelki zerbait? Ezin ezagutu dugu, ontsa jakin-nahian ginelarik. Chara edo oihan apal hura ez da segur bere-baitarikakoa ; legarren mandotzetik beiratzeko ereina izana da edo landatua han noizbait, zer ari zen ontsa zakien norbaitek.

* *

Bainan chafra musker haren aurkintzetik haratchago, mendi-pareta sekula baino buluziago zaiku agertzen. Euriak eta hormak emeki-emeki arrailduz, kraskatuz, harrotuz deramaten hari zun batez egina da dena. Han-hemenka bizkitartean lur-azal mehe berde batek estaltzen du, larruarekilako haragi zirtzikatu batek bezala hil baten hezurak ; halaber, nahiz bakanago oraino, arbola tchar batzu beren erroetako zain guzietz lotuak dagozkio, doidoia chutik, makurtuak, bihurtuak, etsituak kasik beren bizitze chuhurraz. Errekaz bertzaldeko paretak aldiz badakar bethi bere hastapeneko itchura ; zuhatz multzoño batzu ikusten ere daizkogu tokika, ez hanbatekoak haatik. Aroa eder denean, iguzkiak kiskailtzen duke erreka hunen alderdi bat, bertzea uspel dagolarik.

Bagoazi bethi, bainan ez chuchen-chuchena : mendealerat buruz geramatzalarik bideak, — eskuin, ezker, andarkatzen gitzute noiz-nahi bihurtuak. Ustet zerbait berri ikusiko dugun, bethi bi aldetarik ager berak ; erreka bethi berdin hertsu, bere bi pareta chutekin. Lotsa batek hartzen gitu, Loyolarat goazinez ala bertze norapait... Ez, ez gabiltza makur : gure sahetsean, gutarik hurbil-hurbila, errekako ura gurekin batean badoa, suge luze bat bezala bihurtuak ichil eta ezti, ez dakigu nola loditurik bere ohantzea barnatuz, apur bat zabalduz ere ba bere auzkia.

Gehienik harritzen gituena, hauche : ez baitugu arima bizirik ikusten, ez jende ez abre, ez eta orga bat bidean utzia, ez otomobil bat ere.

Bero izana gatik, bada aire ; sapanik ez dugu hautemaiten.

Bospasei kilometra badituzkegu doidoi eginak, gure kafe-chirrichta hartuz geroz. Toki arrotzetan, holakoak direlarik guziz, luze doazi orenak.

Azkenekotz, huna erregebide-sahetsean, etche bat dena leiho, biziki luzea, nahiz askitto apala. Mapari behatzen diogu : *Betelu*. Hurbiltzearekin, etche-aitzineko paretan irakurtzen ditugu hitz hok, larri-larri thindatuak : *Baños de Betelu*. *Aguas sulfurosas de Betelu*, edo holako zer bait. Bainan ez eskuin, ez ezker, ez aitzinatu-ta haratchago ere, bertze etche bihirik ez !

Elgarri solas eman ez, gaude ez othe duen etche bakar harek egiten Beteluko herri guzia ; ez othe diren etche bakar haren beraren banean bizi Beteluarra oro, alkatea eta ertora berekin. Gure irriñoak !... Egiaren aithortzeko ,atsegin dugu guziz bizitegi bat bederen ediren baitugu, nahiz hainbertze leihoetan etzaikun agertu kristauik...

Adio, Nabar-Goiti ! Oraitan gira sartzen Gipuzkoako lurretan.

*
**

Zer mila sorgin ! Ez girea egun atherako arteka hertsia bezain lazarri huntarik ? Badiagu hobenik, Manech : hertsia gotzen zaiku-ta gure arteka, hertsia ren hertsiz irestera bezala geramatza artekak, bere bi paretan chuten artean. Eta nola murriztu den bat-batean ezkerrekoa bera ! Ama maitea, zer behar othe dugu ikusi ?...

Begizta-ahal urrun, Jainkoak daki noraino, agertzen zaizkigu mendi-kasko zorrotz batzu, zuri-zuria, lerro-lerro, harri-dirdira idor bat daritela.

Ez dugu toki hau ahantziko gure bizian. Laburzki, huna nolakoa den. Begien gozagarriztat ez duzu deus, bi aldetako mendichka larrutuak baizik : lur-mamirik ez da ezagun, ez belhar-ondo bat, ez zuhatz bat. Bidearen gainean ere, ez ginuen ikusi edozer, ez nehor. Eskuin ala ezker, beroak eta hotzak, haizeak eta euriteek mendez-mende emeki-emeki zizkatzen, zilutzen, irrikatzen, porroskatzen dituzten mendichka batzu baizik ez, deus.

Badira itchura guzietakoak, biribilik ez haatik bihi bat, bainan ba dena ozka, dena arrail, dena sarraski, dena zurruta agor, dena hegi diren harrizko mendoitz hits batzu. Dituzten ziloetan sartuz geroz, lurrerat lehen-bai-lehen ezin jaustiarekin euriak janez deramatza hurriki, eta, zerrenak zura egiten ohi duen bezala,

barnez-barne suntsituz. Tokiaren gainean ari dira endurtzen bai azalez bai mamiz, holakorik erran baditake harriaz mintzatuz.

Saheskatzen gituztenek 30, 40, 50 metraren goratasuna dakarte ; bazterchago dira goitiago aikatzen direnak, guziz eskuineko aldetik, — ostikoan datchizkitela, nahiz ahulki, Pyrénées mendi-lerro izigarriaren hunaindiko mail konkorrak.

Izialdurra badoakigu halere laster. Harrizko hilerri batean-barna geramatzate ba beribilek, *harrien hilerri* gogoetagarri batean ; bainan iguzkiak argitzen du, berotzen, arintzen ere ba hilerri gogorra, han-hemenka eztiki urreztatuz lurrerat irintzen ari diren peña zurpailak ; bainan gure buruen gainetik alaitzen dauku bihotza agorrileko zeru garbi urdinak.

*
**

Peña kazkar ustel hek elgarrekin josteta ere ari direla erran zinezake batzutan. Betelutik laster, ezker ala eskuin, berechten dira osoki bat berzetik, bizpahiru tokitan ; husguneari esker, bazterrak agertzen dauzkigu etche tchar apal batzu, teilatu chaharra baizik ez dutenak biziaren kolorekorik. Urruntchago, lerro bakotchean elgarri lotzen dira mendichkak ; ezkerreko bat aitzinatzen da, eskuin-aldean parrekoa hunki nahiz bezala, hau ere aitzinatzen zaiolarik edo... gibelatzen.

Batzuek badakarte orratza bezain zorrotzeko buru bat ; bertze batzuek moztua dute aspaldi-danik, lurrerat eroria. Hunek ehortzia ez dencan, porroskak oraino zolan badaude ageri.

Ura geroago lodiago sigisagaka baitoa bethi, bai eta hari-kontra erregebide zuriaren gaincan gure beribilak, iduri zaiku noiztenka gurekin batean igitzen direla pareta hil mutu hek, kakolatuz, bihurdukatuz eskuin eta ezker zirurika nakaitz batean, igitzen ere ba iguzki-argiaren jogiak, igitzen iguzkia bera. Zoragarri da eta bitchi, orozbat.

*
**

Gure begietako besta hunek badirau hemezortzi kilometraren luze. Gune batean bakarrik zaiku zabal ideki hilerriaren erreka,

— burdin-bideño bati zeharrean leku egitea gatik, — baina are tinkiagotzeko berehala.

Lapurta, benabarta, ziberotara aberatsak baitabilta hantza aldiz herritik urrun, begiak ikusgailu artotz zerbaitez ase nahiz, dathozila Izpegitik edo Ainhoan-barna Gipuzkoako sarguia huntarat egun eder batez : etzaie urrikituko. Gutarik bat ibilia baita Frantzian *gorges du Tarn* deitzen duten errekan gaindi, dio hau luzeagoa dela oraino hogoi bat kilometraz bederen, zabala-goa, harrigarriagoa bere sahetsetako arkaitz osoki murriz eta gainetako munho bipilekin, baina halarik ere ikusgarria gelditzen dela Lekunbernitik Tolosarako bidea, orhoitzapen gocho jostagarri bat uzten baitu hunek, ikusberriko iziaren ondotik.

Labur egon ondoan ordu bat osoa eta bere atzarrian bildu, huna nun bat-batean zabaltzen zaikun airos behakoa, bulharrak beren aldetik hampatzen zaizkularik nasaikiago : ohantzearen bazterrek elgarretarik urrunduz bide gehiago uzten diotelakoan edo lagun zombait ezkerretarik jin zaiolakotz guk uste gabean harekin batzera, gure erreka lats gottortua bilakatua dugu kasik tanpez ibai. Baiona-Santespiritako ibaiaren bortzetarik bat ur bederen baderama orai, halako andiantza nara batekin.

Ertegebiderat daudela huna eskuinetatik, banaka, etche pollit batzu, hiritarren etcheak segur ; ibaiaren bertze aldetik, luzera, zelai puchka bat : ezkerago, bizkar biribil konkora batzu, artetan artho-landa gori batzuekin.

Minutan *Tolosan* gira sartzen.

VII

CHINTCHIMARIAK

Zer harrizko-etche gorak hemen ere, eta zer zahar-itchura duten !... Gero, zer dute hau tolosarrek, iduri baitu atherbe luze bat ibaiaren gainean trebes, hegitik hegira airean jarria, bere sahets margoztatuaz guri dagona ? Zubia dukete segur, zurezko zubi estali bat...

Hain bitchia zaiku gure iduripena non, gauzen araberako denez argitzea gatik, egiten baitugu galde gizon bati, Loyolarateko bidea nundik den hunen ganik jakinen dugulakoan orozbat.

— Hori azoka da, baratzeko-gauzen merkatu-tokia, dauku ihardesten gizonak. Bihur zaitezte, zoazkiote alde-aldetik, eta ezkerretarik aurkituko baituzue harrizko arku bat, hunen azpitik egizue bide « Loyolaruntz ».

Bihurtzen gira beraz eguerdi-alderat, delako azokaren barnea agertzen zaikularik bere luzetasun guzian. Zilarra bezain garbia da. Hutsean ginen : etzen ez zuba, baizik merkatu-atherbe bat, gizonak zion bezala; ez dabilta ere otai gure otoak harrizko-zubi baten gainean.

Tolosarat heltzean, ukondo bat egiten duke ibaiak, eta ukondo hartan da jarria, ur-hegian, zurezko-atherbe bitchia ; etzitaken baserritarrentzat toki hobirik egun guzietako bizigailuen, euri eta iguzkitik beiran, hiritarter eskaintzeko. Porroskak urerat aurdikiz geroz aldi bakotch, errechki dagoke chahu Tolosako azoka. Bainan nolaz eta norat begien aitzinetik zaikun ibaia itzali, gaude gogoetatuak, haur bat bezala handitzen ikusia bai-kinuen, gero laguntzat hartua, eta azkenekotz kasik maitatua, Lekunberitik hunat.

Bare-karakoilaren urratsean goazi. Eskuinetarik hiruzpalau karrika laburren ahoak kurutzatzen ditugu : etche gorak, oro harri zahar hits horailez. Karrika hetarik batean, bada haatik etche-andanaño bat, balkoinak begien atsegingarritzat lorez apainduak dituztenak. Zola ez dute karrikek arras ordoki : den-gutien bat patar gu-ganat.

Gipuzkoako hiri-nausia zen hau lehen. Nimiñoa da bizki-

tartean, bere hamabortz eda hogoi mila bizizaleekin, Elizarik, ez udaletcherik, ez tribunalik, ez eskolarik, ez urraskako itzalperik, ez trinketik, ez aipatzeko gai litaken jauregirik ez dugu ikusten. Oro izan behar dira bizkitartean, bainan oro dudarik gabe chumeak, choko batzutan han-hemenka gordeak oro.

Donostia baita zonbait urthe huntan Gipuzkoako hiri-nausi, ez dukete Tolosako buruzagien egoitzek hango agintarienen larde-riazko harrokeria. Nago ez othe diren, halarik ere, hiri ttipiko eskualdun-umeak zintzoago gelditu, arbasoen odola garbi idukit-zetik jabeago beren buruaren, chedez zuzenago, zuhurrago beren urratsetan eta orozbat itzal handiagoko gipuzkoarrentzat. Zernahi izanik, hiriño huntaz mintzatzearekin frantsesek erraiten dute bethi : *la noble Tolosa*.

Geroago emekiago goazi; beribilen gidariek begia luze, har-
rizko arkua noiz agertuko zaioten.

Kask !... Firricht !... Baratzen gira, iziturik; bertzalde, bi urratsetan gure ezkerretarik ikusten dugu idurikatzen ginuen harrizko arkua.

Bainan otoaren aitzinaldea inguraturik, atheko leihorat hor agertzen zaiku muthiko luze mehats bat, buru-has, ile beltz azkar batzu kopetatik goiti zut aikatzen zaizkona.

— Ez duzue tuta jo. Bizikleta kaskatu dautazue eta hautsi. Damu-domaiak zor dauzkidazue.

Apur bat gibelatu ondoan, zelatik bi eskuez dilingo eta-kusten dauku bere pirripita : atzeko errota uspeldua du eta irrin-garriki kakola-makolatua, ingurunetik erdirat biltzen diren burddin-aihenak halaber.

— Damu-domaiak nik? dio ihardesten beltzuri batekin ene lagunak. Ez dut bada uste, muthil. Zuk ba, izaitekotz, niri. Bide huntan ibiltzeko zuzena balin badut, nola ezin emekiago bainindabilan nehor etzaiket errangura. Lasterregi bazinabilt-zan zu, itsu batek baino gehiago aitzinerat behatu gabe, ez dut nik hoben.

— Zuk, ba zuk, duzu hoben, zuk bakarrik. Jo bazinu tuta, adituko nuen nik.



Gataska luze batean sartzen dira bi gizonak, biak erdaraz, elhe gaichtorik gabe haatik bat ala bertzea, odol-hotzean, gizonki. Botearen araberrako errefera, erreferaren araberrako botea, hizkatzen dira ausarki ehun moldetarat, solas bera bethi haste. Tuta etzuen jo, ez, ene lagunak, bainan jo izan balu ere etzuden den gutienik adiaraziko, chimichta bezala heldu baitzitzaguken sahetsetik gazte goiarina, eskuineko karrikatik beheiti, gainerat.

Behari-saldo bat badagokigu berehala so, oteen bazterretik urruntchago; emazte gehiago gizon baino. hogoi ta hamar bat orotarat. Garbiki jauntziak dira, langileen jauntzian; halere Lapurdin eta Benabarren aspaldiskoan hiritar langilearen soinekoer ohartzen ez gitzaizkoten hits-aireño batekin. Nor ala zer guziei, aldizka eta zalu, luzatzen dituzte beren begi beltz dirdiratsuak. Diren guziek badute elgarrekin eie; sudur mehar luche, kokots lirain, kopeta neurrian bipil, baldoki-gainak chorro arineko, buruari garondoa leunki harpetua, ileak beltz bezain ugari, larrua beltchaan.

Mirakulua : nehork ez du idekitzen ahorik. Ichil-ichila daude, entzuten.

Errana baita bazter guzietan, gipuzkoarrak direla eskualdunen artean larrienak, bier-arteakoak dira bizkitartean hemen oro; oldartu zaikun muthikoa da gorenik, hertsiskoa bada ere egitatez bezala sorbaldez.

Multzoaren aitzinean dago tente, bere themazko elhasturi buztangabea, dirripita markistuaren jabe hori; gibelego errota bi eskuez airean dauka orai lurretik, minhartua balitz bezala errota dohakabea, edo, nork daki? erakutsiaren ariaz alde jarriko zaiolakoan norbait ozarrari.

Horiek hola, ene laguna hautemaiten dut ahultzen; ichilik egon ondoan minuta bat, galdegiten dio aurkerasle zailari zonbat nahi duen azken hitz.

— Ehun libera, dio zart erantzuten.

— Ehun libera!?... Baduzu horrenbertzeren eskatzeko

bekokia, duzun makurrarentzat!?... Ori, eskaintzen dauzkizut berrogoi ta hamar, bakearen gatik.

— Ez. Behar ditut ehun.

Eta gataska berriz haste, aldi huntan bizichago.

Sinets gitzala irakurleak : gaur Loyolarat heltzea etsitua dugu bertze bidezkarri guziek. Ostatu bat nun dukegun hurbilsko, behaka abiatuak gira alkietarik.

*
**

Hor, bristi-brasta heldu zaiku nunbaitik hirizain bat gaitza. Orai gira orai pollitak! Tolosako jujeak nun diren, eta nun behar-bada presondegia, jakinen dugun orai berandu gabe, ni beldur.

Hemen bigarren mirakulu bat : hirizaina chut-chuta dago, ahorik ideki gabe hura ere, entzuten. Hirizaingoaren eta jendetasunaren ikasteko hunat jitea on lukete Pariseko hirizain hogoi ta bortzek...

So nagolarik Tolosakoari, laztura batek hartzen nu behin, gero begirune haundi batek, eta azkenik irria jauzten zait gozoki. Ondar gerlan alemaner ikusi ginuen jauntzi hura bera dakar, — sasiko gizon gaichtoen jauntzi ñabarra, — baina zer oinetako ederrak ez derabiltza, nolako plaka distiranta ez chilko-parean, nolako gerrikoa ez halaber, — larru lodi leunezkoa, — sabre luburraren untziñoa datchikola, ezkerreko ichterraren cret-zetik beheiti dilindan!

Bera handia, kepia ordean bera baino handiago du, araberan : Austriako soldadoen kepia hura bera, erreka-hegietan ikusteak berak izitzen omni baitzituen italianoak Lombardiako guduetan. Aurpegi bat badu bertzalde bitchienetarik : hori-horia, matrailek egiten diotela muthur biribil bat aitzinerat, labeño bat balu bezala ahoaren orde. Ukarea moztera utz nezake, gizon hura ez dela eskualduna, gaztelarra baizik.

Gaztelarra edo ez, gizona da haatik, nihun balin bada bat, eta ontsa ikasia. Mintzatu baino lehen, badaki entzuten; entzun ondoan, badaki zentzuz mintzaten eta izariz.

— Ez bazaizkete, dio, neholere zeuren artean antola,

bitarteko behar duzue hartu *garagista* bat, eta hunen hitzetik zuen eztabada hautsi. Onhartzen ez baduzue epaia, jujearen aitzinerat dukezue agertzea, ez baititake bertzerik.

Bi buruzkariek ez adituarena egiten diote.

Badago entzuten oraino apur bat; eta berriz, batere khechatu gabe, solas bera adiarazten daie.

Onhartzen du ene lagunak, hain baita segur alde itzuliko zaizkola gauzak. Bagoazi gure otoetan haratchago, trambide bat daukan karrika zabal batetarat. Ikusten ditugu bi gizonak garagistaren lantegian sartzen, pirripita madarikatua kirrinkaz aitzinean deramatela, hirizaina athean aiduru baratzen delarik.

Ichil-ichila gaude gure otoetan, gogoia ilhun. Gure laguna ditaken gizonik hoberena dela badakigu, bihoztiarra ezin gehiago, diru-pegeseria bati nihoiz behatzen ez duena; halarik etc, zuzenean dela iduri zaionean, ez da errechki barkatzen dutenetarik.

Beltzuri gogorrean ikusia dugu sartzen. Ordu-erdi bat baino gehiago bertzalde, gure andreek ez dutela atheratzen tintik! Agian etzaie orai berriz gogoratuko Burgozerat baitezpada beren buruen eremanaraztea, Orreagako harri higatuaren ondotik! Ez niz soberarik fida...

Auzi zozo baten beldurra, akidura, oihaneko chakolinaren azken uztarra edo ez dakit zer, lo-kuluchka batek hartzen nu ene alkiaren gainean.

Bi minuta gabe, laguna sahetsean dut, inharrosten nauela irri gozo batekin.

— Nahi bezala egin dut tratua, diozt : hameka pezetetan. Goazin orai hemendik berehala...

Ehun bat metraren buruko atheraiak gira Tolosatik, burdinbide zubi baten azpitik barna. Ordu zen.

*
**

Malda bati zeharka lotzen girelarik, azken behako bat igortzen diot Gipuzkoako hiri-nausi izanari. Ohartzen niz chinia gora luze batzuei : paper-fabriketako khe-atherabideak ditazke, itsusi kankail hek, zerua zikintzen baitute beren bafada nahasi beltzez.

Ahaztera nindoan industria azkarki sartua dela, aspaldisko danik hunat, Gipuzkoako lurretan. Zeren gatik den azkarki sartua, ez nakike. Itsasoko harat-hunata hurbil izaitetik naski; Frantziako industria bere zedarrietan nekesko zabilalakotz ere orobat; behar bada elektrikaren indarra ausarki bazelakotz eta merke hemen gaindi; lurpeko gei batzuez aberatsago zelakotz ere omen Espainia...

Dena den, behin baino gehiago aditurik gogoan daukatana, haucha da: industriaren tupustadako trumilka-sartze horrek itzulipurdikatu zituela eskualde hok.

Ez da amesteko gaitz. Duela hiruetan hogoi bat urte artino, Eskualerria gocho-gochoa laborantzatik bizi zen eta hazkuntzatik, nehorateko atherabide handirik gabe mendien artean hetsia, bere mintzai chaharra baizik ez kasik ezpainetan, arbasoen ganikako fede zintzo eta oitura zuhurren gerizan. Jakitaterik ez, dirurik ere ez hanbat, bakartiarra berzalde eta bere tokiko betri baizik ez jakinki, eskualdun gaizok nola zezaketen iharduk hainbertze atzerritar gose bezain argituen aztaparrari? Gider asko utzi behar ukan zaizkoten.

Jin-berriek eraiki zituzten beraz lantegiak; nun-nahi. Ohartu ziren urthetik-urthera eskualdunak zombatekoa den mekanikaren indarra, zoin aise eta chuchen derabilan bere ahopiloa; hurriki bada hurriki ikasi zuen zer den lan baten cheheki sailkatzea, esku berek sailño bat deramatelarik bethi berdina; ikasi nola behar duen geroztik izan lantegi bakotchak sail-tokikatua, nahi bada zerbait egin laster, ontsa, merke; ikasi nahi-t'ez konduen atchikitzen, jiteen eta joaiten egun oroz chifratzen artharekin, geien erosten zuhurki eta salgeitu arau zuhurtziarekin dirutzen.

Ohartua ez bada oraino arras, ohartzen ari da halaber egunetik egunera, kimiak industriari dakarkeon laguntza neurri-gabeari.

Ez dugu uste holako iatzar-aldirik ukan zuela nihoiz eskualdunak, guziz Bizkaiko bazterretan eta Gipuzkoan. Zer inharrostea! Bizipide, urratsbide, sineste, oitura, mintzai, salerospen, leihor eta itsasoetako harat-hunat, oro koskean joak, oro

kotsatuak ! Gainera fotografiak, telegrafak, telefonak, beribilek, aireplanek, radiofoniak etzaizkotena dardaratzen zainak, bihotza pilpiratzen, adimenduari emanaz bertzalde ezin-geldituzko chinaurri-alha bat !...

Azken behako luzea igortzen diotalarik behar-bada gehiago ene bizi laburtuan ikusiko ez dutan Tolosa zahar maiteari, iduri zait mintzo zaizkitala hango bi adichkide : — Ez iduk grinarik gutaz ; mende hunek ekarri daukun guduari ez gira den-gutienik lotsa : jarriak gira eskualdun guziak ukondoz-ukondo ; begiak erne dauzkagu, erne gogoa, besoa azkar. Gure geldituko da, gu jabe eta gu nausi, Gipuzkoako lurra.



Zeharkatuz bagoazi malda eztiari gora, noiz eguerdi-alderat, noiz mendeal-alderat, bainan eguerdirat mendealerat baino izpi bat adarkatuagoz.

Bidearen eskuin-aldeetik, lerroan doazila nor mandoz, nor asto-bizkarrez, atzemaiten ditugu bospasei emazte eta gizon, Tolosako merkatutik gibelerat heldu ditazkenak. Aberea iziturik, zaloin jausten ere dira zonbait, ez bidearen erdirat, bainan ba arlako alderat. Jausteko eskualdeaz ez, beren begitarte zimailaz ere ez, bainan garaitiko zer guziez Baigorritik etcherat itzultzen diren Bankar batzuenzat hartzeko litazke.

Lauzpabortz kilometraren buruko, lerdoin apal batzuen artetik igaiten gira *Bidania*-n harat. O herri bildu pollita, bere etche churi garbi, leiho ontsa thindatuekin ! Hirian aberastearekin gizonari osagarriak balirau, holako herriño batean litzaioke gocho azken urtheen iragaitea, hiritik lau urratsetan, hirirat artetan adichkide chabar batzuekin bazkari ontto baten egitera joanez.

Mazelaren gaineko hegiz-hegi huna nun goazin orai. Berehala ezkerretarik, eguerdi alderat, erreka luze ikaragarri bat, bi mendi-lerro goren artean. Zola-zolan basur zonbait, orai agortuthea ditakena : erregebidea gorachago, partez-par, eskuin-aldeetik ; hunen gainean herri tarro zahar bat : *Errezil*, gorra izan behar dena, garbi baitauzka bere harri-pikatuzko bizitegi larriak. Inguruka jautsiz geroz, han gaindi dukegu aitzina joaitea.

Iguzkia sartzerat abiatua baita, ez ditake erran bazter hunen ederra : mendien mazelak ez dira larrutuak nihun, nihun ez dira erreak; halako berde bat badute, begiarentzat egin eztiagoa. Ordu osoa banagoke hemen gogotik, alfer, begiak bakarrik alha.

— Bortz pinta ezantza baizik etzaizkit gelditzen, karatcho ! daut adiarazten motz-motza ene lagunak. Hau litake, hau orai ichtorioa, hoinbertze itzuliren ondotik Loyolarat ez baginite helahal ezantza eskasez !

Berchala jautsirik, ja oihuz dago harrizko-mailadi baten gainean bere etcheñoari gibela ikusia duen chamardun bati : Etzinuke fortunaz ezantza-chorta bat ? — Ez, dio behin erantzuten gizonak, alde orotarat eta urrun behatu ondoan. — Ontsa paga nezazuke bada, eta gogotik. — Behatzen du berriz gure gizonak alde orotarat, eta horra nun, eskuaz keinu eginik, zipoteka etcherat ezantzaren bilha badoakigun. Eskualdunik ez bide da, Gipuzkoan ere, kontrebandaz guti edo aski bizi ez denik.

Berantak lotsatua bainiz, biltzen dut besotik ene laguna sahetserat, eta abiatzen gira karraskan, gizonaren beha egon gabe.

Bospasei kilometrako bat egiten dukegunez ez dakit, noiz ere patar chut kakola baten gainetik ikusten baitugu, mendi-lerro andana gora batzuez inguratua, ametsetan baizik agertzen etzaizkizun zelai biribil pollit hetarik bat. Ez da zelaia ere : ibar bat, izaitekotz, urina bezain gichena.

Ibar hartan, mendichka apal baten gibeletik, begiak hetsidek artean itzali zait — ohartu othe zaizko berdine lagunak ? — Loyola-komentuko goipularria. Nere atsegin bethea ! Harrotzen nu, Erromarat heltzean Michel-Angelen harrizko obrari ohartzen zaizkotenek duketen atsegin berak. Baiman ichil-ichila nihaurentzat dadukat behin, zikoizki.

VIII

LOYOLAN

Aurkintze hau zinez choragarria da. Beheititurik gordetzera doan iguzkiak urreztatzen du oraino zeru-choko bat, garaitiko eremu guzia urddin-argi dagolarik, eta lurra berotzen ezteki. Atsegin dute gure begiek, begien atseginaz alaitzen zaiku araberalat bihotza. Hemengoaren aldean, ikusi duten gutarik biek hitsa dela diote Provence eskualdeko zeru-gaina, iguzkiaren bero handichagoak langar arin batez azpiltzen diolakotz bere kapa urdina; gordina aldiz, aditu dutenaren arabera, Greziakoa, hau argiarenarekin batean iguzkiaren saminak lambro-lipits argalene-tarik garbitzen omen duelakotz goien-goienean.

Bainan zonbat eta zonbat mendi-lerroek inguratzen duten jaustera goazin ibarra! Hainbertze eta halako lur-mokorrek lotsa bat sortzen dauzute barnean. Jakintsu hanitzek baitiote Lurra ez dela Iguzkiak noizbait airez-aire aurdiki ziliporta bat baizik, hastapenean su zarionetik emeki-emeki hoztua, daukat etzela iguzkiaren errai samurretarik arroltzearen idurirat osoki biribil eta leun jauzi pikorra, bainan ba ordukotz dena zimur eta konkor, guneka; gune hotan, azala gogortu zelarik behin, eta gero euriteekin zonbait menderen buruko gozatu, zela egin, hanitzez berantago ez dakigu nola Biziaz amatzeko, orai gabiltzan Gipuzkoako eskualde maitea.

Zertako ordean mintza luzazago, inguratzen gitzuten mendiez? Jada, patarrari-behera zeharkatuz goazilarik, itzali dauz-kigute beren kaskoak; doidoi ohartzten gitzaizko eskuin-aldean chutitzen zaikun Itzarraitz mendi aipatuaren mazelako peña kaskailari. Oichtiko ibarra zabaldu da bat-batean; zelai eder bilakatua, zelai gizen, dena pentze, dena artho-landa, daukute choraturik ikusten begiek; bazter batean, eskuin, huna nun zaikun agertzen *Azpeitia*-ko herri tarro polita, hainbertze pilotari aipatuaren sor-lekua.

Sartzean, bizpahiru etcheek beren leiho guzietarik agur egiten daukute lañoki, aireak idortzearekin chaflla-chaflla igitzen dituen churiketez. Karrikako bertze etcheak ez ditugu haatik

hoin abegiar: hotz-hotza daude beren pareta churi eta harri pikatu beltzaan dorpeekin, leiho-hegalak elgarri hurranduak, athe-aitzinean alhartzerik ere gabe. Gora dira gehienak, hiruna estaiekin bederen, lerro luze bedera egiten dutela bide galtzaratuaren bi sahetsetarik. Emazte bakar batzu gune batean, urgulu gutirekin jauntziak.

Karikatik athera orduko eguerdi-alde, bidca zabaltzen zaiku handizki eta beltz-beltza leuntzen, chuen-chuena luzatuz urruneraino.

Zerbaiti bigarren aldikotz oharturik ichil-itchila egoiteko chedea bigarren aldian hartu dutaneko, bozkariozko oihu batzu gaitzak aditzen ditut ere gibelean, lau aho bederen baitira zintzur-raino idekiak : « Hara, hara Loyola ! Hara komentua ! Berehala han gira ! »

Botzago etzitazken, segur, itsasoz-itsaso lehen-lehenik Ameriketado lurra atzeman zuten eskualdun itsasturiak.

Behatzen diot ene lagunari. Ezpain ala begi, oro irriz ari zaizko eztiki bere begitarte onean. Ahapetik erraiten daud : « Ederra da », hitzik ez gehiago, eta zangoa dank kentzen du motorraren akulatzetik. Bagoazi emeki, hartabots den-gutienik gabe, begiak luze bezain larri eta geldi.



Ba, zinez ederra da aurkintze huntarik Loyolako komentua, Azpeitiako zelaiaren choko bati erran baitzinezake gibelaz lotua.

Gogoari emazu orok dakigun Larressohoko semenario ohia bezalako etche bat gaitza, kilometra bat luze eta lau ehun metra-
ren ingurua zabal den ordoki baten buru-buruan; zer diot ! Larressohoko semenarioa baino bat eta erdiz zabalagoa, goragoa heren batez bederen.

Ez ditu haatik paretak churi, bainan ba beltzaan, murriz eta bizkitartean leun, beheetik gaineraino egiten duten harri pikatu gorratsak iguzki-sistek eta euriteek aspaldiko urthetarik hunat histu dituztelakotz, ara beraz nolazpait apainduz.

Aitzinaldea iparrari dagokio, halako samur batean, leihoak bakan, teilatua hegatzik gabe.

Lurretik gorasko, bi athe, bakotcha bere alhartzearekin,

hunen hegirat heltzen dela, atalkia geroago ttipituagoz, harrizko mailadia. Athe hetarik bat etchearen erdiz-erdi, nasaia; bertzea, etchearen erditik ezkerreko hegirat biderdi, hertsia athe hau eta orozbat apalchagoa. Lehenbizikoa, alhartzeaz bertzalde sarguia batekin, harrizko tente andana batek jasaiten diola, sartua izan gatik, bere atherbea; bigarrena, harri lantuz inguratua kampoalderat.

Urrunetik ezagun da, Larresohoko semenarioaren idurirat, badituela komentu-aitzinalde hunek gibelerat bi hegal luze, eta hok harateko buruan lotuak direla trebes eraikia den laugarren etche bati : lau etcheen gorputzek zedarri egiten baitukete inguruan, Larresohon bezala, ibil-toki huts zombaiti.

Larresohoko semenario ohiak ez duen edergailu zerbait badu bizkitartean Loyolako komentuak : aitzinaldea baino gibelchagodanik zerurat buruz goititzen zaion bulhar biribila. Harri argiagoz egina baita garaitiko harresi guziak baino, harek du ere joiten lehenik begia, hanbatenaz non molde hartako obrarik ez baita hanbat ikusten Eskualerrian. Erromako eliza-nausiarenaren aldean ttipia litake, bainan ez dugu uste Erromakoa bere tokian hobeki adosten den, begiarentzat, ingurunearekin.

Atsegabe dugu ez oharturik kurutze bat badukenez muttur-rean, ala San Inazioaren gizairudia.

* *

Barkatu, irakurle maitea, ene luma hoin tontoki balin baderabilat orai, egun hartan gure begi-ukaldi osoa hain zalu izan zelarik eta erne. Chehetasun bakar zombait eman nahi nauzkikezu oraino.

Komentuko aitzinaldearen ezkerreko hegiari lotua, luhatzzen da guri-buruz etche apal bat : athezainaren egoitza othe ? dautet galdatzen ene lagunek.

Komentuko aitzinaldetik gureganatago apur bat, badira ere bi platana-lerro, apal mozkinduak, komentuko athe-nausiaren parretik doidoi aipatu dugun etcheñoaren muthurreraino baitira trebesean heltzen.

Gabiltzan zelaia pentze bat baita bere eremu gehiengan,

belharraren muskerrak, platana-ostoen berdeak, komentuko pareten gorrats ilhun-ilhunak, goipularriaren nabar-arinak bazinaki zoin ontsa emaiten duten elgarrekin... Huntarik dathor guziz, begiarentzat, Loyolako chokoaren pollit, atsegingarria.

Gure otoen hararatze hurrian, planaderaren erdirat ez gira arras helduak oraino, noiz ere ohartzen baikira, eskuinetarik, duela hamabortz bat urthe eraikia izan den serora-komentu handi bati. Aberaski egina da; bainan, estalgiaren nola atherbeen goratasuna desbardin duelakotz han-hemenka, berinazko *beranda* bat agertzen ere daukulakotz bidearen gainerat, bitchia kausitzen dugu eta dorpeskoa.

Itchura hobea du, haratchago, eskualde beretik, bizkarño batean, bigarren serora-komentu batek : berria da hura ere, dena leiho zelai-alderat, bainan oso-osoan harri pikatu gorratsez egina da, pareta-gainetako hegiak mailka antze handirekin ozkatuak, eta neurri berekoa bere hedadura guzian.

Bizpahiru ehun metra oraino, eta zubi labur chabal, sahetsak marbre churiz dituen baten gainetik bagoazi, erran ditugun platana-lerroak ezker utziz; ez ordean komentuko athe-nausiari buruz, bainan ba, bihurrian, bertze athearen aitzineraino.

Hamabortz bat otomobil eder gelditurik badaude hemen, jadanik hustuak.

Bortzak eta erdia da.

Gehiagoko solasik gabe, zaloin igaiten niz mailadiari gora, ene lagunak ondotik.



Huna nun giren sartuak komentuarien barnerat, eta bizkitartean kampoan gira oraino, zerua gure buruen gainetik... Huntarik dathor bitchikeria : zombait urrats barnachago baita eraikitzen San Inazioaren jauregia, eremu huts puchka batek berechten duena komentuarien beraren aitzinaldetik.

Komentuarien barnean da geroztik — komentuarien hegari bere eskuineko sahetsaz baizik ez lotua — delako jauregia ;

gordea dago hau osoki, komentuari inguruetarik beha legozkio-kenentzat.

Jauregiaren aitzinean bagaude zombait minuta, nolakoa ditaken so.. Etche gora bat da, bi estai bederen badituzkena, bainan gora baino puska batez hertsia go, ez hain barna ere aitzin-gibel. Behere-aldea harri pikatuz egina du, athea — etche-aitzina ren erditik ezkerre rat bazter — ederki lantua; garaitikoak adailuz dela du iduri, bainan zoin tinki ez josiak oraino elgarri adailuak, hoinbertze menderen buruan! Arku batzu derakuste, arku en zango batetik bertzerako artean pareta askatzen delarik apur bat, zangoer atchikiz bizkitartean. Leiho guti, direnak ere hertsia k. Hor zen sortu 1491an — duela lau mende baino gehichago — eta bizi izan, haur-haurrean, Inazio Loyolakoa geroztik hunat orok deitzen dugun saindua.

Jauregiaren aitzineko eremuñoa hutsa zela baikinion doidoi, makur ginen mintzo. Huna lurrean — hobeki erraiteko, harri-pikatuzko zolaren gainean — erdi-etzana, Inazioren gizairudi bat bronzaz; Iruñako guduan biarnesek zaurturik erori zitaken bezala, dugu hemen begien aitzinean erregetiar aitzindari gaztea, lagun batek belhauniko atchikitzen diola burua. Ontsa egina da gizairudia; behar zen tokian ezarri zuten hemen; hunkigarria da zinez.

Huna oraino zipu bat, harresi biribil batek ziloa inguruan ezpaintzen diona goiti; harresi-hegiaren gainean chut, bronzazko bigarren gizairudi bat : Inazio berriz ere, bainan orai zaldizko aitzindari baten apainduran, hets eta idekaraz ditaken *kaska* batez estalirik buru lepoak. Aurpegia bera ez du haatik bronzaz, bainan ba churi-gorratsezko orhe gogor batez egina, — ez baitzira guti harritzen, aldardeka agertzen dauzutenean kaskaren aho zabal-dutik.

Burdin-gider batek goiti ta beheiti derabil pompa bat, ur-hotch garbia lurpetik ausarkian dakarrana agerrerat. Gu hurbiltzearekin, bospasei ikusliarrek gogotik klaskarazten dute pompako esku-ziria, bainan baso-beretik edateak kilikatzen daie barnea... elgarren ganikako kotsuen beldurrez! Basoa betherik dago sainduaren oinetan; tintik ez du edaten nehork!

Nitaz bezenbatean, sartzen niz lehen-bai-lehen jauregirat.

Eta sartu orduko, duela hemezortzi edo hogoi urteko orhoitzapen bat jauzten zait berchala sudurrerat, holakorik erran badezaket: etche-barne hartako usain onaren orhoitzapena, orduan. Ene ahal guziaz usnaturikan ere, usain hura den-gutienik ez dut hautemaiten egun : gaztetasuna hihauri joan baitzaik segur, gehiago ikusiko ez dukana, daut adiarazten bizkat-hezurrari beheiti trufari kichkil batek. Gogoa ilhun, banoa ezkaratzeko athe baten jotzera, ezkerretarik. Hetsia ! Gauzak ez dituk lehen bezala hemen : bertzelakatu dituk zorigaitzez, eta hekin batean hihau...

*
**

Han, ezkaratz-barneko athe hartan, ene lehenbiziko ikustaldian zitzaitan bada agertu apez-jauntziarekilako gizon ttipi gaztesko bat, Jesuista batendako hartu nuena. Eskuaraz galdegin nion jauregiaren ikuskatzeko baimena; eskuaraz zaundan erantzun. Trebe jarri ginen ordu-beretik elgarrentzat. Gutu haztatu dut ene bizian harena bezalako lañotasunik; eskualdun aneia batena zen, gainera gizon handizki argitu batena, fedezko khar ezti batek berotzen zuena eta sarkortzen orozbat.

Iduri zait ene ondoan dutala oraino, egun, apezño hura.

Duela hogoi urthe, solasean hasi ta laster, urraska ereman nuen atherat, galdegiten niolarik San Inazioaren ithurriak egiten zuenez mirakulu hanitz. — Gutu, arras gutu, zaundan hotz-hotza erantzun, bide hortazko mirakuluek haren iduripenerat gibeldondorik betere ukan ez balute bezala. Harritu nintzen, behin, haren atheraldi achola-gutikoaz.

Gero, ezkaratzerat itzultzearekin biak, aipatu nion bada etche-barneko usain gochoa. — Zedrarena da, ninduen ohartarazi irriz; jauregiko eskalerak zedra taulaz berrituak izan dira, hala-nola zureriaren bertze zati asko.

Orhoitzapen horiek trumilka dabilzkitalarik buruan, hunat! hunat! dautet egiten ene lagunek. Eta bertze ikusliar andanaño batekin ikusten ditut sartzen ezkaratz-eskuinetarikako athe batetik barna.

Gibelchago-danik banarraie, begiz ikusten ez dutan ene lehengo apez maitea sahetsean.

Kaperaño batean gira, paretak, soailua, aldarea bera, oro mozaika chehe. churi eta urdin batez estaliak. Elektrik'argi bakar batek eztiki argitzen du guzia. Begientzat gocho balin bada barne hura, arimakotzat gochoago oraino ez othe den, gaude. Jabalduaz hausten ere zaizula apur bat bihotza, aithortuko dut den-gutieneko eraberik gabe.

Erakusletzat badugu gizon luze bat, hartakoa, galtza-sahets eta maipuliseko esku-muthurrak gorriz galonatuak. Erdaraz mintzo da, lele-aire batekin, bere zereginaz iduri bailuke nardatuthea.

Kaperaño hari datchikola, bertze kapera ttipi bat : hau dena zeruria urreztatuz; hain gordin eta samur urre-apaindura, nun itsutzen baitzitu. Nihun ditaken ederrena orobat, batzuentzat...

Aditzen dut ene sahetseko apezñoa, han balitz bezala izaitzez, ez baitakit ez dutanez ere ene burua itzultzen haren ganat : « Bi barne hauk — dio ene behatirat nunbaitik — zuten egiten duela lau mende jauregi huntako barrokoa. Oraiko etchetiar-etcheen araberalat ziren, beihala, eskualde hotako aitoren-seeen egoitzak. Sei edo zortzi aberre-buru koka zitazken doidoi hemen. Bizi giren mendean bekaizti guti zuketzen, segur, saildu-geiaren aitamen aberastasunek, inguruetan bertzerik ez balute jabeek ukan. »

Itzultzen gira mozaikazko kaperalat. Aizinaldeko paretaren zolan huna nun athe niniño bat ideki daukun erakusle muthilak. Ukurturik behatzen dugu guziek paretaren barnean agertua zaikun chiloka ilhunari.

Uste gabeko gure zaintzoztea ! Kanoi kurlo bat dugu begien aitzinean, besoa baino luzechago, ichterra bezain lodi, bere changoaren gainean oilarkatua kampo-alderat.

Duela lau mende zukeen larderia, bizkitartean, Jainkoak begirala gitzala gutiestetik ! Berrogoi ta hamar metretan-haraf bederen igortzen zuken bere burdin-pikorra, nork daki zer zartako ikaragarrian ? Bi zakur muthur-motzek hobeki zaindu zuketela jauregia ez guri erran, halako zaintzaleak baitzitazken etche gehienetan, ihausiz ala ausikiz etsaia izitzen etzuketanak hanbat.

Hainbertzenarekin, ene aldeko ikusliar baten hitz hauiek

jotzen dautate beharria frantsesez : « Ehun debruak berekin dituzte Jesuistek. Bazterretan dituzten komentu guziak holache zainduak dauzkate, behecan kanoiez, gainean aldiz mitrallusez. Orroaz jauzi baledi egun edo bihar jende chehea, baluzke hemen azpitik odoletan idukitzeko gupida ez litzaizkiokenak ! »

« — Ori, diot ihardesten mintzai berean, izan bedi norbait iharduk lezokena : oilo batzu bezala iziturik lasterka bailoazke ihes, jende handien hogoiatarik hemeretziak ! »



Marbrezko ezkaratz churi ederretik barna bagoazi multzo handiagotuan — hogoi ta hamar bat orotarar — zedrazko eskaler chabalari gora. Gerezi-ondoaren zura baino ilhuntchago batez ditu mailak. Eztia da, lau batzuekin bihurgunetan. Bitrall batzuek argitzen dute, San Inazioaren biziko gertakari zorbait agertzen dituztenak.

Lehen estaian bertze kapera bat, handiagoa hau behekoak baino. Soailuko zureria zaharra dena ezagun du, trebeseko habe lodinari datchizkola gapirio-lerroak, aizkoraz ezpalka lantu izanak oro, berritako thindu gorrats ilhunak ez baititu zorionez sobera leunduak utzi. Aldare-mahainaren gaineko erre-
taulak erakusten dauku saindua othoitzean, Jainkoarekin beko-
beko, Manresako harpean.

Dezagun erran hemen, ez lakiketenentzat, Loyolan bere zauritik sendatu urthearen buruko, Inazio fedearen suak ereman zuela Arantzazuko kaperalat, — Loyolatik beherachago, bospasei orenen bidetan, Oñateko herri ederretik askitto hurbil. Mendi kazkar ikusgarri batzuen mazelan eraikia zen eta geroztik-hunat handitua izan den kapera hartan zituen iragan, zeruetako Amaren itchuraren oinetan ahospez, bi egun eta bi gau.

Handik landa jo zuen gero, oinez eta esketik biziz, Barzelonarat buruz, Manresako hiriñorat. Hunen bazterreko harpe batean ikusi zuten hanitz aldiz, bakarnik, gogoetatsu, othoitzari ardura kenduz arimakotzat indar. Han omen zuen asmatu Jesusen Lagundiaren egitea, batza hunek ethorkizunean erabiltzeko zituzken urratsekin. Azkenik, haratchago zen kaperaño batean zituen

ereman zortzi gau eta egun datchikola, hazkurririk deus hartu gabe, osoki gogerauntzia Jainkoa-baitan.

Ikuska gabiltzan kaperako erretaula hau igeltsuz egina ditake eta margoztatuz apaindua. Orhoitzarenago zitaken, gure iduriko, oihalaren gainean finkatu ukan balute margolariek sainduari Manresako kaperañoan gertatu gogo-bahitzea.

Bainan huna nun beharritat mintzo zaitan ene sahetseko lagun soingabea :

« — Barne hau, jauregiko belhartegia edo sabaia zen, lehen ; hemen etzaten ere ziren, belharrean, jauregiko hiru muthilak ; orai, lerro-lerro ikusten dituzun alki horietan dira jartzen meza-entzuleak, hala-nola hemengo Aita Jesuisten erakaspenen aditzera jiten direnak. »

* *

Geroago begiak erneago bagoazi goiti, bigarren estairat.

Hemen laugarren kapera bat, athearen orde burdinazko-grilla apal batekin sarguiari. Aldarea dena altzeiruz, sahetsetako bi paretak dena marbrez, biak erle-orrazeak bezala dena chilokatuak ; chiloka bakotchak badaukalarik barnean, berinazko athe baten gibelean, urrezko-kutchatitik bat : erliki-untzia.

Berriz ere ene beharritat lehengo boza : « Hemen dira bederatzi ehun sainduen erlikiak, lurreko-bazter guzietarik bainan guziz Erromatik hunat bilduak. »

Espantiturik gaude oro, urrezko-kutchatino heier so.

Muthil erakusleak izendatzen dauzkigu sainduetarik zombait. Erdaraz ari bada ere ezpain bare batzuekin, iduri baino jakintsuago da, bai eta ikuslarriar atsegin egiterat ichuriago.

Ohartarazten gitu emeki-emeki gibeledko paretan bi erretauler : batek badauka — ontsa aditu badut — Golgothako kurutzearen izpika bat ; bertzeak, aldiz, oihalaren gainean olio margoztatuz erakusten dauku Inazio bere aintzindari-arropan, belhaun bat lurrari, apezpiku bati agurka, jende-andana handi baten erdian. Astia baginu, hobekichago beha ginezoke, ez bide baita nola-nahikoa.

Cheheki ikuskatzekoa litake halaber kapera guzia, hain delakotz begikoa eta aberatsa : miliun bat baino gehiago gostaia,

omen, egin zenean. Bainan arthaldeño bati bezala bere artzainaren ondotik, igaitea behartzen zaiku hirugarren estairat.

*
*
*

Berehala erran dezadan, badute hemen ere gure begi bihotzek nun ase eta nun goza.

Huna jauregiko bortzgarren kapera. Pareta guziak estaliak ditu onyx deitzen duten marbreaz, hau atheraia Eskualerritik hurbil Espainiako lurtean aurkitzen den harrobi batetarik. Soailuak aldiz, ez aldareak ere, ez dute aipagarririk deus.

Bilha nabil badenez — izan behar da nunbait — erretaula bat, Inazio erakuts lezagukena Pariseko bere sei lagunekin, Montmartreko eliza batean elgarri jarraikitzeke egin zutelarik zin, edo eliza hartarik lekora ithurriño baten inguruan jarri zirelarik baruraren hausteko ogi-idor-cherra batez, elgar nihoiz ukatu behar etzuten zazpi lagun khartsuak. Badakigu orok hetarik bat zela Frantses Javierekoa. Inaziori Parisen eskukaldi on batzu egin ondoan Inaziok emeki-emeki bere-ganat bildua zuena. Ez dut bada ikusten halako margo-lanik.

Ikusgarriagorik badugu berdin, bi urratsetan. Kapera huni datchikola bada bertze bat, zurezko tente batzuek berechten dutena huntarik. Bigarren kapera hau da jauregiko orhoitzapen ederrena. Ikusliarrik ez da haizu sartzera. Tenteen arteketarik gagozkio beha bi begiez.

Erditsutan badu harri churizko aldare balios bat ; bazter batean, Inazioren gizairudia, zur margoztatuz. Jarririk dago Inazio, eskuineko belhauna lotura batez inguratua. Barne huntarat zuten goititu aitzindari gaztea frantses batzuek, Iruñako gudutik landa ; hemen zituen iragan, oinhaze eta auhenen erdian, hamar edo hamabi ilabete etsigarri, bere fedeak eta jite zailak sendalarien artek baino zuhurkiago sendatzera zeramatelarik lehengo neurri bererat.

Choko batean bada oraino erretaula ttipi bat osoki begikoa, bainan orhoitzaren horiek guziak guti, paretako marbrearen chiloka batek agertzen daukunaren aldean.

Han da, Lagundiak Erromatik ekarririk kokatua, bere lehen buruzagi Inazio sainduaren buru-hezurra bera.

Diamant larri batek erdian, bazterretan diamant chehe batzuek izar-dirdira batez argitzen dute erlikiaren untzia.

*
**

Atheratzen gira, begiak apur bat lilluraturik. Estai berean, orai, begien ondotik bihotza zaiku behar tampako batez estali.

Muthilak sartzen gitu berehala barne hertsu nimitio baterat. Bertze guziak bezala elektrikaz argitua da hau ere, ezin eztikiago. Churiak ditu soailua, paretak, zola bera, bainan ez dute gisuaren churia, ez paperarena, ez marbrearena, ez thinduarena, ez zetarena, Gotorragoa da churi hura, zertarik ere baita, hotza, beregizkoa, erraitera ginoazke berkoia.

Harateko buruan, gizonak idekitzen dauzkigu, zabal, armairuño baten athearen bi alderdiak : zurezko gizairudi ttipi andana bat agertzen zaiku, erdian zeruko Amarena, oro urrez margoztatuak.

— Hemen, dugu jakiten erakuslearen ahotik, zuen ohi biltzea egun guzietz jauregiko familiak ; elgarrekilako othoitz-lekutzat zaukaten barneño hau. Behazue orai armairu-atheari, paretar, gainari : zilar hutsez dira guziak. Arkuan jarria den soailuan, zilar-plaka lodi bakotcha hegiz-hegi zilarrezko lore nimitio batzuek bere lagunetarik berechten dute, zedarritzen, ikusliarraren begi-atseginarentzat. Behazue oinetarat : zola bera zilarrezkoa da, harri pikatuz balitz bezain zangoarentzat gogor.

Choratuak gaude zombait minutaz, kokatzen ahal girenak oro. Halako othoitz-leku bat balu etche bakotchak, segur hemen guhauri bezenbat bihotza uzter litzaiekeela bizizaleer.

Duda zirringila bat hautemaiten dut bizkitartean neure baitan : holako barnerik, orhoit bahiz, etzukean duela hogoi urthe estai huntan ? Geroztik egina izan behar dik. Inazioren gelari kendua zioket choko bat, *oratorio*-karialat dadin ager. Haren familiak etzikekan, orobat, othoitz-leku berezirik : sainduekilako armairuño hori ba, bakarrik, Inazio bere zortzi semetarik gaztenaren ohe-ondoan¹.

(1) Bere zazpi ancietz bertzalde, Inaziok bazituen horts arreba.

Arras durduzatua, ene gaztetasuneko apez lagunari dei egiten diot argi nezan, bethi sahetsean dagokitala ustez : bainan ikusten nuen baino gehiago ez dut aditzen, ez dut hautemaiten ere orai... Zendako othe zait bertan ezeztatu ?



Bakar gelditzetik gogoa ilhun, banoa ene lagunen bilha.

Korridor hertsiaeren bertzaldetik aurkitzen ditut zazpigarren kaperaño batean sartuak, haztatzeke eskutik eskura batek bertzeari irriz emaiten dituztela aldare-gibeleko gandeler-zango batzu. Ez dira baitezpada hain handi ez lodiak, bainan ba, altzeiru hutsak direlakotz, doidoi jasan-ahalekoak.

Zer diot altzeiru hutsak ? Guneka, eta gainetik behereraino, ez dakigu nolako ez zer tresna zorrotzarekin zango bakotchak bere azala alde orotarar pikaturik, arrailkaturik izana du, zur guri bat ziriziti-zarrasta batzutan marratzen duen bezala chitchuketariaren kanibet-puntak. Eta ara hortaz urratua izan zen ildochka mehar bakotchari bazaio bere bethean sakatua, tinki, urre-chichter luche dirdiratsu bat. Ildo hek etzituzten bizkitartean itsura egin ; urrea han dute lekuko, antzez erabili zuela ofizialeak bere eskua, desinu pollit zerbaiten atheratzeko lehiarekin.

Zer lan chehe, chuhur, miragarria ! Auzo herrian, Eibarren, dela izan egina, atsegin dugu muthilak erranik. Ohartarazten gitu, bertzalde, delako zangoen alxia gei berez eta ara beretan obratua dela, halaber ziborioa gorderik dagon armairuñoa, halaber aldare-mahaina jasaiten duten tenteak. Oroni badarite urre-dirdira ezti bat : alzehiruaren argi gaichtoak nundik-nahi baitu hautsi eta histu, zangoa osoki urrea izaitetik jauz zitaken iguzki-sista beroa. Bainan, ezti bada ezti, ez da bihotzerakorrigo baizik.

Saminegi etzadin izan urre-iguzkia, egin zuten oraino hemen bertzenik. Etzinezake neholere asma zer : aldarea bizkarrak dagon pareta apaindu zuten marbre urdinez, bizkarraren eremua baino zabalago bat duela hunek hartzen. Austriatik ekarria izana da *lapis-lazuli* deritzaion marbre hura. Eta biderditarik so egoiten bazainaizko kaperañoaren buru-aldeari, hian ginen guziak orduan egon ginen bezala, aithortzeko zinuke chedea bethe zutela osoki : begiak gochatuaren-gochatuz, bihotzaren beraztea baitzitaken.

Chede hori bera zuketen segur, ezen — gainera — bertze hiru paretak onyxez apainduak dira ; chaffa neurrikoetan onyxa, hunen mamiko zain gorratsek izariz zezaten ager beren argia, alda-re-tokikoaren ez bortizteko.

Ohartzen niz behinik behin choratuak dagozila gure ondoko emazte guziak ; durduzaturik, gizonak berek ere ez dakigula norat itzul. Etche huntako sorginkerier, holakorik erran badezaket, bihotz gogorrenekoentzat ihardukitzea lan.

Ederrenez begiak lilluratuak, burua goititzen dugu soailu alderat ; beheitzen ere ba berehala, choradura guziak galdurik : apala da, gapirioen artetan berina batzuekin kampoko argiarendako. Nimiñoago baizik ez da agertzen kapera, nimiñoegi bere edergailuentzat.

Muthilaren arabera, ikusiak omen ditugu etheko ikusgarri guziak. Bageramatza bi ichtapez sakristiarat, hemen ichil-ichila choko batean baratzen delarik bera.

Barne handi apal bat da sakristia. Orhoitmeneko iduk dezakegunik ez du deus, non ez den ornamentak bere tirketan etzanak daduzkan armairu beltz, zabal, laburra. Hoin beltza izaiteko, *ebenazkoa* du izan behar. Eskultura ugari batzuek musikatzen diote aitzinalde guzia.

*
**

Baratu ere gabe, ene lagunak oro badoazi, muthilari eskupekoaren emaiteko baztertu ondoan, igan eskalaretik jaustera. Banago bakarrik, khechu hogoi ta bortz minutaz hoin arinki ibili izanik hainbertze ikuskizun miresgarrien artean, egun osoa bederen aztertuak¹ izaiteko ez baitzuketen sobera.

Gero, gogoā hasten zait crasiaka, hunelache : beren aita, beren buruzagi eta nausi lehenaren sor-etchea chutik iduki nahi ukan baitute Jesuistek, goretsiak izan bedite beren ezagutzarentzat. Bakar batzuekako hobeki zitaken, orobat, zen bezala beiratu balute etchea, zen bezala Inazio bere aitama eta haurtidekin han bizi izan zenean. Bainan jendeak sinetsiko zukena halako jauregi chume batek ohatu zuela noizbait, eta moldatu, saindu handienetarik baten arima ? Beiratu zukena luzaz huri bere atchikimendua,

(1) Aztertze : *examiner*.

ez balu etche-barne guziak erakutsi, begien ondotik bihotzak joz, jendeak gehienik maite dituen lurreko edergailu eta aberastasunetarik lipar bat ? Ditzagun eskerrak bihur Lagundiari, lilluraz-lillura gauza baliosenen arartekoz arima baitaiku goratu, ulertzerainokoa nolakoa zen Inaziok beretzat hautatu ontasun bakarra, hau baitzen — eta baita bethi — lagunaren alderako amodioa Jainkoa baitan.

Gogoa horrela dabilkitalarik, ohartzen niz itze batetik dilindan dagon erretaulaño bati. Egiaren aithortzeko, duela hogoi urthe aurkintze berean ikusia nuclakotz, ez nuen ahantzia. Hurbiltzen nitzaio emeki, muthila oldar dakitan ez fidaz.

Begien aitzinean ditut Inaziok berak izkiriatu lerro batzu. Irakur zitazken ene ondar ikustaldian, orai ez : erdoilak jaten ari ditu hitzak, papera bera andeatzen hasia da. Lauzpabortz mende baizik ez dirauke beraz, berinapean ezarririk ere, idazle baten esku-lanak. Zer deithoragarria !... Berdin, histuaren gatik irakurtzen ahal baginu, adi othe ginezakea den-gutienik sainduaren orduko hizkuntza ? Gure oraiko mintzaiarena balitz ere, beldur niz ezetz. Beldur itsusiago bat badut, — barkatu lumatik erortzen bazait aithorra, — beldur niz Inazio gutarterat ager baledi eta dakigun eskuaraz aholka bagintza, behin Azpeitiarriak karrikan gaindi egin zituen bezala, gor eta elkor egon gintzozken. Ideek nola solasek, nola idaztiek, ez ote duten beren garaia edo sasoina, nago dardarika batekin...

* *

Hain chuchen, farrasta bat hautemaiten dut ene sahetsean, eta huna nun ikusten dutan — nundik jina othe ? — uste gabetarik oichtian itzalia zitzaitan ene apez laguna. Ez daut orai behatzen ere. So gelditurik erretaulako izkirioneari, erhia chut adiarazten daut idorki :

— Inazio etzen jakintsua. Nekez mintzo zen, hurriki zitzaion atheratzen elhea; haren idaztietan, halaber, ez da ezagun idazlearen antzerik.

Solas berak atchikiak zauzkitan, lehen. Ez diot ihardesten batere. Baditake etzen hanbat aho ederrekoa Inazio ; izan ditake lumaz ere etzela trebeenetarik. Bainan ez jakintsua ! Ez dut sinesten tuntik. Argi laburretakoa, gizon egin artio jende argituen

artean hazia izan zen aitoren semea, gizondu ondoan bere adimendua ezin aski argituzko themarekin ikastetche aipatuenetan hogoi urthe ereman zituen entzule bipila, ohartzeko apurrekoa izan zela gizon hura !... Zonbat buru oneko gizon, buru handikoak ere ba eta gain-gainetik argituak, idazteko ala mintzatzeko deus guti direnak izan !

Apezñoa aitzina bereari, idorkiago oraino, izaitekotz :

— Inazio baitan izan den handia, da bakarrik *bertutea*. Maitatzearen ariaz, bere begiz ikusi zuen Jainkoa. Jainko-legearen ezagutarazteko lehiaz errea, bere indarrak higatu zituen Elizaren erakaspenak leihorrez-leihor hedatuak izan ziten lurreko bazter urrunetaraino. Gutxi ibili zen bizkitartean bera, herriz-herriz. Errroman zituen ereman bere azken hamabortz urtheak, ez-deusez bizi, arduenik othoitzean, bere gorputzaren alderat garratz, hartu chedeetan egunetik egunera gogorrigo. Hurbiltzen zitzaizkonetarik hanitzak bereganatzen bazituen, bertuteaz zituen bereganatzen. Bertan eskaintzen zitzaizkon laguntzat, eta abiatzen lanerat. Dena sua baitzen, hura zen ororen berozale, hura ororen gider. Hil izan zelarik 1556-an, hiruetan hogoi-ta bortz urthetan, baziren idekiak mila ikastetche baino gehiago gazteriarentzat ; milaka baziren Jesuistak, bazabiltzanak nun-nahi Jainko-legearen predikatzen, guziz haurrer.

Ez da gutiago egia, diot ichil-ichila ihardesten, Inaziok nahi ukan zuela bere lagunak eta ondokoek gazteriari erakats zitzaten, ez bakarrik Elizaren erakaspenak, bainan oraino zuzenki eta ontsa bizitzeko behar diren jakitate mota guziak. Ez balitu berak jasatu bederen ukan, nundik zukeen bere laguner hainbertze arthamendatu erakats zitzaten ?

Atheratzen gira adichkide halere sakristiatik, biak. Zonbait urrats oraino elgarrekin, eta eskaleretarik petik-gora heldu den argiak iatzartzen bezala nu. Ametsetarik ari bide nintzen : betespalak thorratu ondoan, ez dut ene aldean ikusten apez maigarriaren itzalik ere...

Nun othe dituzket ene lagunak ?...

Mailak tarrapatan behereraino jautsi gabe, baratzen niz

ezkaratzari so. Tipia da, bainan dena marbre churiz apaindua, eta begikoa osoki. Bat-batean paretan thindatu hitz batzuek jotzen dauzkitet begiak : eskuaraz dute jakinarazten hau dela San Inazioaren sor-etchea. Eta atsegin zait, atsegin handi, eskuaraz baitira. Doidoi, etchearen erakuslea eskuaraz mintzatu izan balitzaiku eskualduner, atzerritarrentzat idukiz erdara, orhoitzapen hobea baizik ez ginuken beiratu, hemen iragan minuta czin-ahantzizkoez.

Jauregi aitzinean atzemaiten ditut ene bideko lagunak, alde orotarar hasarre dabiltzala, nere berriz ikusteaz etsitucheak, erasiaka. Agertu nitzaieneko, hasperen batekin besoak hagatzen dituzte ortzalde¹, eta, berehala, komentutik athera gabe sartzen gira, zipuko gizaiduriaren gibeletik, arteka batean barna.

Hemen, bat bertzearen ondotik hiru neskatcha gazte, azkar eta eder, harat-hunat badabiltza, apezan ofizioetako liburu handi bati bat-bederak behakoa landatua, noiztenka kurutzearen seinalea eginez. Eretzearekin gu, begi larri beltz batzu eztiki zeharkatzen dituzte bizkitartean gu gunat, mundutar batzuei urrikalmenduzko agur baten kariatat. Serora-gei zombait ? dautazu eginen. Ez : bazterretarat behatzen dute. Beata batzu ? Ez eta : othoitzean neurritz derabiltzate ezpainak. Hiruak hiru sintsa, geroztik ? Are gutiago : buru-ahuleria mikorik badutela ez dirudi ; aitzitik, gogoa bizi-molde bati finkatua dute ezagun.

Neskatcha baten ethorkizunaz nor on egin ? Halere gogotik berme jar gintazke ama familiako batzu hautak izanen direla hiruak : emazte batzu berekin ukanen dituztenak osasuna, fedea, esku-lanaren amodioa, jakitatea, — bertze zerbait gehiagorekin oraino, hau baitzaiku nausi eta etchekandere gehienen gainerako itzala, herrian. Bere ohore eta edertasun berezia, halako emazteer ditu izan, bethi danik, zor gure Eskualerri maiteak.

Bi urratsez helduak gira komentuaren erdiko athe-nausi zabalerat. Azpeitiaraino hedatzen den planaderari so egoiteko tirriak erretzen gitu, bainan nola utz Loyola, eskerrak bihurtu gabe holako aroa eta hoinbertze gauza ederren ikusteko zoriona eman dauzkigun Jainkoari.

(1) Ortzalde : vers le ciel.

Sartzen gira beraz goipularriak estaltzen duen kaperan : komentuko Jesuista eskolemaileek, ichtudiantek, bai eta auzoek hau bide dute, goizetan, beren othoiztetako toki. Bagaude behin ichil eta geure baitan sartuak ; eta gero, orok gure begiak goiti. Ez luzaz haatik, ez baita zorigaitzez gain hartan miresteko deus handirik. Kapera biribil-biribila da, askitto nasaia, argitua izariz bere inguruko tenteen artean ohatzen dituen aldaretaraino, bainan egiaz arruntkiegi duela gapeluak hesten, arroltze-kusku baten idurirat. Bertzerik ginaukan kampotik Loyolako goipularria.

Laster itzuliak gira athe-aitzinerat. Mailadiaren hegian chutik elgar hunkitzen dugula, bagaude ittan bat Apeiztiaraino luzatzen den planaderari so. Zer ordoki ederra, erregebide leun beltz zabalak hausten duela erditsutarik ! Zer choko maitagarria Eskualdunentzat ! Beren hauturala lerro-lerro ibil ditazke hemen, herritar saildua othoiztuz, kantatuz bi bulharrez haren laudorioak. Gizon guti izan da lurraren gainean harek bezenbat eta halako kharrarekin gizoner lainkoaren hitza ezagutarazi nahi ukan duenik ; guti, harek bezalako sua piztu duenik laguntzara bildu zituenen bihotzetan ; guti, halako lanak lurreko eskualde guzietan egina-razi dituenik bere chedeen arabera ; nehor ez, bera bizi zeno bere erakaspenez langile bat argitu eta indartu duen nausirik, nola baitzuen egin harek bertze eskualdun bat : San Frantses Javierekoa. Bi sailduen alderako beila-toki da, geroztik, Loyola Eskualdunentzat.

Gozo zaizkigu gogoeta horiek, San Inazioaren sor-etcheko komentu-aitzinean. Baginagozken han luzaz, begiak aski ezin asez, noiz ere ohartzen baikira gure otoen sahetsetik jaun eta andre multcho bat zalu badoazila, komentu-hegiari lotua den etcheñoari buruz. Ardia ardiari bezala, gu berehala heien ondotik...

(1) Dembora hetan Portugesak, Europako bertze gizadi guzier aitzinduz, itsasez-itsaso helduak ziren Asiako hegiatarat. Bide nabar, Asiatik hurbil aurkitu uharteez jabetuak ziren. Hortik, salerospen handien bidea Portugaleko erresumarentzat.

Ordukotz Erroman zagon Inazio Loyolakoaren haimenarekin, Portugaleko erregek zuen bidali Frantses Javierekoa aipatu ditugun leihor berrietarat, Elizaren menerat bil zitzan bango jendeak, eta oiozbat portugés itsasturiak berak urrats chuchenean zitzan atchik (1541).

Eskualdun sailduaren fede suharrak harritzeko da zer ongiak egin zituen batzuei ala bertzeer. Ere mu handiak girichtinotu zituen.

Indietarik landa, Frantses Javierekoak jo zuen Philippinetarat, eta, bidez-bide, Japoniaraino.

Hemen bi urthe izagan ondoan, Chinarat zoalarik lan berari jarraikitzeke chedetan, suhar gaichto batek ereman zuen, Canton deitzen den itsas-porturat heltzearekin (1552). Berrogoi ta sei urthe baizik etzitzen.

IX

ZIRIKANDO

Bere luzetasun gehienez badu apiriko-azpi bat etcheño hunek, komentuko aitzinalderat idekia, begatza jasaiten diotena harrizko pilar batzuek. Alderdi batean ikusten ditugu zurezko mahain luche mehar bat, eta gibelego paretan itzatuak estaiera batzu, San Inazioz orhoitzarentzat salgei-zurruburu batzuek mukurru-betheak. Badute hok erosle, Senar-emazte batzu ari dira, harrapaka, gauzetan truk jendeari sos biltzen. Bertze alderdiak erakusten dauku kafe eta edari edozer zerbitzaren ohi dutela hemen, egarri ditazkenendako; barnachago baita etheko athea, ezagun ere da jatera emaiten dutela berdin, galdatuz geroz. Gaikeko estai bakarrean izan behar da orobat gambera andana, Loyolan berean etzan nahi luketenentzat. Itchura onekoa, bertzalde, ethea : dena harri pikatuz eta beltzaana, komentua bezala.

Ez egarri, ba egarri, ikusteko bagoazi jartzera mahain zabal baten ingurunerat. Eta ordu berean, ondoko mahain ttipi baten bazterretik erdi-chutitzen zaiku buru-has jaun bat, frantsesez erraiten daukuna : « Ene bihotz guzitik urrikari zaituztet jaun andereak. » Kopeta behekitzen dugu, harriturik hainbertze ausartziaz. Eskuin eta ezker, irriz hasi dira bertze batzu : frantchimantaren atheraldiaz othe, ala gure ahalgetzeaz ?

Zainak ernatu zaizkit : jaun horren mintzoa aditua duk hik berriki nunbait ?... Behatzen diot aurpegirat : eniz ordean orhoit nihun ikusirik gizon hura, nor ditaken etzait gogoratzen batere.

Zendako gituen urrikari, begiak n̄ir̄ir eta erkaitzak chimurtzen daizkola ezpain-chokoak, salhatzen dauku gora-gora :

— Badu oren-erdi bat, hemen jarri-ta edateko bat galdegin nuela. Eta behazue ene mahi-gainari !...

Huts-hutsa, latsaarri bat bezain berdina duela ez ginezoke uka, baina ez diogu erantzuten hitzik, gurea halaber egoitekoa ez othe denetz ez baikira orai fida...

Khechatzera goazineko agertzen zaiku beharrik emazte adinetako bat, zer nahi dugun galdez. Ikustekoa da orduan gure jauna : ahantziarena eginez edo ahantzia dela ustez, tokiaren gainean chiribolaka baita abiatzen urtchintcha baten pare. Jin-berri guzien mahainez-mahain badabil emakumea, etchekandere haundi baten urratsean, kasaka nabar luze batek jauntzia lepotik belaunetaraino, ile zuri beltz adaska lodi batzu buru-gibelean antze handirekin kurubilkatuak.

Noizbait ekartzen dauzkigu gure basoak, ur freskoz bethe garrafla batekin, bainan eskatu ginion hormarik ez. Nekez, arras nekez, diogu adiarazten horma-beharretan gintazkela bada, behar handitan.

Zonbait minutaren buruko, azita batean eskua bezain zabaleko horma-mokor batzuekin, emaztea berriz gure ganat. Bainan zerekin hauts halako peñak ? Gaichoak aithortzen dauku ez dutela etchean hortako tresnarik.

— Hau da, hau egiazki Jesuisten kafea ! dio bazterretik frantses harroak. Nahi dituzten sos guziak biltzen beren museoa erakutsiz, horma puchka baten kraskatzeko aldiz mailuchkarik ere ez ! Sakelak bethe ondoan, arrats guziez sorhopil huntan, gehiagoko deusen acholarik gabe, diren bezalakoek egiten ahal dituzten jauzi-putinkak ! Madarikatuen gatik, egarriarekin hiltzea luke hemen gizonak.

Chimichta-zarrasta bat orduan nere buru-muñetan. Zilatu dut azkenekotz mihi-gaichtoa nor den: kapera mozaikadunezko kanoia-
ren ondoan frantsesez elgarrekin hizkatu ginen gizon hura bera ! Mintzoaren otsetik dut zilatu, hala nola mintzairaren pollit arinetik.

Bitartean, horma-mokorren hausteak ez gitu den gutienik lotsatu. Ene bigarren lagunak, lurreko gizon ichilenerarik bat izanikan ere jeinutsua baita, bere makila ferratuari giderra kendu dio, eta burdin-gerren zorrotzaz ezteki zirringilatuz harri gogor hotzak, zapartarazi dauzkigu bederazka. Gero, edateko gochoa-
gorik hurrupatu ginuela nihun, ez ginen orhoit nehor...

Azkenean bada, zerbitzariak ekartzen dio gure aldeko

frantchimantari baso bat, ortzadarraren margo guziak nahastekutzen zaizkon edari batez bethea.

Behatzen dio jaunak begi pinpalet batzuekin. jastatzen du behin, jastatzen bietan, jastatzen hiruetan, eta zazpi debru batcan zintzurrari-beheiti sartu zaizkola erran zinezake, halakoak baitira eta hain bitchiak gizonaren ihakinak.

Bere ezin-egonaz urtchintcha bat zirudiela baikinion oichtian, orai mathel, begi, esku eta zangoen igitzetik chiminoa dirudi. Ez dakit zer bidez, Voltaire zenaren orhoitzapena heldu zait gogora. Haren ilobasoetarik bat ditake gure auzoa.

Jesuisten erakaspenari edo sinesteer berer sistako baten emaitera loake segur bere mihi ospinduaz, — bihotzean min egiten duten, eta sekula nehoi-buruz igortzeko ez litazken sistako hetarik, — noiz ere ene beribil-gidariak tinkatzen baitaut besoa indarrekin, bekuruntza gorri-samur dautalarik agertzen.



— Ez dezagun gehiago beha gizon horri! daut egiten bortizki. Ni, okaztatzen nu. Horra nolakoa den frantsesa : bazter guzietan gizonkiaren desohoratzeko tresna bat. Ergela baizik ez balitz, ez litake oraino hanbat arranguratzekorik; bainan gaichtoa delakotz bertzalde, da ezin-jasana. Harrigarriak dira bere mihi tcharraz, bere burujopeaz, bihurriaz, ihakin eta trufez, bere buruari lehenik eta gero bere herriari dakartzan kalteak. Horren gatik da bertze gizadi guzien artean gaizki ikusia. Bertzelakoak balitu bere bihotza eta egintzak, baluke doi itzal ; adimendu ernekoa dela aithor lezakete bederen, eta onets orok. Ikusten duzun bezalakoa baita, azpitik daukate eta apal. Bizipide herresta batzuetan hingatzen da ardunerik frantsesa. Erran behar ere da ez dela langile handia ; jarraikia, are gutiago oraino ; unhatzea ez du maite, aho-churia da, bertzeen enganatzea zaio guziz laket. Sinets nezazu. Amerika beheanean aski luzaz egona bainiz. Ez da erresumarik, Frantziak eskualde hartan bezain gizon egiazko guti duenik : koziner, ile-mozle, thindazale, musikari, tapizat-zale, dantzari, komediant, ostaler, azti, kazeta-egile, modista, horra zer ofizio zurruburuak dituzten frantses-umeeek han gaindi.

— Biltzen dute ordean sos ? diot galdatzen ene lagunari.
Ihardesten daut, nakaitz batekin :

— Irabazten dute ba, nahi baduzu, baina ez halako izigarririk. Frantsesa bainiz gisa batera, nola zuhau, ahalgetzen niz hoinbertzeren erraiteaz ; nundik halere gorde dezazuket komerzioko ala industriako giderrik hoberenak aspaldiskoan jadanik frantsesek galduak dituztela han beren faltaz ! Banketche handiak, halaber, bertzeen eskuko dira. Zer erran, orenen gainera, gobernioak bere ordain harat igorri gizonen ? Aleman, ipar-amerikano, angles, italiano, español kontsuletarik badu edozoin frantsesek argi eta laguntza gehiago, bere herritar aitzinekoetarik baino, hain baitira hok ardurenean fluchak. Bihotz-erdiragarri da, zinez ! Gerla hunen ondotik ez bazaio frantsesari bere kanaitatea ontzen, chahu da Frantzia ; alferretan luke irabazi gerla. Garbiki derratzut : frantses guzien artean, guk Eskualdunek dugu, denik ere, konfiantzarik gehiena Ameriketako jendearen ganik. Nungo nahikoek badakite hitzeko gizonak girela, aho-onekoak bana-bertze, garbiak lagunaren alderat, zu entzutea ohore bezain zu erraitea atsegin zaikunak ; goraki aithortu dute, bethi, lan gogorrenak ez gituztela lotsatzen, guk ditugula hango eremu zabaletan erein aberastasunaren bi azi baitezpadakoak, hok baitira laborantzia eta hazkuntza. Aita batek luken bihozminik handiena nuke, ene semetarik batek hartzen balitu aitzinean dugun pikabuztan horren mancrak.

Bere erasia luzeak akiturik, gelditzen zait mutu ene mintzolari sarkorra. Ohartzen niz makur erori ere dela azkenerat: nehorik ez baitzioken kasurik egiten, basoa husturik Voltaire-n ilobasoa elizako saildu bat bezain geldi dago eta ichil, orai, bere kaderan. Alha zaizko haatik begiak, nahiz eztiki. Ihizi on baten aurpegia daukalarik, etzait iduri halako gizon gaichtoa dela.

Zonbat aldiz ez ditut aditu ene lagunaren solasak, bertze batzuen ahotik ! Ez dira segur oro gezurrak. Bizkitartean, ez nute nihoiz hunki barne-barneraino. Gizadi guzien artean frantses gizadia badaukat lehen, bat ez baita harek bezalako adimendu erne eta bihotz ona mendez-mende erakutsi izan dituenik. Nausi da bertze guziei. Ohart ez zitezin, — eta ez dira ohartu nihoiz,

— nago bere izaitzeko zilar bizia deusek hobeki gorde othe zezoken achaleko zampailkeriak baino...

Banagoke oraino hemen gogotik oren bat, ene lagunek besotik ez baninderamate otoetarat. Nahi-t'ez igan behar dut. Jar-orduko abiatuak gira, azken behako bat emanik Loyolako komentuari. Azken aldikotz ez othe dugun ikusi zonbaitek ?...

Biziki argi dago eguna. Uste ginuenetik hanitzez goizago dugu. Emeki bagoazi, emeki, planaderan harat. Ezkerretarik, hunatekoan baino ederrago baizik etzaizkigu agertzen seroren bi komentuak. Nehor ez da leihoetarik ezagun. Gure aitzinean, elgarrekin elhe eta elhe badoazi oinez bi apez : bat adinetakoa, bertzea gazte hutsa, kasik haur bat bere lepo churi luche eta sorbalda hertsiekin. Urrats bakotch, bere sotana handiaren hegalkak zaflaka sartzen zaizko zangar meharren arterat. Jesuista-gei ichtudiant zonbait ? Behatu ere gabe aldaratzen zaizkigu biak, bethi beren solasari.

Gure gibeletik, beribil barnean, aditzen ditugu solas hauk :

— Hemen ez dute, Frantziako aldean baino gehiago, elizagizonak ichtudiant gazteer eman jauntzi egoki bat. Semenariotitietakoak, hasteko, gaztegi dira sotanaren erabiltzeko soinean. Etzaizkizu bichi, eta irringarri apur bat, holako haurrak beren jaka luzearekin ? Nola etzaioten aitzindariak gogoratu, ichter erditarainoko tunika bat aski zuketela, papoan floka beltch batekin ! Gapelua haatik, ez dut ikusten nolakoa zitaken begikoenik. Buruzagiek ichtudianten ama eta arreber galdegin balute bederen kontseilu... Apaintzeko zeretan, berez-bere gizonak deus ez dira.

..

Azpeitiako karrika iragan-eta, hartzen dugu ezker ; bainan, herriko etchetarik urrundu gabe, zubi baten ondoan horra nun elgarrekin hitzharturik bezala gelditzen zaizkigun bi otoak. Nor zen orhoit burdinazko zaldiek ere hatsa galtzen dutela azkenekotz, doi zaldare ez bazaiote emaiten ? Beharrik orhoit zituzten ba gidariak...

Ezantzaz zurrustan bethetzen ari zaiolarik berea, ene laguna, biderat jautsia, egundaino ikusiak ez dituen bi azpeitiar-

rekin mintzo da karraskan eskuaraz. Nun-nahi berehala egiten ditu adichkideak, erotik lotzen dela bihotzetik sakelarat eta sakelatik bihotzera doazin solaser. Gaitza da. Bekaizti nitzaio bere amarruarentzat. Bertze otoaren jabea, aldiz, bethiko ichil gogoetatsu hura, bere alkian. Lau andreak jarririk elgarrekin zoin-gehiagoka Loyolako ikusgarriez, ez baitzituzten — aithor dutenaz — hoinbertzekoak uste. Lauek osoki ahantzia dute Orreagoko harria. Burgozerat joaierik ez dute orai den gutienik gogoan. Nik ere ez mihian... Eta berriz abiatzen gira, mendea-lerat buruz chuchen, aldi huntan.

Bide ona dugu. Beude Gipuzkoarrak nausi bide-egiteko ; egin ondoan, ontsa atchikitzeke. Hunat igortzeke litazke, lanean ikastera, Frantziako kantonierak.

Gogoa arintzen daukute, bertzalde, itsas-aldetik zeruari gora iguzkiak botatzen dituen urrezko inar ahuldu gochoek.

Zelai hertsu, gichen batean sartuak gira. Bortz ehun metra zabal balin bada, gorenaz. Bazter-aire, bere luzetasun guzian gure beribilek bezala ibaiño batek kurritzen du, ura lodi eta barna. *Urola* ere du bere izena. Han-hemenka, laborari-etche bakar batzu, baratze on batzuekin aldean. Pentze-zolak berde agertzen zaizkigu, artho-alhorrak musker, belhar ala landare guziak hezean ditazkelakotz alha. Zelaiaren bi sahetsetarik bizkitartean, guziz eskuinetik, mendi-paretak larre, eta tokika harriraino larrutuak.

Zonbait minutaren buruko, erregebidearen ezkerretarik etche-lerro bat, luzatuz doana han-harat, urrunsko. Ez dugu galdegitearen beharrik nun giren, aficha zozo batzuek erakutsia baitaukute. *Cestona*-ko hiriñoan gaindi bagoazi, alde orotarar beha, hanbatenez begiak erneago non frantsesek toki hau irriz jokutzen ohi baitute, diotelarik : *Cestona, le Vichy espagnol!*

Ene lagunak eta ni ez gira den gutienik jostagura, harrituak baikaude hamabortz urthe huntan hiriño hunek, handitzera ez bada, edertzera egin duen jauziaz. Bidetik barnachago, itzalpe batzuen giblean, ikusten ditugu bai hôtélak bai ur-onen hartzeko atherbeak beren pareta churiekin, leihoak berriki gorritz thindatuak, lorez apaindurikako askaño batzu erran baitzinezake behereko hegitik badatchizkitela dilingo.

Badakigu bertzalde zer gibelondo ona duten hemengo urek. Medikuri jakintsuenak alde dituzte. Ezagutuak dira bazter guzietan. Eta zonbat bertze ithurri-mota ez dute chokoetan Gipuzkoako, Nabarreko, Bizkaiko, Arabako lurrek, elgarren lagunak oro ithurri hok, osagarriarentzat ezin hobeak, ezin hobeak asko gaitzen sendagailutzat !

Cestona-ko zelaia bera da hertsiskoa, Vichy bezalako hiri bildu baten egiteko. Aithortzeko ere dute Gipuzkoarrek, ez dutela orai artean burua hanbat berotu hemen, hargintzako ala zurgintzako edergailuetan. Murrizak dira, lantze ttipikoak, berdinegiak, hotz eta motzak beren loreen gatik, Cestona-ko hôtélak Vichy-koen aldean. Eskas ditu bertzalde toki hunek Vichy-ko itzalpe nasaiak, sar-atheratzeko burdin-bideak, eta naski jolas¹ ala josta-lekuak.

Durduza batek hartzen gitu bizkitartean, karrika luzearen harateko buruan ikusten dugularik, bere eliza apalarekin, lehengo herri zaharra. Askitto zabal emaiten du ; etcheen kantoinetako nola athe, leihoen inguruetako harri pikatu beltzaan dorpeek, pareta histuek begia jotzen daukute, beratzen bihotza. Hor bizi izan ziren orai bizi direnen arbasoak, langile antzetsuagoak bere heinean, hek, oraikoak baino. Sail berari jarraikiz, ara beretan thematuz, semeak aitaren eskuan bere eskua, zendako ez dute bada ondokoek arbasoen herria toki berean ederragotuz goititu, zendako bada ez lezakete oraino goiti ?...

Gure auhenez acholarik gabe, beribilek tarrapataka bagermatzate bethi mendealeratago.

(1) Jolas : sport.

X

ITSASOA KUKULAUKA

Bihurtzen gira ezker. Bide puchka baten buruko, patar ezti batzuen ondotik, itsasoari arras hurbil, bainan itsasotik lur-hegi gorasko batek maldatua, agertzen zaiku haran bat ezin pollitagoa. Eguerdi-aldetik iparrera dago, erregebide handiak luzerat hautsiz.

Erregebidearen harateko bazterrean, ditaken herririk begikoena : *Zumaya*. Ez goazkio bizkitartean ikuskatzera. Aski zaiku, emeki hartzen daukutelarik otoek ipar-alde, jakitea zer tokitan duen eta nolakotsua bera.

Herri bildu-bildu bat, *Zumaya*. Pentokaño baten gainetik eliza zahar eder batek ospetzen du, zainduz. Itsasotik beirutzen duen lur-hegiak badu arteka bat, legartzaraino heltzen dena, bainan itsasorik ez da zorigaitzez ezagun.

Haranak zola-onekoa emaiten du. Jin giren eskualderat ez du bizkitartean lur-mendoi batzuez bertzerik, hok iuzpegiratago eta elgarren ganik hurbilago, mailez-mail gorago ere ba eta idor-rago ; zer bazka finen ez ordean jabe !

Herriaz guziz zaizkigu alha begiak. Nun, gabiltzan eskualdetan, etche churi hobeki atchikirik, nun etche-bilduma maitagarriagorik ? Haran-chokoan, elgarri tinki dagozi, mendiak ez itsasoko uhinek ezin hertsatuzkoak neholere. Baditake haatik, berdin, tenore huntako egun-argi eztiak diren baino pollitago dituen egiten.

Maite dugu orok *Zumaya*. Errana daukute hor bizi izana dela hanitz urthez, omonier, Domingo Agirre apezza, eskualdazle aipatuenetarik bat. Nolaz etzuken izkribatu liburu ederrik, holako tokian ? Gizonak zoriona ez aurkitzekotz hemen, nun aurki ? Eskuarazko liburu eder batzu egin zituen bada, eta argitaratu, apez on jakintsu harek.

Badira hiruzpalau, urrea balio dutenak. Damurik oraiko gazteek guti dituzte maite eskuarazko liburuak ! Damurik, bertzalde, gira Eskualdunak hoin ezazol eta hoin zozo, gure arbasoen

mintzaiaren alderat ! Damurik, oraino, hoinbertze aldasketarat da abartua, sasitzerainokoan, gure eskuara zaharra !

Dena den, antze handirekin mozkindu zuen Agirrek. Bizkaiko eskualkian berdin trebe zen nola bere herrikoan, ez bazen trebeago. Bizkaitarrez ez othe duen ere erakutsi zain gehiago, eta gemen indartsuago bat ? Laborariez eta laborantzaz egin du gehienik solas, itsas-arraintzariez, eskualdun zaharren oitura ezin-shantzizkoez, oraiko bizipide berri batzuez, lehengo eskualdun sailda batez. Nehor ez da hura bezain gizonki mintzatu eskualdun emaztekiak ; nehor, neskatcharen bihotzean sor ditazken sendimendurik ederrenez.

Bada, egun batez Euskaltzaindiak deitu zuen bere ganat idazle bikaina. Joan zen Agirre, bainan laster etcherat itzuli ere ba hura : ohore chumeenek izitzen zuten gizagaizoa. Etzuen onik bere Zumaya maitean baizik.



Harrigarri da etcherat buruz zoin erne dabilzkigun gure zaldiak. Patar kotsua gora-behera, haranaz-haran eremanak gituzte jadanik zelai idorsko baterat. Hemen, etche berri pollit banakatu andana bat.

Ohartzen gira badituztela, artetan, moda zaharreko egoitza azkar batzu, paretak zuri, harri-pikatu beltzaan desbardinekin leiho-hegietan. Ordu berean, aire fresko gaziño bat hautemaiten dauku bat-bederari sudurrak. Botz eta erne, hatsa hartzen dugu orok bulhar-bethez. Itsas-hegitik arras hurbil gitazke, Zumayan ginen baino hanitzez hurbilago. Izaitez, *Zarauz*-en sartzera goazi.

Lehenbiziko oto gurea, Tolosako kaskañoak zentzaturik edo, aitaso baten urrats zuhurrari jarri da tanpez ; bigarrena badarraio gibeletik, berdin eme.

Bitchikeria ordean : berriz etzaikuia, berehala, bidea bihurtzen ipar-alde ? Itsasoa ez othe dugunez, hemen ere, ikusi-gabe utzi behar ?... Hala luke iduri, behin. Karrika zabal, luze, ia bezain chucheneko bat dugu aitzinean.

Begi-ukaldi batez ikusia dugu dena, bururen-buru. Gogorki ederra da, nahiz bi bazterretako etche-lerroek baduten guretzat

halako pisu-aire bat. Athe ala leiho-inguruetako harri pikatuak gaitzak dituzte ; balkoinez brokatuak dira aitzin-pareta gehienak, eta ez dituzte baitezpada arinak, dela beren harrizko-zolaz, — airean gogorki baita ere azpitik atchikia, — dela beren burdin-grilla lodiez. Hegatzak, bertzalde, erdirategi zaizkote zabaltzen karrikarat buruz. etche zonbaiti.

Aithortzeko dugu, bizkitartean, azpitik ezagun dituzten gapirio ozkatuek durduza bat emaiten daukutela, hiriaren alde.

So batez hartzearekin guzia, karridak badu zerbait, gogoeta gauzkazkena. Ahaldunak zituzken egileak ; iraupenaz grinatsu zitazken ; chedeen araberako zituzketen jakitatea, ederrerako jaidura, tokiaren amodioa, beren eta ondokoen ontsa-nahia.

Ez diogu luzazago behatzen hargatik ; ez dezakegu. Ezkerretarik, chuchenerat, sartzen zaizko karrika labur batzu. Behin, bietan, hiruetan, chichitez ikusten dugu itsasoa, aditzen ere ba hunen burrumba ilhun eztia ; bertze hainbertze aldiz, alaitzen daukute bihotza etzatera doan iguzkiaren urrezko-iñarrek. Bozkario handi batek gainditzen gitu zazpiak. Gizon, emazte eta haur andana bat baitabiltza karrikan alde orotarat, itsasoaz den-gutien bat gozatzetik dukete segur hek ere beren zangarretako bizitasuna.

Bainan zer uste-gabeko bihotz-chimikoa : karrikaren harateko burutik zonbait ehun metra egin orduko, etzaikuia bat-batean itzaltzen itsasoa ! gogotik eta luzaz oraino, urrunsko danik bazen urrunsko danik, guziak beha egoitera ginoazkion Ameriketarako itsasoa ! Haran batean sartuak gira orai ; ezkerretarik, bizkar gorasko batek dauku estaltzen, ikusmenean izaita hainbertze atsegin ginuken itsaso zabala.



Dagola bada gorderik ! Chichitez baizik ez badugu ere ikusi, ikusi dugu ; labur bazen ephea, laburregi, ikusi nahi ginuena ontsa dugu ikusi, bihotzak lagunduz.

Ez gagozke ichilik. Elhasturi bat gaitza jauzi zaiku orori. Bazterrari ez dugu gehiago eskerrik.

— Etzen samur itsasoa. Gocho-aldian zen. Haizerik ez, bero, uda mina, zertarik edo hartarik, jabal zagon.

— Errazu uste duzula. Ditazken dirdira gaichtoak oro bazi-tuen urak ; guneka, berdaatsa eta lohia nausi. Bera igitzearekin, — hemen ohantzetzuz, haratchago bizkartuz zorrotz, — orozbat zitzaizkon igitzen bere kolore likits guziak, eta batzutan nahasten. Badira andre batzu begi-niniko argia hola-holakoa dutenak ; ez niri erran andre hek direla leialenak.

— Zaude othoi ichilik. Iduri-ta gizon batzuek ez dituzten begi berak, andre gaichoak baino miletan maltzurragoak baitira gizon hek !...

— Eta gero, ohartu ziretea uhin heier ? Ehun metratik ehun metrara, bizpahiru altchatzen ziren batean, kukurusta gora. Orroaz eta haguna burrustan zariola, bat-bedera chutitzen zen bertan pareta zabal baten idurirat, eta, erho bat bezala oldartua, zipoteka aitzinatzen leihorrari buruz. Beharrik Jainkoaren eskuak zapatzen zun bere aikatze sorjesean ! Laster, goitika izigarri batzuez barnetik hustuz zoan. Sabela ethentzen zitzaion, hausten gerruntze konkortua, mustupiltzen bere aurpegi oiesa, burbutzika zartatzen bere soin aberea. Azkenekotz, lehertzetik ahuldua, izurrak izurraren ondotik mehatua, hats-bizi, legartzaren gainerat hura bera zen milika tchar batean ahospez hedatzen. Eta zarraiz-kion guziak berdin, bakotcha bere aldian.

— Iguzkiaren perekak zituen hola ematen uhinak ; iguzki-rik izan ez balitz...

— Sinets nezazue : Kantauriako itsasoak chede on guti dakar berekin. Eremita osoak baditu ja iretsiak. Irete ez ditzazken arkaitzak berak, bere ur gaziaz zafratuz emeki-emeki gesaltzen ditu. Mendetik mendera Eskualerriari eremanak daizkon ahame-nak ! Luzara itho beharra du guzia.

— Gu, hasteko, ez gITU egun atzemanen.

— Hobe ginuken, gaua ereman baginu Zarauzen berean. Hain chuchen, bada hôtél bat hauta, legartzari dagona. Itzul baginte ?

— Gau batentzat bakarrik, zendako ? Bizpalau asteren-dako, nunbait hor. Gerla-aitzinean, Espainiako haundi-maundiek Zarauz-rat udako jitea laket zuten ; frantsesek ere ba, bainan jende bier-artekoa zen guziz, Frantziatik haratekoa. Bere itsas-

hegia ttipisko izan gatik zabalerat, hirichka pollit bat da Zarauz, eta ikusgai hanitz baduena, ez balu ere Espainiako aberatsen ospa baizik erakusteko.

*
**

Otomobilaren barnean, ene lagunak hasiak ditut berriz itsasoaz mintzatzen.

Sartzen niz, nihau ere, solasean :

— Aditu zaituztet. Bi begiez behatu diozue orok itsasoari, baina ez da zuetarik bat, ohartu denik zer ere baitzuen espantagarrienik eta hari.

— Ezetz ?!... Zer zen bada ohartzaren mirakuluzko hura?

— Odaiertzean, urrutirat, ezagun zen erresuma bat gaitza, nihun ikusten ez den bezalakoetarik. Ametsetarik baizik etzaiku halakorik agertzen. Etzen ametsetakoa bizkitartean hura ; zinezkoa zen.

Uraren gainetik goititzen zen, eta heltzen zeruraino. Osoan hartuz, iduri zuen elhurrez egina. Baina bazituen hiruzpalau mail bederen, bat bertzea baino zokorat sartuago, eta mail bakotchean ageri ziren han-hemenka itzalgune batzu, guti edo aski beltzak : erresuma hartako herriak edo hiriak, behar bada... Goien-goienan, nun ere baitzuen hunkitzen zeru urdina, erranen zintzen elhurra harro-harro zela metatua, meta bakotchari zatchikola kukula zuri, biribilean ozkatu bat.

— Hauche da athermaldi erhoa ! Lanho tzar zurpail batzuek hola dauzute kaskoa berotzen zuri ?...

— Lanhoak ?!... Nork daki lanhoak direnez ?... Eskua suan eman zinezake hedoiek bakarrik dutela egiten, dezaketela egin halako erresuma ?...

Ori, nahuzu jakin ene barneko berri ? Ene ustea da, ene sinestea, hari luzaz so egonik zirela noizbait abiatu itsasoz-itsasogure arbasoak. Hauk bethi joanki, joanki bethi aitzinago, eta hura bethi haratago gibelatzen, baina bethi bere tokian halere eta bethi berdin eder ; egunetik egunera zoragarriago baizik ez, izaitekotz. Ez dakit behinere kausitu ahal ukan zuten gaizok ;

dakitana da kausitu zutela bederen Ameriketako lurra. Etzen hau lillurazko erresuma bat, ala ba ?

— Zozoen lerrorat, alegia hori entzunik, nahi gintuzkezula gure oldez erortzen ikusi, aithorrazu bederen ! Guk gure aldetik aithortuko dauzugu ez dela arras egiarik gabea zure alegia.

— Alegia edo egia, ez du deus ederragorik Eskualerriari oldartzen den itsaso handiak, erran dauzuetan erresuma baino. Zagozkiote luzaz beha bertze aldi batez, Biarritzeko dakizuen hegi batetarik ; gogo bereko izanen girela orduan, hitz dauzuet. Zernahi izan dadin, Mediterranea deitzen duten itsasoak holako erresumarik ez du bere uhartzean, hedoiezko erresumarik ez bertzerik.

— Mediterranea ezagutzen dugu guk ere. Hura itsaso gocho, maitagarria ! Lau dago eta naro bere hedadura guzian. Bere hedadura guzian, halaber, urdin-urdina da.

— Urdin-urdina, ez ; osoki laua ere, ez. Urak, bere aitzingibelka ezin geldituzkoan nun-nahi egiten daizkon izurren hegiak, erran zinezake zilar-biziz dituela.

Zeruak aldiz bere urdina sotilago du itsaso haren gainetik, chichteaz agertu zaikunarenetik baino.

— Chuchen mintzo zira. Abantail horiek ez ditut ukatzen. Aithortuko dut Mediterranea osoki karana zaitala. Lehen ikusaldian berean bildu ninduen.

Ez dakit zendako maiteago dutan, halere, Ameriketarako itsasoa. Odolean dut hau ; gogoratzeak berak harrotzen dauzkit zainak.

Eta zuri, ameslaria, zer zaizu ?

— Ni, iduripen bereko nintake, gazteago banintz. Oichtiko erresuma haren ondotik banindoakela suhar, ez ahal duzu dudarik ?

Zahartu bainiz, ez dakit ez nukenez orai maiteago Mediterranea. Leihorretik bizkitartean, bere ontasun eta lillura guzien gatik.

Inguratzen duten lurrek dituzte hazi, jakintsuen arabera, gizonen artean izan diren gizonenak. Gutiak baziren ere, mires-

ten ditut ziren gutiak. Egiaren ondotik erabili zituzten bada, hek, beren urratsak. Jainkoaren oldez, Legea amestu zuten, eraiki, jarri beren eta lagunen arteko. Hek daukute erakutsi, jakintzarako bidearekin batean, zuzenarena ; hunen ondotik, eta datchikola, ederrerakoa. Hekiei dugu zor, baitakigu zer den *neurria*.

Erakaspena ez ginezoten ahantz nihoiz, itsasoaren hegi batean, mahain bat bezala ordokitzen den arkaitz gora baten gainean, utzi zaukuten beren deia eta beren manua, marbrezko tente batzuek alde orotarik hegatza jasaiten dioten templo baten itchuran.

Urrundanik erran omen ginezake urso churi bat, bethiereko han pausatua.

Oichtiko ene erresumaren ordain, geldi bekit urso hura.

XI

BERTZE BIETAN AGERTZEN

Gain-behera luze bezain ezti batek bageramatza chuchen bertze herri bildu-bildu, pollit batetarat. Embil aita seme pilotariak hemen direla bizi nik erran orduko, ihardesten dautet bertzeek : *Orio!* Bi oren lehenago iragan bagine, plazaratu zitzaizkikedan ene lagunak, ikusteko « joko garbiaren » aldezkari biak han othe zirenez. Aithor dut jarraiki nintzaikeela gogotik, beso zalu, chuchen, eta indar-neurri onekoa baitute bai aitak bai semeak.

Badugu bertzalde zer ikus, gure bideari goazilarik. Ohartzen gira Bilbaoko olhentzat adailu bereziak egiten dituen fabrikari. Etzen segur hoin handi, gerlako lehen urthean. Aitzinparetatik hitz larri batzuek iragartzen daukute, han moldatu adailuari sua ezin ditakela aiber. Ez balakite orok, guk bezala, ez dela adailunik su-gar biziskoarentzat guti edo aski minbera ez denik!

Behinik behin, olhetako labeak berotuaren ariaz barnetik erreak eta janak izaiten ohi dira hiru ilhabetheren buruko. Azken gerlaren ondarrerat, lasterrago ere ez othe ziren kaskailtzen? Berri-berritarik egin batzu aldean badituzte beharrik ordaintzat, andeatu direneko. Horrela, lana bethi aitzina badoa, Bilbaon eta... Orion.

Burdin-bide bat sartzen da delako fabrikaren barneraino. Aldeanbertze iragan orduko, agertzen zaiku Oria deitzen duten ibai polita. Apur bat zabaltzen da aipatu fabrikaren gibelean, hunc ukan ditzan, geiez bethetzeko nola etekinatarik husteko, bi errechtasun : bat burdin-bidez, bertzea urez-ur. Erregebidea behar-orduko, hirugarren, Ederki.

Ephe berean, arteka batetarik, ibaia ikusten dugu sartzen itsasorat. Gure loria itsasoaren begiztatzetik bigarren aldikotz, erran dugun bizkarrak Zarauzetik hunat gordetzen baitzaukun! Bainan, agertu orduko, egundaino bezala itzaltzen zaiku, egundainoko bizkar konkor luzeak gure sahetsaren parrez-par kukutua. Ikusi diogu haatik, nahiz doidoi, belazko untzichka bat, uhin

gaichtoetarik landa eztiki zalantzatzuz han-harat zoana, urrun. Gutu bada guti, zonbat atsegin eman daukun guti horrek, nola adiaraz?

Burrumban badoazkigu otoak mazela batean harat, bethi iparrerat buruz, Eskuinetarik, harana badarraikigu luzatuz, bainan zabaldu gabe hanbat, konkor berak erakusten dauzkigularik mendi-alde. Estaltzen duen bezenbat du apaintzen belhar chehe batek. Sagardirik ez dugu bizkitartean ikusten. Adituaren adituz, uste ginuen Gipuzkoa sagar-ondoaz landatua zela guzia! Ontsa nahi ginuke jakin nun egiten diren bada sagarno gozo, ezti, ahotik ezin-utzi hek, Normandiakoak heien aldean ez baitira pitar batzu baizik.

Eskualde huntan, Gipuzkoako urgulu bakarra erregebidea ditake. Erdian bezain berdina da eta leuna bazterretan, sahetsetako arlaraino. Izerdiño bat badario bere azal beltzetik, iguzkiaren beroak jauzarazia. Nun holako biderik Frantzian ?

Zuhatzik ez du bizkitartean, doi itzal emaiten luketenik bidezkiaren gozagarrizat. Urrun othe gira bada oraino Donostiatik ? Ez dut uste. Eta orhoitzeak berak atsegabezen nu.

Garbiki erraiteko, ez dut maite Donostia. Aspaldiskoan, urthetik urthera ttipitu zait, ez bakarrik hiriarenzat naukan amodioa, bainan oraino tokiaren beraren alderakoa. Iduri zuen hunek ohantze bat lehen, laborantzako alhor bat, baratze bat kasik. Itsas-aldetik, dakizun bizkar konkor harek berak beiratzen zuen. Ez osoki, haatik ; arteka batetarik uzten zuen itsaso-muttur bat sartzera alhorreraino, zabaltzera ere ba apur bat, eztiki. Arteka haren erditik chutitzen zen mendoi kazkar arkaizdun bat, iduriz itsasoaren oldarra hobeki hausteko oraino. luzpegi ala eguerdi alderat, lerdoin gorasko batzuek inguratzen zuten, mailez-mail bat bertzea baino larriago.

Orai, baratze, alhor, pentze, iraztor, bazka-leku hek, dena etche dira. Egoitzetako harri lantuek dituzte estali. Badela egoitza ederrik ez dut ukatuko, bainan arras gutiak dira begiarenzat bezala adimenduarentzat eder direnak. Gehienek badute eskas bat : arimakoa.

Egileek beldurra dut etzakiten Olerkia zer den. Erosoan bizitzea, ba ; ez ordean, zeru-alde noizean behin gogoaren aira-

tzea. Mediterranea etzuketan ezagutzen; Grezian gairi etzitazken ibiliak nihoiz.

Gaur den egunean, arruntago baizik ez da bilakatu jendea, han nola bertzetan. Metaka sartzen da atzerritarra. Aberasten duke tokia, bainan ez hobetzen. Aberastasuna ez da aski, gizonaren ontzeko. Ardurenean ez othe du apaltzen, bizizale zuhur eta geroago lehiatsuago batetik eginez gozazale iztil bat ?

*
**

Herri handi eder bat aurkitzen dugu bidean : *Usurbil*. Eder eta handi bezain aberatsa izan behar da, bazter zabala du eskuin alderat. Ez gira baratzen. Uste baino urrunago kausiturik Donostia, gure otomobilen gidariek akulatzen dute zoinak gehiago bere zaldia. Aurkintze huntako laborantzak ez du bertzalde deus, so gagozkiokenik.

Kilometra andanaño baten buruko, gure ezkerretarikako bizkarra goratzen da, mendichka bat egiterainokoan. Ohartzen niz hunen gainean eraikia den hôtel handiari. Begien aitzinean dugu geroztik Igueldo deitzen duten mendiñoa ; helduak gira Gipuzkoako hiri-nausirat.

Huna, zolan, hiriko karririkak ; huna, ezkerretarik, itsasoak berriki ginion artekatik hiriraino sartzen duen muttur kamutsa. Itsasoa bera ez da zeharka baizik ezagun, bere mutturraren erditsutan chutitzen zaion mendoiak erdi-gordetzen duetakotz, chuchenetik beha legokeonari. Huna oraino, gure eskuinetarik, lerdoin batzu dena jauregiz estaliak ; hotarik ederrena lehen mailean, gorrats, luze, itzalpe batzuekin harateko aldetik : erregeren eta hunen familiaren udako egoitza.

Trambiek, otomobilen ugariak, oinkarien usuak, alde orotarik beharrietarat heltzen zaikun burrumba bitchiak, hiriko zer guziek, hots, erne baino erneago ezartzen gituzte eta orozbat erabetzen. Gainera, soldadoz eta hirizainez ebroa etzaikuia atheratzen zoko guzietarik ! Chuchen ibiltzeko duke hemen gizonak, nor-nahi izan dadin.

Hiriaren erditsutako karrিকা-bazter baterat lekuratzen dira gure otoak. Berehala jausten gira, bainan ez oro chede bereko.

Beransko izana gatik — zortziak eta laurden da — itsas-mainu baten hartzeko, ene lagunek nahi dute egin legartzarako itzuli bat bederen. Jende hanitz ikusiko dutela han, iduri zaie. Aithor dut biziki egun-argi dela oraino, nahiz iguzkia bere osoan itzalia ditaken. Bainan, ene lagunekin berekin bada ere, harat-hunat hortako gogorik ez dut. Akitua nizalako estakuruan, banago bakarrik.

Izaitez, erabeak nauka legartzarat joaitetik. Goainditzen nu hango nagikeriak ; ez dezaket jasan, itsasoari ertara beha dagozin zonbaiten aberekeria. Zitzi eta mami, papo eta gibelalde ozar sobera dakusketalako izia larru-barneari datchit.

Urrats zonbait egin banitza karrika-bazterrez... Ikus nitzazke eta adi eskualdun zonbait. Gelditzen da oraino hotarik multcho bat Donostian, atzerritarrek ezin ithoak. Ezagut-errechak dira begitartetik, mintzotik, ibileratik ; lerden, ginari eta zail, gogoz bezala mihiz osoki herrikoi, beren odol garbia ageri dute giza-seme hek. Bainan eriondo, uste baino akituago ere ba, nekez nabil ; alki baten hunateko buruan jartzera banao.

Jende guti, karrikan. Hirizain bat urraska dabil, etcherat joaiteko tenorearen beha hura ere, naski. Jarririk nagon alkiaren harateko buruan ohartzen niz haatik badirela bi gizon, eskuaraz mintzo direnak. So banagote : poneta buruan, ontsasko emanak, Lapurdiko botiges batzu izan behar dira, edo amerikano ttipi zonbait. Alde orotarat derabiltzate begiak. Khechusko dirudite. Zeren aiduru othe dagozi ?

* *

Hor, karrikaren bertzaldetik, hurbiltzen zaizkote bi gizon. Eta, erdi eskuaraz, erdi erdaraz, hasten dira elgarrekin lauak :

— Hôtela bethea zen. Zortzi egunez ez da egitekorik deus. Ondoko zortzian behar bada, izena aitzinetik emanetz...

— Hanbat gaichtoago. Luze doakegu hola, jaun haren ikustea.

— Zer nahuzu, mediku handien mintzatzea ez da nahi delarik. Eta hunen heinekorik ez da orainokoan agertu nahun. Magnetismoan du bere segetua. Eta nor da bertzerik, horrek bezala dakienik magnetismoa zer den ?

— Errazkizu direnak oro. Ez derabil magnetismoa bakarrik. Elektrik'orraz gorritu batez du sudur-barnea toki batean edo bietan erretzen. Han aldaskatzen den zain batetik doa gure osagarriko gora-behera guzia. Mediku horrek du atzemana zer hori. Ohartzea bazen zerbait ; zainaren chuchen kausitzea, hori da, hori handi ! Hain da trebe jarria lan hortan, non bi begiak het-sirik kausitzen baitu zaina.

— Eta, segur, sendatzen dituela guziak ?

— Oro choratuak doazi gibelerat. Munduko bazter guzietari¹ abiatua du trumilka jendea. Bakotcha bere aldian baizik ez dezake haatik ikus ez artha, naturalki.

Loriatua nago ene alkiaren gainean, ene errangura guzietarik sudur-erretzerik gabe orai beretik sendatua, ni. Lanak ditut bizkitartean irria ezin atchikiz. Hogoï ta hamalau urthez gaztetu nute, aditu solasek. Ducla hogoï ta hamalau urtheren ingurua, hola-hola Frantzian mediku jakintsu batek eri *batzuei* erretzen ohi zuen sudur-barnea. Zainik etzuen ikusten bizkitartean harek, eta ez du nehork egundaino ikusi, ez baititake ikus elektrikargiarekin ere.

Oinhaze hanitz gabatzen zuen ara hortaz, bainan zonbait egunendako baizik ez. Berriz agertzen ziren gero, berdin samín. Sendatze labor horiek ere, emaztekiekin zituen ardurenik.

Noizetik noizera, bertzalde, astmatika batzuei ederki bakantzen zerauzten aldigaizteak ; bakar batzu alderat sendaturik gelditu ere zirela, diote.

Horiek ba, gehiagokorik ez haatik. Donostian, holetan, bertzela dabiltza gauzak eta gehiagokoak dira. Erran behar dut frantses medikuak haro guti erabili zuela aitzinetik, gutiegi segur. Oraiko mendeak haroa duke nahi.

Ene lau gizonak, guziz bi jin-berriak, ez dira espantutik athertzen :

— Aberastua da jadanik. Nork daki zonbat miliun badituen irabaziak ? Jende beharrentzat urririk ari delarik bizkitartean, bainan jende beharrentzat bakarrik.

— Izena eman, eta hôtelean sartzea, hôtelean egoitea dukezue hoberenik. Jan-edanak eta oheak onak dira. Eta aldiaren beha egon, bakotcha zuen gamberetan ! Hanbat gaichtoago,

aldia ebatsiz medikuaren aitzinerat agertzen denarentzat : bertze zortzi egunez berandua zaio, hari, operazionea.

Ikustekoak dira ene bi lapurtarrak : begiak handituak, ahoa chabal, bertze mundu batean dira oraikotz bizi.

Deus handirik ez balin bazuten, elhe onek jada sendatu-hurran dituzte. Zinez eri balin baziren, hala ez iduri gatik, sendatzeko esperantzak arintzen derauete gaitza. Joanen dira segur hôtekerat. Nolako astea ez dute han iraganen, zain eta odol osasunerako segurtamenak egunetik egunera jabalduak ! Sudurbarnea delako orratzak erre ondoan ez badira ontzen arras, hobe-kitu bederen direla usteko dute. Bizitzen badira luzaz eta zahartzen, zonbat aldiz ez dute errepikatuko beren ondokoer, gosta bazen gosta mediku haundi batek zituela salbatu behin Donostian !

Eta medikuari berari zeren gatik ginuke aihertzeko ? Zendaiko litzaizkioke lagunak bekaizti ? Bizpahiru ilhabetheren buruko eroria izanen da, utzia bazterrerat, jendeak alda maitez labur baitu ezagutza. Anartean ahur-bethez aberats dadila beraz, ahal badu, Donostiako sendalaria. Barkatua izanen zaio gogotik : dirua baino gehiago ez othe da, eta osagarria bera baino ere ez orobat, esperantzazko amets gozo, ederra ?...

Ene alki-lagun gaizokein banagoke aitzina gogotik, emeki-emeki hek bezain haur bilakatuz ; gibelerat heldu zaizkit ordean, aztalez-aztal, legartzarakoak. Aurpegia hits dute, elhea bakan : ez omen dute ikusi nehor, ez deus, legartzan. Banuen beldurra.

Bigarren otomobilaren gidariak aihortzen dauku, bertzalde, berearen mekanikari hauteman daizkola, Donostiatik hurbiltzean, hats-bahidura batzu gogoetagarriak. Galtzen dut han berean ene barneko gozoa, egun guzian ukan dutan hoberena ; chutitzen niz kezka saminetan. Bagoazi bi lagunak otoaren ganat. Ezagun du ba motorrak, nundik duen bere makurra, kasketarena ez badu ; bainan ez dezokegu neholere chuchent, eta abiatzen gira berriz, nihoiz baino eztikiago aldi huntan, Jainkoaren menturalat.

Ehun bat metretan ibai zabal, naro, polit bat, izaitetz baino izenez maitagarriagoa oraino : Urumea. Bainan zeren gatik *umea* ? Zoazi zu... Zubi eder batetik harat bagoazkio gainez-gain. Norat doaken ibaia begiak luzatzearekin ezker, huna bigar-

ren aldikotz agertzen zaikula, bainan agertzen eremu handian, itsasoa. Noizbait bederen gaitzin ase haren ederraz !

Galdua du ordean, zorigaitzez, bere edertasunik handiena. Iguzkiak egiten zion, eta, iguzkiak zerua argitu arau, zeruak. Itzali baitzen iguzkia, eta ilhunduche baita zerua, ur pulumpakari, gordin, hotz, burumbatsu izigarri bat baizik ez da orai gure itsasoa. Graziarik ez du, Uhinik etzaio goititzen ; talastatzen da : indarrak berak ez othe zaizkon ttipitu ? Ez diogu eskernik, ez delakotz gai. Beharrik laster gordetzen dauku « Monte Ulia » deitzen duten lerdoin gohorrak ; huni daude ordainez estekan gure begi, bihotzak. Gau on zure ohantzean, Donostia !

XII

GAUAZ

Ez gira bizkitartean oraino hiritik atheraiak. Nola luzatzen den ipar-alderat Donostia! Eta zonbat egoitza eder ez ditu hemen ere, eremu handian hedatuak! Gipuzkoako hiri-nausia ez ginuen uste hoinbertzetua zela azken urthe hotan.

Atsegin dugu karrika-bazterren luzara argaltzen ikustetik. Banakatuz doazi etcheak. Bihi bat ez dugu haatik aurkitzen, eskualdun egoitza zahar edo zahar-berrikatuaren itchura duenik. Berriak dira guziak. Eta bizitegi bezenbat lantegi ez othe den, gaude : athe zabal gaitzak dituzte hanitzek, leihoak ugari — han-hemenka burdin-zirrituekin — eta teilatu gorriak zelaisko dira ichurkiz. Eskualde hau dukete industriaren lekutzat hautatua Donostiako ahaldunek.

Renteria-n harat bagoazke, ohartu ere gabe Donostiatik zedarritzen duenez deusek herria. Bidea marratzen duten tram-biek bagauzkate luzaz, utzi dugun hirian-gaindi goazkelako ustean. Halaber, beren argiak nigarka pizturik, guri buruz artetan heldu diren beribil batzuek.

Ez gira halere berehalakoan ohartzen gaua jina dugula gainerat, agorrilean egiten ohi den bezala ilhundu duela oren-erdi bat barne.

Itzal batek orai lambrotzen dauzkigu etcheak. Geroago nekezago ditugu berechten, multzoka aurkitzen ere baititugu bethi. *Renteria* bere aldian zoin luzea den! Ala bertze herri bat — *Lezo* — ez othe zaion, gu ohartu gabetarik, hegalaz lotu ?

Zerua bera ilhun da, nahiz ez den lanhorik. Nun-nahi ari zaizko pizten izarrak, diamant nimiño batzuen dirdirarekin. Ilhargirik ez da ezagun. Airea epel da, bainan izariz.

Noizean behin gibelerat behatzen dugu, bigarren otoa mainguka bada mainguka badarraikunez. Gureganatzen da nolazpait, lasterra emekitzen dugunean bederen guk. Orduan bi oihu elgarri, eta berriz abiatzen gira zalu, hura bethi ta gibelago gu ganik, gu

halako lotsaño batekin haren heltzeaz ; airos halere guziak, etche-
rat gaur berean sartzeko esperantzarekin.

Bitartean, otomilak usutuz doazi Donostirako. Beren argiak
idekichako ere dituzte, oichtian baino.



Horra nun gure ondo-ondoan, ezkerretarik, agertzen zaikun
ur-cremu handi bat, tokika dirdira hits bitchi batekin, alde orota-
rat igitzen dena ichil bezain eztiki. Intha zonbait ? Aintzira bat ?
Pasajes, dauku erraiten beribilaren jabeak. Arimaz egia, baze-
netz ere ez ginen bertzeak orhoit, hainbertze aldiz orok ikusia
dugun itsas-beharri hura. Den bezala erraiteko, noiz ikusi izan
ere dugu tenore hunekin eta agorril bethean ?

Beha gagozkio begiak zabaldurik. Halako latz bat emaiten
dauku hastapenean. Gero, emeki-emeki jartzen gitzaizko, ohar-
turik ipar-aldeko buruan aroi-zirrinta batzu sartzen zaizkola gain-
behera, zolaraino. Hiriño bat baita han, eliza ikusten dioguna,
hango argiak dira ur-barnean ageri, igikor eta berdaats ura
bezala. Ondo-ondoan, untzichka batzuen hagek hedatzen dute,
uraren gainerat, bere bethekoa baino itzal luzeagoa bakotchak.
Dardarika batek hartzen gitu : hiri hartako hilen gorputzak ez othe
dira, zoko hartan pulunpaka dabiltzanak ?

Hainbertzenarekin, itsasoa sartzen den arteka agertzen zaiku.
Hertsia da, guk uste baino luzeagoa ere ; egundainoko lerdoin
okilaren bi zatik saheskatzen dute motzki. Itsasoa begi-ukaldi
batez baizik ezin dezakegu bihotzera ; aski ba, haatik, ohartzeko
izarrek ja beren neurrian ordaindua diotela iguzkiaren itzaltzetik
galdua zuen aurpegi zoragarria. Barneko opila abian lekutzen
zaiku. Baginuen arintzearen beharra.

Hiriñoaren parrerat heltzearekin, gure alkietarik bihurtzen
gira guziak, azken behako bat behar diogula eman itsas-aintzirari.
Baginakienna agertzen zaiku, uste ez ginuelarik : harateko buruan,
Donosti alderat, bigarren hiriño bat, hura ere uraren bazterrez-
bazter jarria ; sahetsean dugunaren araberrarat urak egiten diona,
hari ere, apur bat mirail ; untzichka batzu bere ondoan ohatzen
ohi dituen hark ere gauaz, etche-multzoaren gerizan.

Erditsutan aintzira ilhun dago ; muthurretan aldiz, ez ilhunbe, ez argi. Lerdoin beltzak, bere urraduraren gatik, beiratzen du eta zaintzen. Hirichka biak, seaska batean haurño batzu bezala elgarri zangoz, eztiki lokhartzera deramatza itsasoaren orro ahulduak.

Pasajes, arraintzari bihoztoien sor-lekua, ehintugun egun artio ontsa ezagutzen. Orhoitzapenik maitena idukiren diagu hitaz, hobea oraino jakinen dugunean hire eskuarazko izen garbia. Gaztelarren errabiak ehortzia othe, izen hau ere, ala hemengo umek berek beren nagikeriaz galtzerat utzia ?...



Bide puchka batean aitzinatzen gira, baina geroago nekezago : aurrez-aur, beren argi handiak piztuak, gainera bezala jiten zaizkigu lerroan otoak, eta firrindan sahetsetik iragaiten. Biarritz, Cap-Breton, Hossegor, itsas-bazterreko hiru herri horietarik ditazke itzultzen Donostirat. Hiruek, guziz azkenak, ez dute nihoiz ukan hoinbertze ikusliar, alderdi hotarik.

Hastapenean, otomobil ederren ikusteaz atsegin dugu, baina laster akitzen gituzte : sobera dira ! Eta gero, gertatzen zaiku bitchikeria hau : ez baitugu ikusten zerua, ez bidea, ez deus, otomobil handien argi hotz bortitzek lilluratzen gituztelakotz eta itsutzen. Ez gatzazkete ohar, ondo-ondorat — zer chimichtan ! — hurbildu zaizkigunean edo hegikatzen gaituztenean bajzik.

Bihurgune bat edo bietan apur bat iziturik, eskuin-alde lekuratzen gira, ahal bezain eskuin, arroilarat eroriko bagira ere. Bare-karakoil batzu bilakatu dira gure karrosañoak ; ilhunbe egiteko, hurriki bada hurriki aitzinatzea gatik nolazpait, horra nun gidariak hiltzera doazinen ohe-mahiko argi hitsa ezartzen dioten muthurrean, bi aldetarik !

Gizachaigoak gu ! Handienak ikusteko gintuen. Bat-batean agertzen zaizkigu, gizotsoak iduri, hiru begiekilako mamu beltz larri batzu, beren larru leuna dirdir. Eta zer lerroa ! Batek bertzea hunkitzen dute, kasik. Erretzen dauzkigute begiak, erretzen dute bidea. Gu ohartu orduko iraganak, haize emaiten daukute begitarterat eta bihotza zarrastatzen. Industriako arranoak, bankoe-

tako saiak, negozioko apalatzak, theatretako gau-ainharak, politikako miruak, zer aztaparrak dituzten orok, zer bekokia eta zer hegalak !

Errabiazko khechu batek gaindi egiten dauku. Ez dea bada hemen legerik, jaun eta andre haundi horien atchikitzeo neurrian ? Nun dira poliza-gizonak ? Hoinbertze argi zendako otoen muthurrean ? Zerentzat, holako firurika ethoa ?

Soinka elgarri, lepoa bihurrian luze, iraina atheratzen zaiku zonbaiti aho-bethez. Badakit gure artean menditar bat, odola gogorki asaldu zaiona. Egiaz, gerla-demboran baitzen *no man's land* — gizonik ezin bizizko bazterra —, gizontasunik gabeko lekua da Gipuzkoako bazter hau; eta araberako angles-hizkuntza baten gai litake, ikaran gabiltzan erregebidea.

Eztitzen zaiku azkenean zirimola. Buztan, huna oraino oto batzu, bainan geroago argalagotuz doa lerroa ; chumeago ere ba, bana-bertze, tresna bakotcharen mustra. Atsedean ginezake, begiak goza ahal bagintza gauaren ederraz. Argitik ilhunbera, ilhunbetik argira baino lasterrago ez baitira ordean jartzen, guziz adin batean... Gogoeta nago, ez dituzkegula horren beraren gatik ere aski ontsa ikusi, ez Iruñako eliza-nausia, ez San Inazioen sor-etcheko kaperak.



Bide puska baten buruan, urrunerat, gorasko, — mendichka baten kaskoan ez othe ? — horra nun ikusten dutan etche churi osoki pollit baten iduriko zerbait ; erraiten diot ene lagunari. — Ez duzu ezagutzen ? ! San Marzialen kapera da. — Barkatu, ez nintzaion behinere ohartu egun bezala. Egiaren aithortzeko, batere ez nintzen orhoit, orai, nun ginen. *Irun*-erat hurbiltzen ari gira beraz ? — Ba, eta ez da goizegi.

San Marzialek gogoratzen dauzkit, diot aitzina ene lagunari, Iruneko jaiak. Batere ez nakielarik urtheko jaien bezpera zutela Irundarrek, hirichka hortan baratu behar izan zitzaitan arats batez. Afal ondoan, hirugarren estaiko gambera baten leihotik bazterrari so nindagon, ene zigartetaren kheaz ahogozo, eta gogoa han-harat goiti, lanhoetan barna, noiz ere karrikatik beharrietarat heltzen baitzait neurriz-gaineko burrumba bat. Behatzen dut

beheiti. Minutan burburbur bethe zen jendez karrika guzia, eta, berehala chirula, klarinet, ttuntun, gitarra, atabal eta ez dakit oraino bertze zoin musikek harrotzen zituztelarik dantzako aireak, hamar bat mulko hasten dira fandangoetan, dantzari galtzadunek bertzalde kriskitinak beren ahur-barnetan joz. Jautsi nintzela zalu, hitz dauzut.

Ez nuen oraino ene bizian ikusi halako alegrantzianik. Ez halako dantza begikorik ere ; ez muthiko ala neskatcha gazte hain zaloin, hain lerden, hain zainhart, hain ginarririk. Zoingehiago ari ziren, berech, noiz elgar-ganatzera, noiz elgarretarik urruntzera, bainan bethi arte berarekin hek bat bertzetik, nahiz bekoz-beko. Etzuten elgarri behatzen bizkitartean, baizik zangoetarat. Artetan, ingurukatzen ziren tokiaren gainean, bainan begiak argirikako zoradura batekin eta irriñoa ezpainetan. Piko bat etzuten galtzen : oinen, soinaren, gogoaren beraren ibilera bizia mentzen zioten eta zaintzen, neurtuz, musika-soinuak.

Hau gelditzen zenean, — ez luzatzat, — atsedentzeko, izerdi onaren chukatzeko, baratzen ere ziren gazteak. Den gutieneko eraberik gabe, elhe emaiten zuten elgarri orduan. Bazituzten izen batzu, zoratzen ninduztenak : Leandro, Castor, Encarnita, Maria-Cruz, Leonardo, Asunción, Jncal. Eta beren arteko solasak hain onak zituzten, hain garbiak eta gochoak, non zorion bethearenak baitzitazken. Berehala, gero, dantzak aikatzen zituen here sail berrirat.

Orduan nintzen ohartu lehen aldikotz, emaztekiaren baitan zintzotasuna eta grazia gaiant ditazkela edertasunari berari ; batek ala bertzeak bizkitartean, edertasun doi bat dutela eskatzen, lasterrenik gizonaren bihotzerako.

— Aithor : dena pindar jarria zitzaitezun zuhauri bihotza ?

— Pindar eta gar ere, baditake ; bainan erretzetik beiratu ninduten han berean aurkitu frantses adichkide batzuek. Orhoituko niz bethi, hetarik baten orduko atheraldiaz. Ikusi duzuna, zaundan erran matzurki adichkide harek, jai guzietakoa da, Baionatik Bilbaoraino itsasoari hurbil banakatuak diren herri guzietan. Eskualduna hemen da, hemen bakarrik, osoki *egiten*. Hemen du agertzen bere lorea ; hemen uzten bere azirik hoberena, bertze

gizadien azi hautenak odoleratuz batzutan. Ontsa doake hartu-
mana, azkar daudeno erroak mendi ta zelaietan.

Kurkurkur gidaria ene sahetsean irriz, beribila sartzen zaiku
Iruneko karrika handian. Nehor ez ; elektrikargi guti ; etcheak
berak mutu. Udaletcheko plaza ere hutsa. Afariten ari ditazke
Irundarrak.

Gain-behera chut luzesko baten zolan gelditzen gira zankez.
Apalgune hau ilhun-beltz legoke, berrogoi ta hamar bat otomo-
bilek, lerroan eta geldi, bide-bazterretik ez balute legearen
kontra beren argi handien dirdiraz ithotzen. Karabineroekin
badukete bizkitartean behingo lan. Guardekin gureek, agian ez !
Behobia-ko mugan gira bada, batzu Espainiarat buruz, bertzeak
Frantziarat.

Bi minuta gabe itzulia dut bere alkirat ene laguna, paperak
sakelan sartuz diolarik : « Prest gira. Aspaldiko adichkidea dut
guarden aitzindaria. »

Holako adichkideak ez dira guti, tenore huntan guziz.

*

Bidasoa bazenetz ere ez niz orhoitu : ez girea bethi Eskual-
erri-barnean ? Hargatik, mugaz hunaindiratu bezain laster,
gozatu zaitala eta berritu zainetako bizia, hori ba. Jabalago
barnea, hatsa hobeki hartzen dut. Bihotz-bihotzez eskualdun izan
gatik, garaitiko nizan guzia frantsesa duketalakotz ez othe ? Adi-
menduz eta buruz uste baino ere maiteago ez othe dugun guziek
Frantzia ?...

Menditik bulharretarat heldu zaikun aire sendoari hautemai-
ten diot, Frantzia guzitik harekin nahastekatzera jina, halako
hazkurri arin, haztarik gabeko zer bat — osagarrizkoa hargatik
— odoleratzeko gure lehenbiziko arbasoek etzuketena.

Ezkerretarik, ezponda gora luze batek ilhunbe egiten
dauku ; eskuin-alde, gurekin ipartzen da, luzatuz, haran zabalsko
bat, — sahetseko mendien itzalak eta izarretarikako argi chu-
riak, elgarrekin batuz, ametsetarik bezala eztiki daukutena
agertzen. Ez dugu berorik, ez hotzik. Urdinaren urdinaz beltza

litake zerua, diamantezko joi dirdiratsuek orai ez baliote, ugari, hedadura guzian apaintzen bere kapa handia.

Urruña-ko hegal bat dugu hau. Eskualerriko gizenena, dut aditzen bazterretik. *Urruña*ko herria bera puska batez haratago dugu. Karrikan sartzearekin, ez gitzaizko ohartzen baizik, erdi-ilhunbeak hits daukalakotz.

Gure hiru andreak, otoaren gibel-alkietan ichil-ichila dagozi Renteriako izialduratik hunat. Gogoetatzen gitu ichiltasun horrek, bainan ez ohartuarena egiten dugu, lo ditazkelakoan orobat. Noiztenka hurrantzen bezala zaiku, halako behaztopa bitchi batzuekin, bigarren otoa. Bertze bizpahiru baizik ez ditugu ikusten, mug'alde zoazinak, hek. Arimarik ez da ezagun.

Zonbait ehun metraren buruko, ezkerretarik, elektrikargiak usu, etche-multzo bat, untzichka andana bat dena haga eta bela, eta gero itsasoaren espalda bat, leihorrari sartua ; itsasoa bera, frango urrun ezagun, osoki eztitua orai eta baketiar. *Doniane-Lohitzune!* Gure loria! Plaza huts, dena bizitegi pollitez inguratu batean gira baratzen, eta jausten zoin-lehenka. Bederatziak eta erdia, elizako ezkilatik.

Berehala huna nun giren, zazpiak, jateko-sala baten mahain ttipi batzuen inguruan ukondo-ukondo jarriak, behar dugula afaldu. Bainan, geure baitarik, bi andanetan jarri gira, nahiz oro elgarrekin eta berdin adichkide : afari eder baten alde hiru, ezia alegerago hiruak ; bertze lauak aldiz, hits, mintzoa bakan, bedera gathelu-esne aski dugula dute chorta batekin.

Ikustekoak dira, handik laster, gure hiru amikatuak ; bi gizonak eta andretarik gaztenak birazka baderamatzate ahamenak ahamenen ondotik, irriz artetan eta ez dakit nungo zerez — egungoetz hitz bat ere gabe! — elgarri emaiten dutela solas. Bertze lauek lanak ditugu ichilik ere, kuller ttipia eskuan.

Ene sahetsean nola aitzinean betondoak ubel ditut ikusten, mathelak sartuak, kalipua ttipi. Nihau gogorki unhatua niz, ebaindua kasik, eta bizkitartean goizean bezain arin dut gogoa, goizean bezain on omorea ; liburu baten egitekoa bainuke egungo goiti-behicitiez, gaur berean izkiriatzen hasten banintz?... Jateko-sala ezin argiago dugu, bere marbre churiekin ; bainan gu zaz-

piez bertzerik ez da nehor, muthiko gazte bat baizik ; hau, afalondo, oherat joaiteko tenorearen beha dagoke, burua gibelerat aldi bakotch uzkailirik bere zigarretako khea soailurat ufatuz.

Ez dira ere ichtorio-gose, ene mahain-lagun maiteak. Geroago bakanago emaiten dautet elhe. Bitartean, ni, ororen gidaria, ene kontzientzia azterzearekin ohartzen niz zoin erho izan naizen eta izan giren oro, egun. Urniki handi batekin, eta huts beretan berriz ez erortzeko chedearekin, egiten diotet aithormena.

Ez, hiru egun oso ez litazke sobera holako bide luzearen egiteko : Ichenbizikoa Iruñakotzat, gaua Tolosan eremaitekotan ; bigarrena Loyolako, goiz eta aratsalde ; hirugarrena, itsas-bazterraz cheheki gozaturik, etcherat itzultzeko, ilhundirian. Emeki zabilzan gure arbasoak, emeki, makila eskuan ; neurritz egiten zuten bide, beihalako Greziatarrek ; bere buru onarekin, asti osoaren hartzen bazakien Broussain mediku eskualzaleak. Gu haur batzu izan gira.

Zonbat gochoago ere ez litazke holako harat-hunatak, mendiez haraindiko gure haurride zonbaitekin egiten baginu ezagutza, hek ordainez gure ikustera ethortzekotan noizean-behin.

Bainan chutitzen zaizkit ene sci adizaleak, batzu afaldurik, berteak aire galdez.

Barnetik landa, o zoin ilhun den kampoan ! Urrats ñimiñoka, galtzarpetik laguntzen ditugu alditchartzera doazinak. Laguntza ttipia ordean : chutik ezin egonez, etche-pareta bati eskuz, besoz eta buruz lotzen dira gaichoak. Pekatzeko ziren nolazpait egungo erhokeriak ; bainan, nork du zinez hoben ? Ahalgetzen nu orhoitzeak berak. Ama maitea, zoin hiski behar ditugun ereman etcherako azken orenak !

Ichilik bederen egon banindadi ! Bainan ez. Holako aldar-tean Pelo eiherezainak ere etzuken athera segur, mintzo gogor batekin adiarazten dutan solas hau : Beharrik ez baituzue gogoan atchiki, Orreagako laborari tetele harek erakutsia ! Nun gintazke orai, zuek eta gu, Burgoz-alderat egin ukan baginu bide ! ?

Hain barna zuten sartua behin, dohakabeek, Burgozerat joaitea !

Hor, heldu zaiku ondorat, bere mekanikari — ikusteko —

harro-aldi bat emanik, bigarren otoaren jabea. « Geroago marhantago doakit ene beribila, dio ezpainak daldaratuz. Badut beldurra ilhargi-izar-churitara dukegun etzatea orok, gaur, kampo zabalean. »

Zer medikuak, hura eta ni, eri batzuen aitzineko !

Beharrik han dugu, bertzelako gizona. Ez du burua galdu, harek. Aitzindari batek bezala manatzen du, aita-familiako batek bezala kontsolatzen :

— Lehenik doala oto erlastua, bortz ehun metraren artearekin gutarik. Makur zerbait gertatzen bazaio, laster ondoratuak gituzke horrela, eskukaldi baten beharretan balitz ere. Gurea, aldiz, gibeletik ibiliko da biziki emeki hastapenean, leihoak oro zabal idekirik. Nahasi denean barnea, ez da deus kampo aire handia bezalakorik, pirkoiltzeko.

Erran eta egin. Eriak kokatzen ditugu ahal bezain polliki. Beribil eria, hatsa itsuski labur, bere senar-emazte gazte sendoekin aitzinatzeraz uzten dugu, gure bichtatik itzali artio.

Gure aldi, gero : bidearen erdi-erditik gu, eztiki, leunki, inharroste den gutienik izan ez dadin.

Abiatzean, « ambulantzeta » karrosa bat dirudi gure beribilak, nahiz puska batez ttipiago.

*
**

Gidaria ez da grinarik gabe. Begitik ageri du ; are gehiago, bi eskuak ingurukatuz deraman lan minberatik. Ohe batean bezala geramatza.

Berrehun bat metraren buruko, horra nun bi mintzo mehe idorrek akulatzen gituzten gibeletik : Bazoazkete, ba gero, zaluchago ! Pasatu zaiku. »

Solas gochoa ! Atsegin dut, daut erraiten irriz ene lagunak, ez dira oraino hilak.

Gogoa arindua, bazterrari so nago. Zerua bethi ilhun da, bainan izarrak argiago baizik ez. Noiz-nahi, bizkitartean, klichikatzen zaiote beren ñirnira : zerbait gaizkiri ohartzen othe diren

Lapurdiko choko huntan, ala pindarrak biziago zaizkoten jauzten beren baitarik, ala urrikari othe gituzten gure aldarte tcharrean?...

Arimarik ez dugu aurkitzen; ez otomobilik, ez organik, ez aberik ere. Hegaztinak berak ichil daude beren ohantzetan. Osto bat ez da, igitzen denik. Zeruko izarrez bertze zer guziek iduri lukete, bakotchak bere moldean, oraiko itchura geldiar bethiereko menduak. Bada hargatik doi aire; alhorretan gaindi bildu usain on beregizko bat hautemaiten diogu.

Larrun-mendiari ez gira chichte baizik ohartzen. *Azkain*-go herria ere — eskuara-mintzazale garbienen herria — gordetzen zaiku bere haran gichenean, bizpalau etchaldeez garaitiko guzia. Eta bihurtzen gira *Sempere*-at buruz.

Zelaia hertsisko dugu behin, ezpondak itzal egiten baitauku ere ezker aldetik. Etche-andanaño baten artetik iragan-eta, agertzen zaiku bizkitartean askitto laster, urrunerat bichkar biribil apal batzuek hesten duten zelai handia.

Handi bezain ederra da. Alha bide dira hemen gozoki landareak, edozoin izan diten, agorrileko gauetan ere: buru-gaina estaltzen diote, doidoi ezagun den sapazko langaño batek. Bainan zer ichiltasuna! Zer bakea, hedadura guzian!

Zaldia apur bat ernatu baitzaiku, ez gaude luzaz herrirat heldu gabe. Etche-lerro beltz bat ikusten dugu lehenik, trebes gure aitzinean, eskuin-alde. Etcheak baino goragoko arbola batzuek belzten dute gehiago oraino, beren itzalaz. Karrikan sartzean, elektrikargi gorrats ahul batzu, direnak ere arras bakan. Karrika bera ilhunsko, arima bat gabe. Elizaren ondo-ondoko etche batean, argiño bat haatik.

— Ertora ditake izkiriatzten ari, diot ene koinatari.

— Ez, gibelchago utzi dugu karrikan ertor-etchea, bertze aldetik. Behatu diot; argirik etzuen, harek.

— Argirik ez bazen ere ageri, segur niz izkiriatzten ari zela Barbier, eskuarazko bertze liburu zombaiten egitekotan. Langile gaitza da. Irakurtu duzu *Piarres*?

— Hemen dago ertor Barbier? Uste nuen Doniane-Garaziko ertora zela... *Piarres* irakurtua dut ba; liburu polit batzu dira, eskuara errech eta garbiz.

— Hala zaizkit nihauri ere. Badute liburu biek halako gochotasun bat, bihotzetik ezin utzizkoa, lehengo Galileatar jende onari baizik aurkitu izan omen ez dena nihoiz. Gochotasun hartarik kotsua hedatu zen bizkitartean orotarar, oichtian ginion Mediterranean berean gaindi ; sartu ere ba ausarkiñoan Eskualerrirat, Semperen behar bada gehienik.

Bainan hau duzu guziz miresgarria : Eskualduner beren jaidura hoberenak ez baitzaiezten den gutienik ahuldu : azkartu ba, izaitekotz. Bigarren liburuak, gerlako zerez baita egina, erakusten dauku aski garbiki : etsai izigarriarekilako gudu beltzean, ez bide da izan gure herritarrak bezalakorik zango-besoz, begiz, hatsaz, asmuaz, beldurrik gabeko gemen iraunkortaz.

Alta, liburu beraren arabera, emazteen eskukaldia eta burua etziren ttipiagoak izan, dela etchaldearen erabiltzeko, dela haurren hazteko, dela senar urrunduaren elhe onez eta gochokeria zerbaitez laguntzeko, dela zaharren eta erien arhatzeko, dela hilen alderako eginbidetan.

Hortik Eskualdunek *Piarres*-i egin dioten esker berezia. Badirauke luzaz gutartean Barbier apez khartsuaren orhoitzapenak.

— Bertze gerlarik ez baledi gerta, ba.

— Bertze gerlarik ! ?

— Ba, bertze gerlarik gerta ez baledi. Jendea ez duzu ikusten sekula baino aztapar-zorrotzago eta tzarrago bilakatua berriz ?

— Izan bedi nahi duena. Eskualdun umeentzat irakurgeti ederrak gelditzen dira Barbier apezaren liburuak.

— Hori ba, eta handitzen abiatu direneko, ene semeek irakurtuko dituzte biak.

— Halaber, agian, bertze hanitzek. Barbier mendiez alde huntarik, eta bertzetik Domingo Agirre, Zumayako idazle bikaina, gure gazteen erakasle on izan bedite. Lur huntako gudu oies eta zirtzilak ez ditu, ondoan, lotsatuko hainbertze.

*
**

Solas eta solas bagoazi holache bide-puska batean, baginoazken ere solas beretan luzaz, basa-lapin sasitik bricht athera batek ez balu bere chochoan trebetsatzera egin. Otoa gainerrat jitearekin, beharrik sasi bererat itzultzen zaiku berdin laster, aldi huntan begi eta beharri handien orde ipurdi churia erakutsiz.

Bainan aitzinerat behatzearekin berriz, zer dugu hantcheko patar luzesko haren bihurtunean ? Hau mamu beltz, larria ! Eta zoin bitchiki dabilan ! Aitzinerat batzutan, artetan guti edo aski gibelerat ere ba ; noiz astoaren urratsean, noiz mandoaren takatakan ; azkemik, amasa ilhun batekin, behor español baten lauazka pisuan. — Etzira ohartzen zer den ? — Ni ez, batere. — Gurekilako otoa da. Gaur ez dela etcheraino heltzen, lepoa.

Gu bien irriak !

Karitatez, bizkitartean, lasterka bagoazi neketan denaren atzemaitera.

Badiagu hoberik ! Gu bihurtunerat heldu orduko, hura, haizea bezala, firrindan harateko aldapa eztiari beheiti. Jabeak leihotik irrintzina-zinkaño bat ez daukuia ere igortzen ?

— Baia baa ! dut aditzen norbaiti hortzen artetik, eta zango-punta ikusten diot geroago zapanago apaltzen. Karraskan bagoazi orai, gu ere.

— Emeki, bada ! Emeki, othoi !... Zer dira manera hok ! Gocha giten orai bedereen ittan bat ! Holako aroarekin !...

Aholku saminak, horiek : aire handiak sendatu baitzituen, gure andreenak.

Hurritzen da berehala motorraren jokada. Bidea ilhunduz doakigu bertzalde. Ilhutzen ere zaiku itsuski, *Zuraide*-ko herri bilduaren parrean. Elektrikargiaren eskasean, etche-argirik ere ez delakotz ageri, diren baino handiago chutitzen zaizkigu beren bichkarretik eliza eta hunen inguruko bizitegiak. Nork lakike ere zendako diren beltz izar-dirdiraren azpian, egunaz churiak direlarik ? Beren itzalaz estaltzen gituzte. Zoin mokorrak gauazko bidezkarientzat ! Ez gira hemen nehor jostagura. Lazten gitu,

ororen gainera. bazterraren ichiltasunak. Britainiako choko batzuez orhoitarazten gitu. Bizkitartean, niri hurbil, bertze gogoeta batzu izan behar dira ; ez iduri gatik, zalu doa beribila, harra-bots gutirekin.

— Bere bi zintzur meharretarik batean bazuken kokatua porroska zerbait, daut noizbait salhatzen gidariak. Patarreko indarka hetan zaioke libratu.

Zalu bada zalu, neurrian doa halere gure beribila, etche-kandere gaztea bere alkitik samur dakion beldurrez. Nor jarraiki, bertzalde, zintzurra bat-batean ideki zaion odoleko zamariari ?

Ezpeleta. Elektrikaz argitua, dena. Athe-leihoak oro hetsiak, bainan nola ez margoztatuak oro, paretetako churien artetik ! Karrikak zilarra bezain garbi. Arima bizirik ez karriketan. Ichiltasuna bera nolazpait mintzo, bizkitartean, dabilanaren bihotzari. Besta bat, hots, guziz gure begientzat.

Handik harat Camboraino, bidea berdin ichil, bazterra berdin geldi, zerua berdin eder. Zakur-sainga bat ere ez nihundik. Jende ala abere, oro lo ditazke, indarrak biharamuneko beritzen daieztela loak ! Oi, laborariaren bake eta zuhurtzia !

Cambo bere aldian loak hartzera deramake, hamekak eta erdia baita. Ez dugu ikusten nehor, aditzen ere ez deus, tipustapastean Urtsu-mendi zolatik tuta-soinu ozen bat baizik : bertzearena.

Zirurikarik saminenean baderamagu guk ere azken patarra, gaineraino ; bainan, aitzindua aitzindu, bertze otoa ari da orai-kotz bere tegirat sartzen.

Elgarretaratzen gira laster etche-aitzinerat. Atheko elektrikargi maiteak, intzaurrondoak, baratzeak, orok ongi-ethorri, eta gu oro ichilik, zer erran ez jakin ! Tente, begiak niriñir eta ezpainenetan irriño batekin beha dagokigu bertzeer, lehenik heldu izan dena.

Ondotik jinen gidariak orduan, azpiz doakon trufañoari ohartzen ez balitz bezala, eta berdin irriz :

— Itzuli ederra, egungoa : 357 kilometra inguratu ditugu, bat gutiago ez. Bainan nori esker ?... Doietarik egin du ez

baitzarete Orreagan gelditu, zuen harri famatuaren ondotik. Beharrik han baitzen dakizuen laboraria, eta serio heldu bainautzuen haren solas maltzurra.

— Zer zen, gezurra! ? diote egiten, harrituak iduri, lau andreek batean.

— Dudan zaudete ? Segurki, gezurra baitzen, ez ttipia. Ba eta zuek orok sinetsi!!!... Jainko maitea !


— Ba eta zu Jainkoak punitu!... Zuk Iruñan muntra galdu!... Merechi! Merechi!...

— Han da, han, bere tokian, ez Burgozen, delako harria. Harendako bakarrik, bertze aldiz batez eremanen zaituztet.

Eta, gogotikago oraino irriz, badoa ene lagun gidaria bere etchekeo athearen idekitzera.

Aitzintzea behartzen zaio haatik barnerat, hiruzpalau ukomilo ttipik atabalatzen baitiote bizkar zabala, erasiaño hunekin :

— Zu!... Zu!... Zu!...



HIZTEGIA

A

- Abegiari*. — Néolog. : accueillant.
Adaitu. — Briquer.
Adaska. — Rameau. Tresse.
Adoste. — S'égaliser. Par extension : s'accorder.
Agerrerat. — A la vue.
Agintari. — Chef.
Agoitze. — Nom basque du village d'Aoiz.
Ahogoza. — Heureux d'une sensation gustative.
Aholku. — Exhortation.
Aiduru. — Dans l'attente.
Aikatze. — Soulever.
Aintzira. — Lac.
Aitzitik. — Au contraire.
Aizkatze. — Chasser.
Akatz. — Défaut.
Alaitasun. — Exubérance.
Aldapa. — Terrain en pente. - Côte.
Aldezkari. — Partisan.
Aldigaixte. — Aggravation épisodique.
Alhatze. — Nourrir. - Pacager.
Alhor. — Petit champ.
Alhartze. — Seuil.
Alta. — Or donc.
Amageitze. — Néolog. : rendre apte à la maternité.
Amarru. — Liant.
Amestari. — Rêveur.
Amilka. — En roulant (de haut en bas).
Aminarre. — Belle-mère (abréviation usuelle du mot composé *amaginarreba*).
Amusko. — Violet.
- Andiantza*. — Majesté.
Antze. — Dextérité manuelle.
Apain. — Soigné.
Apalatz. — Epervier. (Ne pas confondre avec *belatz* : corneille).
Apulgune. — Bas-fond.
Argi-zirrinta. — Rai de lumière.
Argitaratze. — Mettre au jour. publier.
Argul. — Clairsemé.
Arkaitz. — Rocher.
Arla. — Fossé.
Arnasa. — Reniflement.
Artegatu. — Rendu inquiet.
Aruntz. — Vers. *Loyolaruntz* : vers Loyola.
Askatze. — Défier. - Raviner en forme d'auge.
Asmu. — Flair.
Auben. — Lamentation.
Atalki. — Convexité.
Athezain. — Concierge.
Atsedan. — Reprendre haleine.
Atzeko. — D'arrière.
Atzerritar. — Etranger de nationalité, mais surtout de race.
Auritze. — Nom basque du village de Burguette.
Aurkerasle. — Contradictéur.
Aurkintze. — Endroit.
Aurpegi. — Haut du visage.
Aurrerapen. — Progrès.
Aurrez-aurre. — Face à face.
Austria. — Autriche.
Austriako. — Autrichien.
Auzki. — Surface.
Azi. — Graine. - Semence.
Azita. — Assiette.
Azoka. — Halle.

Aztertze. — Examiner. *Azterketa:* examen.

B

- Badihardukot.* — Je lui résiste effectivement.
Bahitze. — Cerner.
Baitzpadako. — Indispensable.
Bakartiar. — Aimant la solitude.
Baldoki. — Tempe.
Baketiari. — Pacifique.
Banakatu. — Disséminer.
Baserritar. — Gens de la campagne.
Batza. — Société.
Begiko. — Plaisant à l'œil, surtout par l'harmonie des proportions.
Begiratua. — Réserve.
Begirune. — Considération.
Begitarte. — Visage dans sa longueur.
Bekoki. — Audace effrontée.
Bekuruntza. — Mine.
Beihala. — Autrefois.
Beranda. — Vêranda.
Beregisko. — Original.
Beribil. — Dénomination humoristique de l'automobile.
Berro. — Fourré.
Bertan. — Sur-le-champ.
Betespal. — Paupière.
Betondo. — Cerne des paupières.
Bidaltze. — Mander. — Envoyer.
Bidatze. — Conduire.
Bidezkarri. — Voyageur sur route.
 Ne pas confondre avec *bidekarri*, qui signifie bon marcheur.
Bihoztoi. — Courageux.
Bikain. — Excellent.
Biluz. — A poil.
Bioazi. — Qu'ils aillent. — On dit aussi: *biatza*.
Bitartean. — Dans l'intervalle.
Bitarteko. — Arbitre.
Bortu. — Pacage en haute montagne. — Endroit désert.
Botz. — Joyeux.
Bozte. — Se réjouir.
Burbutziki. — En s'ébrouant.
Burujope. — Prétention.
Buztartze. — Enjouer.

C

- Chahu.* — Net.
Cherranga. — Bande étroite.
Chichel. — Ciseau à froid.
Chilar. — Luisant de propreté.
Chintchimeriak. — Les tribulations.
Chiribolaize. — Tournoyer.
Chorro. — Petite saillie ronde.
Comed. — Mot espagnol: mangez.

D

- Dakust.* — Je le vois. — *Dakusketa-lako izia:* la peur de le voir (selon les probabilités.)
Datchikola. — D'affilée. En continuité. Aitenant.
Datchit. — Il m'adhère, il me tient.
Dathozila. — Qu'ils viennent.
Datza. — Ils gisent.
Deithoragarri. — Très regrettable. — Lamentable.
Derakuste. — Ils le montrent.
Derraiku. — Il nous le dit.
Diozt — (*Dizt!*). — Me dit-il.
Diozte. — Il leur dit.
Dirudi. — Il semble, il ressemble à.
Donostia. — Nom basque de la ville de Saint-Sébastien.

E

- Ebena.* — Ebène.
Ebaindu. — Las.
Ebro. — Quantité énorme.
Edireite. — Trouver.
Edozer. — Quelconque. — N'importe quoi.
Egintza. — Acte.
Egitate. — Egard.
Egiztatze. — Vérifier.
Egoki. — Approprié.
Eiheralarre. — Nom basque de St-Michel-le-Vieux.
Eiken. — Néolog.: différence. Différent.
Eitziar. — Néolog.: dissemblance.
Ekatz. — Tempête.
Ekandu. — Mœurs.
Elhasturi. — Bavardage.
Eliskizun. — Cérémonie religieuse.
Eltzagortu. — Tympanisé, assourdi.

Emokatu. — Crépi. - Collé.
Eubor. — Tronc d'arbre (vu en épaisseur).
Enda. — Race. On dit aussi *abenda*.
Endurtze. — Se consumer.
Epai. — Sentence.
Eraikitze. — Construire.
Erantzute. — Répondre.
Eretze. — Arriver à niveau.
Eriondo. — Convalescent de maladie.
Erkaitz. — Sourire méchant.
Erosoun. — Confortablement.
Errara. — Etalé sur le dos.
Errobia. — Nom basque de la Nive.
Erronkari. — Nom basque de la vallée de Roncal.
Esketari. — Quemandeur.
Eskualki. — Dialecte.
Eskualzale. — Zélateur de la langue basque.
Eskupeko. — Pourboire. Sous la main.
Eslai. — Oblique.
Espal. — Javelle.
Etchetiar. — Fermier.
Etchezain. — Métayer.
Etekin. — Produits livrables.
Ethentze. — Se creuser d'extenuation.
Euskaltzaindia. — L'Académie de Langue basque.
Ezagutuarren. — Quoique ayant connu.
Ezpartzu. — Corde d'ajonc tressé.
Ezponda. — Talus.

F

Fleitean. — Dispos.
Floka. — Cravate.

G

Gabatze. — Annihiler, (Rendre ou devenir obscur comme la nuit).
Gai. — Digne. Capable.
Gaientze. — L'emporter sur.
Gailur. — Sommet de montagne.
Galtzaratu. — Pavé de pierres pointues.
Gapelu. — Chapeau.
Gapiria. — Poutrelle.
Gardatz. — Propre, de tenue correcte. Ergageant.

Garesti. — Cher, coûteux.
Gari. — Blé sur pied. - Plant du blé en entier.
Garrafla. — Carafe.
Gathe. — Chaîne.
Gauzkazke. — Il nous tiendrait.
Gastelar. — Gens de la Castille.
Gemen. — Fores d'âme, maîtrise de soi.
Gerenda. — Pente rapide. Précipice.
Gesaltze. — Se déliter, se fondre.
Gibelondo. — Conséquence. - Résultat.
Ginartza. — Musculature.
Gizadi. — Pauplé.
Gizairudi. — Statue.
Gizaseme. — Mâle.
Gizotso. — Homme-loup des légendes.
Gogerauntzia. — En extase.
Gogo-erabaki. — L'pensée, sous forme de jugement.
Goiarin. — Ecervelé.
Goien-goienean. — A l'extrême hauteur.
Goipularri. — Néolog.: coupole.
Gopida. — Hésitant par peur ou par timidité.
Gutieste. — Mésestimer.
Guziz. — Surtout.

H

Habe. — Poutre maîtresse.
Haran. — Vallée.
Hartu-eman. — L'échange.
Hasarre. — Irrité.
Haurcho. — Petits-enfants.
Hautemaite. — Sentir confusément.
Hedoi. — Nuage épais.
Hegatz. — Auvent de la toiture.
Herecha. — Trace, vestige.
Heren. — Tiers (fraction).
Herrikoï. — Amoureux de son pays.
Hiztegi. — Lexique.
Hutagune. — Intervalle vide.

I

Ibai. — Rivière.
Ibar. — Vallée arrondie, généralement en cul-de sac. Haut de vallée.
Ibilera. — Démarche.

Idazle. — Ecrivain.
Idazki. — Fragment ou extrait d'une œuvre écrite.
Idazti. — Œuvre écrite.
Idukitze. — Retenir.
Idurikatze. — Imaginer.
Iduripen. — Opinion.
Igeltzu. — Plâtre.
Igurikitze. — Attendre.
Ihetché. — Effiloché.
Ikhertze. — Fouiller.
Ikusgar. — Digne d'être vu.
Ikuskatze. — Promener attentivement son regard sur.
Ikuskizun. — Spectacle.
Ikusmenean. — À portée de la vue.
Ikustaldi. — Visite. — On dit aussi *ikusaldi.*
Ilhaun. — Flammèche éteinte.
Ilobaso. — Petit neveu.
Iñar. — Rayon de lumière.
Ingudi. — Enclume. — On dit aussi *ungide.*
Intha. — Marécage.
Ipar. — Septentrion, nord.
Iragartze. — Annoncer.
Irain. — Injure.
Iraztor. — Fougère.
Irudimen. — Imagination.
Itsasturi. — Homme de mer.
Ittan. — Instant.
Itzalgune. — Endroit ombreux.
Iuzpegi. — Est, orient.
Izan-erik. — A moins que ce ne soit.
Izur. — Pli.

I

Jabaltze. — Apaiser.
Jai. — Fête publique.
Jaka. — Jupe courte.
Jakintza. — La science.
Jakitatea. — Le savoir.
Jasotze. — Lever.
Jeinu. — Adresse d'artisan.
Jogi. — Jeu (fonctionnement. — Point d'incidence).
Joi. — Joyau.

K

Kalipu. — Vivacité physique.
Kanaitate. — Caractère.
Kantauris. — Le pays des Cantabres.

Kantitze. — Bouger.
Kantore. — Lutrin.
Karana. — Avenant.
Kaskaitze. — Se déformer par amaigrissement ou par usure.
Kasketa. — Entêtement.
Kaskar. — Raboteux, rocailleux.
Kezka. — Souci.
Khabarrota. — Renflé en tumeur.
Kizki. — Chaume, éteula.
Kizkurtze. — S'enrouler en volutes.
Kriskitin. — Castagnettes.
Kristau. — Chrétien. — Âme qui vive.
Kukulu. — Cime.
Kurlo. — Minuscule.
Kurubilkatu. — Ramassé sur soi.

L

Lagundi. — Société.
Langar. — Bruine.
Lapur. — Maraudeur, chapardeur.
Larrun-mendia. — La Rhune.
Lats. — Huisseau.
Lau. — Palier. — Horizontal.
Lauazka. — Galop.
Legartza. — Plage.
Lehia. — Intention.
Lele. — Naif et simple tout ensemble.
Lelo. — Enthousiasme.
Lerdoin. — Côteau à la fois allongé et arrondi.
Likits. — Trouble.
Lipar. — Petite quantité.
Lirain. — Elancé.
Luzaide. — Nom basque du village de Valcarlos.

M

Mailadi. — Escalier.
Maipulis. — Paletot.
Mapa. — Carte géographique.
Marga. — Nuance.
Margolari. — Artiste peintre.
Margaztatu. — Peint avec art.
Mendai. — Amas volumineux quelconque, évoquant les contours d'une montagne.
Mendaitz. — Portion de montagne s'inclinant en talus, menaçant de s'ébouler.
Menpeko. — Sujet, assajetti.

Mentze. -- Dominer. - Au passif: se soumettre.
Mireste. -- Admirer. Parfois: regretter.
Menuzergu. -- Métier de menuisier.
Motho. -- Coiffe arrondie.
Munho. -- Plateau.
Musco. -- Musée.
Musker. -- Vert-gras.
Mustra. -- Volume apparent.
Muthiri. -- Maussade et dur.

N

Nabar-likistu. -- Tourné au gris-salé.
Nakaitz. -- Goguenard. - Dégoût.
Naro. -- Tranquille.

O

Odaiertzean. -- A l'horizon des nuages.
Ohartzare. -- Objet de remarque.
Ohe-mahi. -- Table de nuit.
Okil. -- Pivert. - Au figuré: opaque, intercepteur, écran (?).
Olde. -- Impulsion. - *Gure oldez:* de notre propre mouvement, spontanément.
Olerkia. -- La Poésie.
Olho. -- Fonderie.
Ondikotz. -- Hélas!
Opor. -- Déconvenue.
Oraitan. -- A l'instant même.
Oren berri. -- Heure légale.
Oren zahar. -- Heure solaire.
Orhoitmen. -- Souvenir, mémoire.
Orhoitzaren. -- Objet de souvenir, matière à se souvenir.
Orobat. -- Aussi bien.
Orozbat. -- Tout ensemble.
Orreaga. -- Nom basque du village de Roncevaux.
Ortzadar. -- Arc-en-ciel.
Ospa. -- Faste.
Ortzalde. -- Vers le ciel.
Ospetze. -- Illustrer.
Ostiko. -- Étai.
Othartzte. -- Se transformer en lande à genêts.
Ots. -- Bruit.

P

Para la mamá. -- Phrase espagnole, signifiant: pour la maman.
Pekatzte. -- Subir les conséquences.
Pentoka. -- Butte.
Pinpalet. -- Tarière. - Percant.
Pinpirin. -- Joli comme un bouton de fleur, comme un papillon.
Pirkaitze. -- Se remettre (en vigueur).
Planadera. -- Esplanade.

R

Ruso. -- Russe.

S

Sai. -- Vautour.
Saikatze. -- Diviser en tâches.
Sainda. -- Sainte.
Saingu. -- Aboiement.
Sakeloren. -- Montre de poche.
Saltegi. -- Magasin. - On dit aussi: *saltoki, salgi.*
Senska. -- Berceau.
Sarguia. -- Entrée.
Sendalari. -- Guérisseur.
Serio. -- Sérieusement.
Soailu. -- Plafond.
Soin. -- Corps.
Soinka. -- S'épaulant, se poussant latéralement.
Sorjes. -- Démesuré. Extravagant dans le mauvais sens.
Sotil. -- Consistant, solide.

T

Tarro. -- Grandet.
Tegi. -- Abri.
Tente. -- Pilier. - Debout, le buste droit.
Tetele. -- Bavard de tempérament, au débit molasse.
Thematzte. -- S'obstiner.
Titarratu. -- Bigarré.
Trebe. -- Familier.
Trikatze. -- S'arrêter un moment.
Ttunttun. -- Tambourin à une seule baguette.
Ttipoi. -- Corset de toile.

Ttutturru. — Sommet en forme de cône.
Tupustadako. — Brusque, soudain.

U

Udaletehe. — Hôtel de Ville.
Udare. — Fruit en général.
Uhartze. — Horizon d'une étendue d'eau.
Uhin. — Vague.
Ugari. — Abondant.
Ukare. — Poignet.
Ukertze. — Odores. - Par extension : comprendre.
Unhatu. — Rompu de fatigue.
Urdaik. — Estomac.
Urgoi. — Fierté. - Fier.
Urraska. — Promenade.
Urrin. — Odeur mauvaise.
Urrutirat. — Vers le lointain.
Usnatze. — Humer (contraction de *usaintze*).
Usu. — Fréquent.
Uzta. — Récolte.

Z

Zabalguene. — Evasement.

Zaintzozte. — Néolog. : saisissement.
Zalantzate. — Se balancer. Osciller.
Zaraitzu. — Nom basque de la vallée de Salazar.
Zedra. — Cèdre.
Zeregia. — Tâche.
Zerranga. — Bande étroite d'un objet quelconque.
Zerren. — Artison (genre d'insecte).
Zilin. — Inconsistant. - Trainant.
Zintzo. — Franc. - De bonne foi.
Zipoteka. — A pleine poitrine, à plein souffle.
Zipu. — Puits.
Zirikanda. — Sobriquet donné aux agitateurs.
Zirimola. — Tornade, tourbillon.
Zirringila. — Vrille.
Zirritu. — Soupirail.
Ziskatze. — Se trouer par vermoulure.
Zirudien. — Il ressemblait à.
Zuhatz. — Arbre.
Zume. — Osier.
Zurpail. — Blafard.
Zutoi. — Tronc (vu en hauteur).

AURKIBIDEA

AITZIN-SOLAS	5
I. — MUGARAINO	7
II. — NABAR-GOITIN HARAT	13
III. — NABARREKO HIRI-NAUSIAN	20
IV. — BAZKARIA	26
V. — BAZKAL-ONDO	33
VI. — GIPUZKOAKO SARGUIA	39
VII. — CHINTCHIMARIAK	44
VIII. — LOYOLAN	52
IX. — ZIRIKANDO	60
X. — ITSASOA KUKULAUKA	76
XI. — BERTZE BIETAN AGERTZEN	83
XII. — GAUAZ	90
HIZTEGIA	104

